



Djamila Zerebyri  
elkarrizketa, IMME  
elkartez eta beste

Lau hamarkada  
segurtasuna  
bermatzen



## HERRIKIDE BERRIEI ONGIETORRIA

Iaz, 396 lagun erroldatu ziren Bergaran, 30 nazionalitate baino gehiagokoak; Euskal Herriko beste toki batzuetatik etorritakoak gehienak. Bihar, zapatua, ongietorri-ekitaldia egingo diete, Udalaren ekimenez / 22

Jatorri askotariko hainbat bergarar –gehienak iaz erroldatuak–, eguaztenean, Irala kalean. XABIER URZELAI



**Hezkuntzan  
egoera okerrera  
doala diote  
langileek** / 2

**Audi Q4**

*Disfrutatu  
teknologiaz!*

Gipuzkoa etorbidea, 36  
ARRASATE • 943 71 18 70

**Udalaitz**

**Hemen  
garbiketak**

Ura bezain garbia

T.- 943 71 48 45



**Jokin Bereziartua Lizarazu**

DEBAGOIENA

Euskal Autonomia Erkidegoan hezkuntza publikoan diharduten langileen lan-baldintzak hobetzeko aldarrikapenek zeresan handia eman dute, bereziki, urtarrilerako eta otsailerako greba deialdiek eraginda. Eusko Jaurlaritzaren eta sindikatuen arteko negoziazioen menpe daude hezkuntza publiko ez-unibertsitarioko irakasleen eta sukaldarien zein garbitzaileen lan-hitzarmenak berritzeko aukerak –haur eskoletan akordioa lortu du LABek asteen–. Sindikatuen eskaerak honako hauek dira, nagusiki: lan-zamak arintzea; gazteberritze planak garatzea; eros-ahalmena berreskuratzea; enplegua egonkortu eta bermatzea; ordezkoen lan-baldintzak hobetzea; eta osasun-, berdintasun- eta euskara-planak garatzea.

Negoiazioez harago, langileengan jarri nahi izan du arreta GOIENAK, eta, horretarako, Arrasaten elkartu ditu profil ezberdinak dituzten Ander Agirrebeitia (Arrasate, 1989), Amaia Isasa (Pasaia, 1975) eta Kepa De Vega (Elgeta, 1992). Elkar ezagutzen ez badute ere, argazki saiorako elkartu eta berehala jarri dira solasean bizi duten egoeraz; hirurak bat datoz: hezkuntza publikoaren egoera okerrera doa, "etengabe".

**Ordezkorik eza, eguneroko ogia**

Ander Agirrebeitia duela bederati urte hasi zen Hezkuntza Sailerako sukaldari lanetan. Eibarren zazpi urte egin zituen eta gaur egun Oñatiko herri eskolan ari da. Lanean hasi zenetik egoerak okerrera egin duela dio; batez ere, ordezkapenetan: "Okerrera egin dugu, baja hartzen duten lankideak ordezkatzeko gehienetan egun bat edo bi egun itxaron behar izaten dugu; tarte horretan lanean ari garen sukaldarien artean banatu behar izaten dugu eginbeharra eta horrek lan-karga asko areagotzen digu. Garai baten baja bat bazegoen, delegaziora deitu eta arazoa konpontzeko ahaleginak egiten zituzten, baina gaur egun ezin dugu telefonoz deitu. Orain dena doa aplikazio bidez, baina oso urrun dago guretzat sistema eraginkorra izatetik. Garbitzaileekin batera, sukaldariok gara Hezkuntza Sailean baldintza eskasnak dituen kolektiboa". 2009a ezkerro



Hezkuntza publikoan diharduten Ander Agirrebeitia, Amaia Isasa eta Kepa De Vega, asteen, Arrasaten. JOKIN BEREZIARTUA LIZARAZU

# "Egoera okerrera doa, etenik gabe"

Hezkuntza publikoko langileen greba deialdiak direla eta, profil ezberdina duten hiru langilerekin elkartu da GOIENA, bizi duten egoera gertutik ezagutzeko. Hirurak bat datoz: hasi zirenetik gaur egunera arte, lan-baldintzek "etengabe" egin dute okerrera

lan-hitzarmena berri ez die-tela ere salatu du Agirrebeitiak: "Ardura eta kezka handiz bizi dugu egoera, hitzarmena berritzeko behar handia dugu eta. Indarrean dagoen hitzarmena oso zaharkituta geratu da gaur egun ditugun beharretarako". Gainera, martitzenean izan zen negoziazio mahaitik zerbait aterako zela itxaropena bazuten, baina ez zen hala izan: "Ahoz agindu digute gauzak aldatuko direla, baina idatziz ez dago ezer. Askotan esan digute gauzak hobetu digutela, baina idatziz izan arte guk borrokan jarrai-

## "GARBITZAILEEKIN BATERA, BALDINTZA ESKASENAK DITUEN KOLEKTIBOA GARA"

ANDER AGIRREBEITIA, SUKALDARIA

tuko dugu". Otsailaren 19rako eta 20rako dute deituta greba sukaldariak eta garbitzaileak.

Azken bederati urteetan osasun azterketarik egin ez duela ere salatu Agirrebeitiak, eta honako mezu hau helarazi nahi dio gizarteari: "Gure egoera ulertzea eskatzen dugu, lan-baldintzak hobetzeko egiten dugula greba. Gure egoera hobetu ahala, ikasleei ematen diegun jangela-zerbitzua ere hobetuko da".

**Lan burokratiko gehigarria**

Pasaian jaio arren, 20 urtetik gora daroatza Amaia Isasak Ber-

## "TUTOREI GERO ETA GEHIAGO ESKATZEN ZAIGU EGITEKO; BATEZ ERE, GELAZ KANPO"

AMAIA ISASA, IRAKASLEA

garan bizi izaten. 2009an hasi zen irakasle, ordezkapenak egiten, eta gaur egun Lehen Hezkuntzako laugarren mailako tutore da. Tutore bezala lan-zama asko areagotu zaiola dio: "Tutore moduan gero eta gehiago eskatzen zaigu. Gero eta garrantzi handiagoa hartzen du gure egunerokoan lan burokratiko administratiboak; hots, gelatik kanpoko lana gero eta handiagoa da. Tutoreez harago, baldintzek, oro har, okerrera egin dute; ordezko hasi nintzen ni, eta badakit jakin ordezkoen panorama asko konplikatu dela. Adibidez, oso ohikoa

## "IRAKASLEON EGOERA IKUSTEKO, ESKOLARA GONBIDATUKO NITUZKE GOI KARGUAK"

KEPA DE VEGA, IRAKASLEA

da oporrak ez ordaintzeko kontratuak etetea".

Irakasle ez-unibertsitarioak grebara deituta daude otsailaren 26rako eta 27rako; Isasak dio urtarrilerako deialdiek "jarraipen handia" izan zutela lan egiten duen ikastetxean: "Zerbitzu minimoetarako langileak bazeuden, zozketarik egiteke, baina agerikoa izan da azken deialdi horiek aurrekoek baino jarraipen askoz zabalagoa izan zutela. Aurreikusten dut, gainera, hurrengo asteko deialdiek ere babes handia izango dutela; lan-zama honekin erreta gaude eta ia denok gaude ados deialdiarekin. Behar handia dugu gauzak aldatzeko, 2010etik berritzeke den hitzarmena berritzeko". Bestalde, familien partetik erantzunen bat jaso ote duen galdetuta, honako hau dio Isasak: "Pertsonalki ez zait mezurik iritsi. Egia dena da joera handia dagoela, irakasleen partetik grebak jarraipen handia izan arren, ikasleak eskolara bidaltzeko; arrazoiak askotarikoak izango dira. Uste dut gizarteak ez dituela behar beste ulertu gure eskaerak".

**Irakasleen haserrea eta nekea**

Irakasle bezala zortzigarren ikasturtea du Kepa De Vega elgetarrak. Azken sei urteak Gasteizko eskola batean egin ditu, eta dio lan-baldintzek "etengabeko okertze bat" bizi dutela hezkuntza publikoan: "Lan burokratikoaren igoera azken urteetan izugarria izan da; paper gainean ratioak jaitsi badira ere, gure gelak gainezka daude; eros-ahalmena etengabe galtzen ari gara –soldata igotzen dute, baina inoiz ez KPI beste–; ordezkoak gero eta beranduago datoz; ordezkoen baldintzak gero eta okerragoak dira; Hezkuntza Premia Bereziko ikasleen arretarako murrizketak etengabeak dira; osasun azterketak ez dizkigute egiten... Irakasle gehiago behar dira, gaudenok haserre eta nekatuta gaude. Goi karguei eskolatik pasatzeko gonbita egingo nieke, irakasleok bizi dugun egoera ikus dezaten".

Grebe familia batzuk haserretzen dituztela badaki De Vegak: "Badaude kezak direnak. Entzuten dute gure borroka euren seme-alaben mesederako ere badela. Eskubide unibertsala den hezkuntza publikoa hobetzeko borrokan ari gara, ez dezagun ahaztu".



# Emakume zientzialariak, inspirazio-iturri

Debagoiengan hainbat ekintza egin dituzte –Arrasaten, Bergaran eta Eskoriatzan–, emakume zientzialarien lana ikusarazteko, gazteei zientzia eta teknologia arloak gerturatzeko eta belaunaldi berriak inspiratzeko helburuarekin

**Sara Lanz Azpiazu** DEBAGOIENA

Otsailaren 11ren bueltan, Neska eta Emakume Zientzialarien Nazioarteko Egunaren harira, hainbat ekintza antolatu dira aste honetan Debagoiengan. Helburua zehatza eta argia izan da: emakume zientzialarien lana ikusaraztea eta neska gazteei zientzia eta teknologia arloak gerturatzeko. Ekintza horiek emakumeen ekarpena aitortzeko eta belaunaldi berriak inspiratzeko antolatu dituzte.

Jarduera horien artean egon dira Bergarako Seminarixoan egindako mahai-ingurua, Fagor Automationera bisita, Mondragon Unibertsitateko bisitak eta Ikerlan ezagutzea. Bertan, hainbat emakume zientzialarik euren esperientziak partekatu dituzte, gazteei ingeniartzara eta teknologiarantz hurbiltzeko aukerak eskainiz, ikerketa eta garapen proiektuak ezagutarazteko.

**Mahai-ingurua**

Gipuzkoako Industri Ingeniarrien Elkargoak antolatuta, hilak 11n Bergarako Seminarixoan *Emakume Ingeniariak* mahai-ingurua egin zuten. Ingeniari izateak zer esan nahi duen eta sektorean dauden lan aukerei buruz aritu ziren hainbat hizlari: Sara Fermin –Eu-

ropa Fagor Electronica enpresako *area sales manager*-a–, Izaskun Larrañaga –Lacor-Ibili Taldeko kontseilari delegatua– eta Annie Narvaez –AMIE Consulting-eko industria-aholkularia–. Helburu berari jarraituz, Mariaren Lagundia ikastetxeko ikasleek ere parte hartu zuten.

Mahai-inguruaren ostean, Bergarako ikastetxe guztietako ikasleek parte hartu zuten Emakume Zientzialarien Lehiaketako sariak banatu zituzten, ekitaldiari amaiera emateko.

**Fagor Automationera bisita**

Eskoriatzako Fagor Automation enpresak bisita bat antolatu zuen Arizmendi Ikastolako ikasleentzat. Bertan, teknologiararen eta industriaren mundua gertutik ezagutzeko aukera izan zuten. Enpresako emakume langileek gidatutako bisitan, lantegian egiten diren lanak aurkeztu zizkieten ikasleei, diseinutik eta mekanikatik

**HELBURUA ZEHATZA ETA ARGIA IZAN DA: EMAKUME ZIENTZIALARIEN LANA IKUSARAZTEA**

hasi eta ikerketa eta garapenerako laborategietaraino.

**MUra bisitak**

Mondragon Unibertsitateak ere atea ireki ditu interesa izan duten ikasleentzat, ingeniartzak bistaratzeko. Goi Eskola-lau campusetara bisitak eskaini dituzte, astelehenetik ostegunera bitartean. Ostegunean, Arrasateko Iturripeko campusa bisitatu zuten Kurtzebarri BHIko DBH-4ko 64 ikaslek. Azken bisita hartan, hiru gune ezagutu ahal izan zituzten bisitariak: Prototipatu, Material eta Biomedikuntza laborategiak.

**Ikerlan ezagutzeko aukera**

Bestalde, Arizmendi Ikastolako eta Arrasateko Institutuko zientzia eta teknologiarako batxilergoko bigarren mailako ikasleek Ikerlan ezagutzeko aukera izan zuten asteartean; guztira 60 ikasle egon ziren. Emakumeak Zientzian ekimenarekin bat eginez, Naia Badiola, Amaier Mendi eta Aizea Lojo Novo ikerlariek Digilab-etik gidatu zituzten ikasleak, beren esperientziak partekatuta eta adimen artifizialean, zibersegurtasunean eta energian oinarritutako proiektuak erakutsita.



Laida San Sebastian, Sara Fermin, Izaskun Larrañaga eta Annie Narvaez. I.B.



Almeneko ikasleen bisita Eskoriatzako Fagor Automationera. T.M.



Itsaso Zubeldia, Kurtzebarri BHIko ikasleekin, MUko prototipoen laborategian. S.L.

**LANBIDE HEZIKETA PUBLIKOA**  
**DEBAGOIENEAN ATEAK ZABALIK**

*Etorkizuna zure esku*

**Fp** ikasLAN  
Gipuzkoa

**ARETXABALETAN:**

APIRILAK 9 (18:00)  
MAIATZAK 6 eta 13 (18:00)

**ALE**

**ALE - Aretxabaleta Lanbide Eskola**  
Etxebarri auzoa, 2/g - 22 Pk. • 20550 ARETXABALETA  
☎ 943 79 79 00 / Whatsapp: 688 811 489  
la@aretxabaleta.com  
[www.ale-aretxabaleta.eus](http://www.ale-aretxabaleta.eus)

**BERGARAN:**

OTSAILAK 19 (18:00)  
MARTXOAK 29 (10:00 eta 11:30)  
MAIATZAK 8 (18:00)

**MIGUEL ALTUNA**  
Lanbide Heziketa

**Miguel Altuna LHII Bergara**  
Agirebidea, 2 • 20570 BERGARA  
☎ 943 899 270 / 943 899 271  
info@maltuna.eus  
[www.maltuna.eus](http://www.maltuna.eus)

**ONATIN:**

OTSAILAK 25 (18:00)  
APIRILAK 9 (18:00)  
MAIATZAK 7 (18:00)

**ONATI**  
Institutua

**Oñati Institutua**  
Larraña auzoa, 16 • 20560 OÑATI  
☎ 943 899 300  
info@onati.net  
[www.onati.net](http://www.onati.net)

**2025-2026 IKASTURTERAKO AURREMATRIKULA MAIATZEAN**





Gipuzkoa arigune egitasmoaren aurkezpena. TAUPA MUGIMENDUA

# Antzuola, 'Gipuzkoa arigune' egitasmoan

Euskararen ulermena orokortzea eta hiztunak euskaraz aritzearen aldeko kultura eta adostasun soziala nagusitzea ditu helburu GFaren, Tauparen, Soziolinguistika Klusterraren eta Badalab-en ekimenak, eta Antzuolak esperimantazio-fasean hartuko du parte

**Idoia Aranbarri Arzuaga** ANTZUOLA Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Taupa euskaltzaleen mugimenduak abiatu dute *Gipuzkoa arigune* egitasmoa, Soziolinguistika Klusterrarekin eta Badalab-ekin batera. Ekimenaren helburua da euskararen ulermena orokortzea eta hiztunak euskaraz aritzearen aldeko kultura eta adostasun soziala na-

gusitzea. Lehen esperimantazioaldian hartuko du parte Antzuolak, Añorgarekin eta Aiarekin batera.

Antzuolako alkate Olatz Lezetak azaldu du iazko apirillean jaso zutela proiektuan parte hartzeko proposamena: "Aukera pozik hartu genuen. Garbi ikusten genuen beharra zegoela euskararekin zerbait egiteko.

Udalan sartu ginenean garbi geneukan euskarari eman nahi geniola indarra, eta Euskara batzordea sortu genuen. Batzordea martxan ezin jarrita genbiltzan, eta *Gipuzkoa arigune* etorri zen. Ea horrekin noraino iristen garen, baina hasiera ona dauka". Gaineratu du proiektu horretan sartuta batzordeko taldea handitu egin dela eta,

talde motorraz gain, ekintza espezifikotarako taldea ere badutela; denera, hogeit lagun inguru dira.

Jabi Etxaniz antzuolarrak euskara taldeetan parte hartu du, eta dio halako proiektuetan parte hartzea aprobetxatu egin behar dela, "beti izango dela lagungarria". Antzuolan azterketa bat egin dutela adierazi du, euskararen bueltako ohiturak eta jarrerak zein arlotan aldatu diren identifikatzeko: "Akatsak non egiten ditugun ikusteko balio du. Adibidez, ostalaritza da adibide garbia. Duela 20 urteko ohiturek ez dute balio nahi badugu euskara mantendu eta erabilerara igo. Saiatu gaitezen tresna erakargarriagoak ematen euskara ikasteko".

## Komunitatearen garrantzia

Jasone Mendizabalek, Taupako koordinatzaile orokor eta Soziolinguistika Klusterreko lehendakari arrasatearrak, egitasmo horretan ikuspegi komunitarioak duen garrantzia nabarmendu du: "Euskararen garapena eta komunitatearena elkarren eskutik gabilta sustatzen; izan ere, hizkuntza tresna boteretsua da gizartearen kohesionatzeko eta eraldaketa soziala bultzatzeko". Hori dela eta, azaldu du egitasmoa bera ere komunitatetik abiatzen dela, esate baterako, udalerriko erroñei eta aukerei erreparatzen zaielako komunitatearekin batera, euskararen ezagutzari eta erabilerari dago-kionez. "Abiapuntuan oinarriko proposamen bat ere badago tokian toki eraldaketa bultzatzeko; non eta nola eragin behar den aztertu eta adosten da".

Metodologian ere jarri dute arreta sustatzaileek, eta Imanol Larreak, Soziolinguistika Klus-

terreko zuzendari antzuolarrak, erantsi du *Aldahitz* ikerketa "oinarri garrantzitsua" izango dela. "Hipotesizat hartzen du ez dela ezinbestekoa euskaraz ongi hitz egiten jakitea hitz egiten hasteko, ulertzea nahikoa izan daitekeela besteak guri euskaraz egiten has daitezen; betiere, horretarako testuingurua sortzen badugu". Bada, hiru metodologiarekin dihardute: *Uler-saioak*, ulermena erdiesteko; *Ulerriketa*, euskaraz ulertzeko tarteko maila dutenen eta maila ona dutenen arteko elkarriketak sustatzeko; eta *Eusle*, euskara erabiltzeko konpromisoa hartzeko.

## Geratzeko etorri den proba

Olatz Lezetak zehaztu du helburua dela "denok denok" euskaraz berba egiteko aukera izatea, eta gaztelanien berba egiten duena ulertzeko gai izatea. Esperimantazioak bizpahiru urteko epea izango du, baina "era naturalean" jarraipena emateko asmoa daukate.

Aholkularitza emateko, Taupako bi ordezkari dinamizatzen dituzte Antzuolan egiten dituzten bilerak. "Guk herriko informazioa ematen diegu, eta haiek bideratzen dute", dio alkateak. Dena den, herriari jarri du azpimarra, bidea eurek egin behar dutela iritzita: "Benetan sinesten eta kontzientzia sortzen bada euskararen beharra dagoela, horrek indartu egingo gaitu. Bestela, ez dago zereginik".

## PROBAK BIZPAHIRU URTE IRAUNGO DU, BAINA ANTZUOLAKO UDALAREN ASMOA DA JARRAIPENA EMATEA

## Europako aitortza jaso dute 'Puntua' aldizkariko bi azalek

'European Newspaper Award' saria jaso dute iazko 403. eta 412. zenbakietako azalek

### I.A.A. ARRASATE

*Puntua* aldizkariko bi azalek *European Newspaper Award* sarietako sari nagusia eskuratu dute toki komunikabideen azalen kategorian. "Europako diseinu lehiaketa handiena da;

herrialde guztietako komunikabide handienek ere hartzen dute parte", dio Iñaki Iturbek, Goienako diseinu-arduradunak. Sarietako azalak 403. eta 412. zenbakietakoak dira, iaz argitaratutakoak: bata Martxoaren

8an argitaratu zen, eta Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira egindako lantegietako berdintasun planen erreportajea irudikatzen egindakoa da; bestea, berriz, maiatzaren 24an argitaratu zuten, eta azal hartan ere barruan landutako erreportajea ekarri zuten azalera. Hain zuzen, biniloak zituen hizpide, eta euskarri hori maite duten bost debagoiendar elkarrizketatu zituzten. Hortik sortu zen *Biniloak*; bueltaka jarraitzen duen pasioa azala.



'Puntua' aldizkariko azal sarituak. GOIENA



Jone Arruabarrena DEBAGOIENA

Goizeko hamar eta erdietan egin du hitzordua GOIENAK Aitor Aranarekin eta bere bikotekide Aizpea Ajuriagerrarekin. "Hauts eginda" etorri da Arana: "Atzo arratsaldeko zortzietan sartu nintzen ohera, eta, hala ere, hitzordurako ohetik jaikitzea kosta egin zait". COVID iraunkorraren 200 sintometako bat da Aranaren akidura. 2020ko abenduaren 12an kutsatu zen COVID-arekin: "Egun batzuk igaro zirenean, berriro bizimodu normala egiten saiatu nintzen, baina ez nuen lortzen errekupeztatzea". Gaur arte jarraitzen du sintomekin. COVID iraunkorren diagnostikoa urtebete geroago egin zioten, eta, harrezkerotik, gaixo dago: "Barne mediku batek esan zidan COVID iraunkorra daukaten bere pazienteetatik inor ez dela sendatu oraindik". Ajuriagerrak, gainera, adierazi du gaixotasuna ez doala hobera: "Alderantziz, txarrea doa. Geroz eta sintoma gehiago ditu. Mila proba egin dizkio, haren sintomengatik, baina gero probetan ez da ezer agertzen. Sintoma horietako asko ezin dira frogatu; hark sentitzen ditu, baina ez dira agertzen gero".

Gauzak horrela, "mediku espezialitate batetik bestera" ibili behar izan du, sintomak gorputzeko hainbat ataletan baititu. Batetik bestera ibiltze hori saihestu eta COVIDaren gaineko arreta espezializatua jaso ahal izateko unitate espezializatu bat sortzea izan da COVID iraunkorreko pazienteek sortutako Long Covid Euskal Herria elkartearen aspaldiko aldarrikapenetako bat. "2020a ezkerro gabiltza horrelako unitate bat eskatzen", gehitu du Ajuriagerrak.

# COVID iraunkorreko unitatea, martxan

Basurtoko ospitalean COVID iraunkorreko unitate bat zabaldu dute. Osakidetza arabera, aste honetan hasiko dira lehenengo pazienteei deitzen. COVID iraunkorra duen Aitor Arana aramaioarrak "pozik" hartu du albistea, baina "zuhurtziarekin"



Aitor Arana eta Aizpea Ajuriagerra, asteazkenean, Arrasaten. GOIATZ ARANA

Eta, azkenean, Osakidetza iragarri du Basurtoko ospitalean jarriko dutela unitate hori; esan dutenez, otsailaren 26tik aurrera hasiko dira bertan pazienteak artatzen, baina ez dute informazio gehiagorik eman.

Sorpresaz hartu zuen berriak Arana, Gurutzetako ospitalean bertan zegoela, neurologoarenean: "Hark esan zidan, kon-

tsultan nengoela, unitate berri bat jarriko zutela martxan Basurtoko ospitalean, eta hara bideratuko zutela nire kasua".

"Notizia pozik hartu genuen, baina zuhurtziarekin", dio Ajuriagerrak. Izan ere, azaldu du Osasun Sailaren arabera "kasu larriak eta konplexuak" bidali-ko dituztela unitate horretara: "Baina zeintzuk dira kasu larriak

eta konplexuak? Denek izan beharko lukete larriak".

Hala ere, gehitu du ez dietela informazio askorik eman, eta, esaterako, ez dakiela momentu honetan haren kasuaren txostena non dagoen: "Medikuaren kontsulta-orria hara bidali zuten, txostenarekin batera, baina ez dakigu beste ezer. Ez dakigu noiz deituko diguten, baina su-

posatzen da aste honetan hasiko direla unitateko pazienteei txandak emateko deitzen". Ajuriagerrak, gainera, azaldu du mediku bakarra egongo dela unitatean; neurologo bat: "COVID iraunkorreko kasuekin ibilitako mediku bat da, baina hura bakarrik egongo da unitatean, guk dakigunez, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako paziente guztiak artatzeko".

Horrez gain, hainbat espezialitatetako medikuak behar direla dio. "Kontua da COVID iraunkorreko paziente bakoitzak sintoma desberdinak dituela. Eta hainbat arlotako profesionalak behar dira sintoma bakoitza tratatzeko. Unitatean hainbat espezialitatetako medikuek egon beharko lukete, baina, era berean, COVID iraunkorraren gaineko ezagutza dutenak", adierazi du Ajuriagerrak.

## Lanerako ezintasuna

Unitate espezializatu batez gain, lanerako ezintasuna aitortzea da COVID iraunkorreko pazienteen beste aldarrikapen bat. COVIDa hartu zuenean, Arana 18 hilabetez egon zen laneko bajaran, baina gero lanera bueltatu behar izan zuen. Lanak, ordea, besoetako eta atzamarraretako minak eragin zizkion, eta berriro 18 hilabeteko baja eman behar izan zioten. Orain sei hilabete geratzen zaizkio, baina, ezintasuna ematen ez badiote, lanera bueltatu beharko du.

## MEDIKU BAKARRA EGONGO DA UNITATEAN, EAE-KO PAZIENTE GUZTIENTZAKO

## Tokixan sortu dute, ekintzailtza eta agroekologia batzeko

Ekintzailtza agroekologikoan formatzeko ikastaro bat jarri dute martxan, ekoizle izan nahi dutenentzako

Jone Arruabarrena DEBAGOIENA

Debagoienean elikadura burujabetzara bidean "jauzi bat egiteko urratsak egin" eta "oinarri konpartitu bat" sortzea, bertako produktuak modu agroekologikoan sustatzeko. Hain zuzen ere,

horiek dira Debagoieneko hainbat erakunderen artean garatzen dabilzan Tokixan egitasmoaren helburuak. Besteak beste, Ereindajan Bergara Kooperatibak, Eskubaratzek, Biolur Elkarteak, Debagaraia Landa Garapen El-

karteak, Lanki Mondragon Unibertsitateko Kooperatibismoaren ikertegiak, Oñatiko Udalak, Fagor Taldeak, Gizabidea Fundazioak eta Olatukoop Elkarteak sortu dute proiektua. Elikadura burujabetza lortzeko, ekoizpen profesionaleko gune bat jarri nahi dute martxan, eredu kooperatiboa izango duena.

Hori helmugatza hartuta, lehenengo pausoa iragarri dute aste honetan: agroekologiaren oinarriak eta ekintzailtza kolektibo eta kooperatiboa lantze-

ko ikastaro bat egingo dute hurrengo hilabeteetan.

Izan ere, nabarmendu dute belaunaldi erreleboa garrantzitsua dela, eta, horregatik, etorkizunean ekoizle izan nahi dutenei zuzenduta dago. Formakuntza-saio teoriko-praktikoak adierazi dute "modu praktikoan eta sektoreko profesionalen bidelaguntza bidez" trebatzeko aukera izango dela formakuntzan. Otsailetik uztaileira izango da ikastaroa, 08:30etik 14:30era.

Antolatzaileek jakinarazi duteenez, hainbat arlo landuko dira: nekazaritza birsortzailearen oinarriak, baratzezaintza, baratzezaintza estentsibo birsortzaile, lehorreko laborantza estentsiboak, frutagintza, abeltzaintza dibertsifikatua, basoetako artzaintza eta basoen kudeaketa, zein ekonomia sozial kooperatiboa eta taldeen kudeaketa. Izena emateko edo informazio gehiago eskatzeko, helbide elektroniko honetara idatzi daiteke: [tokixan@tokixan.eus](mailto:tokixan@tokixan.eus).





ZABALIK

EDORTA ARANA

## Geruzak

Inguruko eta munduko edozein berriren gaineko iritziak nola osatzen ditugun asko aldatzen ari da. Esango nuke aztoratuta ditugula Gazako sarraskiaren, Laudioko fabrika baten itxieraren edo Elgetako etxe batean izandako sutearen gaineko pertzepzioak. Bi gauza iruditzen zaizkit bereziki larriak: esperientzia pertsonalaren eta komunikabideen –bereziki, sare sozialen– bertsioen arteko arrakala; eta, bestetik, informazio-iturri (omen) sinesgarrien urteza.

Lehenarekin hasita, duela gutxira arte, telebistan edo irratian entzuten genuenaren bertsioaren eta guk pertsonalki bizi izandakoaren arteko lehian, bigarrenak irabazten zuen. Esperientzia pertsonalak eta norberaren pentsatzeko erak eramaten gintuen eguneroko berriak modu batera edo bestera interpretatzera. Baina, gaur egun, bereziki sare sozialengatik, errealitate birtualek sekulako garrantzia daukate eta gure iritziek baino pisu handiagoa edukitzera heldu dira. Gauza askoren gaineko bakoitzaren irakurketan sare sozialen ekarria handia da.


## ZAILA ZAIGU MUNDU HONETAN GERTATZEN DIRENEN GAINEKO JARRERA SENDOA EDUKITZEA

zitzazkigulako. Modu koherenteagoan azaltzen zituztelako egunaren joan-etorrian sortutako informazioak. Egungo dinamika, baina, guztiz bestelakoa da: sare sozialen bidez jasotzen ditugun notizietan eta iritzietan modu berean nahasten zaizkigu asko dakitenek eta txoropito batek Instagramen jaurtitakoak. Informazio-iturri *serioak* eta *influencer* txatxuenak pisu berarekin zerbitzatzen zaizkigu aktualitatearen mahaian.

Horregatik, bi indar distorsionatzaile horien ondorioz, zaila zaigu mundu honetan gertatzen diren gaineko jarrera sendoa eta arrazoitua edukitzea. Agian, horren eraginez, Ameriketako Estatu Batuetara joandako hainbat etorkin mugak gogortzearen alde daude, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren kontrako iritziak dauzkaten emakume gazte batzuk entzuten ditugu, eta ez dira gutxi kontsumismoan itota bizi diren txiroak.

## MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Bidean gelditutakoak

BLANCA URGELL

'BERRIA'-N ARGITARATUA  
[HTTPS://LABUR.EUS/YKP6T](https://labur.eus/ykp6t)

Txikitan norbaitek liburu handi bat oparitu zigun, testua eta irudiak konbinatzen zituen. Esango nuke jatorrian kromo-bilduma bat zela. Greziar mitologia azaltzen zuen neba eta biok bezalako umeentzat. Orduan etxean ia libururik ez, eta behin eta berriz itzultzen ginen hartara. Buruan itsatsi zidan Greziako etxe zuri distiratsuen aurkako Egeo itsasoaren urdinaren irudi bat.

*Iliada* eta biak bata bestearen ondoren irakurri zituen 1982ko abuztuan artean

bere buruari *Zurine* zeritzan 20 urteko emakume hark, txikitako liburuan baino neke gehiagorekin eta hala-holako arrakastarekin.

Liburuak ez dira ongi zahartu, merkeak ere baziren eta. Apaletik inoiz irten badira, etxez aldatu izanaren ondorio. Txio batek harrarazi dizkit gaur, Hektor eta Andromaka senar-emazteen arteko azken bilera (*Iliada* VI, 392-493) baitzekarren gogora, andrazkoak gizonari malkotan irri egiten dionekoa.

Horra hor egia: ez nien orduan emakumei erreparatzen, neurritz gainekoak ez izatera. Atalanta ehiztari eta korrikalari aparta. Pandora zorigaiztoko kutzaren

jabea. Penelope, Odiseoren zain hogeit urte ehuntzen emandakoa. Egun Andromaka hautatuko nuke, senarra galdutakoan askatasuna ere galduko duena. [...]

Tipi-tapa, Salvatore Barandiaran jesulagunaren *Iliasena* euskarazko itzulpena heldu naiz (1950) eta, Armiarmari esker, Koldo Mitxelenak egin zion erreseinara: "Homergandik hasi eta irakurleaganaino, luzexkoa zelako edo, bi gauza gelditu dira bidean, nabarmen xamarrik biak, eta ez dira inon ageri: poemaren edertasuna eta grazia batetik, eta euskara bestetik". Berak dioenez, itzultzeko dugu (eta ez diot inori begiratzen).

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

[www.goiena.eus](http://www.goiena.eus)

**Argitaratzailea**  
Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria**  
Monika Belastegi.  
**Zuzendari nagusia**  
Iban Arantzabal.  
**Eduki zuzendaria**  
Eneko Azkarate.  
**Erredakzio batzordea**  
Eneko Azkarate, Goiatz Arana,  
Monika Belastegi, Mirari Altube,  
Larraitz Zeberio.

**Zuzendari komertziala**  
Mireia Larrañaga.  
**Administrazio zuzendaria**  
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**  
Iñaki Iturbe.  
**Hizkuntza arduraduna**  
Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**  
Igone Osinaga.

**Sailletako arduradunak**  
Xabier Urzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).  
**Maketazioa**  
Imanol Soriano,  
Aitor Lagoma,  
Amaia Martínez de Arenaza.  
**Publizitatea**  
Mireia Larrañaga, Naroa Inza,  
Olatz Alberdi, Amaia Mundifiano.

**Administrazioa**  
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Leire Etxebarria.

**HARPIDETZA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[harpidetza@goiena.eus](mailto:harpidetza@goiena.eus)

**PUBLIZITATEA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[publi@goiena.eus](mailto:publi@goiena.eus)  
**EGOITZA NAGUSIA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

**Lege Gordailua:** SS-965/2014  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 18.550 ale

**Inprimategia:**  
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagakako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



## HANDIK HONA



Erica Pivesso, Aretxabaletan. JONE ARRUABARRENA

# "Hona etortzea Erasmus egitearen modukoa izan zen"

ERICA PIVESSO ITALIATIK ETORRITAKO ARETXABALETARRA

**Jone Arruabarrena** ARETXABALETA Italiako herri txiki batean jaio zen Erica Pivesso (1984, Tisana, Italia), Esloveniako eta Austriako mugetatik hurbil. Hainbat kultura eta hizkuntzatik edan du txikitatik, eta Euskal Herrikoa gehitu du nahasketa horretara. Duela hamahiru urte aleman irakasle etorri, eta Aretxabaletan bizi da. **Zer duzu gustuko zure jaioterrik?**

Herri txiki batean jaio nintzen, Po ibaiaren haranean. Esloveniako eta Austriako mugetatik gertu. Landa-eremua da, herri txikiekin, baina askotariko paisaiak batzen ditu. Alpeak hurbil ditugu, baita kostaldea ere. Europako erdigunean dago. Niretzako, Viena, Zagreb eta Bratislava, esaterako, hurbilekoagoak izan dira Erroma bera baino,

bai kulturalki zein geografikoki. Hala ere, nire herria oso txikia da, eta ez dauka hiri handirik ondoan, eta horrek aukera handirik ez izatea dakar.

**Nahasketa kultural bat bizi izan duzula esango zenuke?**

Bai. Ni bizi nintzen lekua XX. mendera arte Austro-hungariar Inperioaren zati izan zen. Beraz, oraindik arrasto kulturek eragin handia dute. Esaterako, hizkuntza gutxitu batean hitz egiten dugu: friulera. Gastronomiari dagokionez ere asko igartzen da Austro-hungariar eragina.

**Ze ezaugarri ditu friulerak?**

Latinetik eratorritako oinarri bat dauka, baina eslovenieraren eta alemanaren eragina ere badauka.

**Nolakoa zen zure eguneroko bizitza Italian bizi zinenean?**

Aldibereko Interpretazioa ikasi nuen. Beti gustatu izan zaizkit hizkuntzak, eta beste hizkuntza, kultura eta herrialde batzuk ezagutu nahi nituen. Europako Etxean lan egiten nuen. Sentimendu eta jakintza europarra bultzatzea helburu duen irabazi asmorik gabeko erakundea da. Horretarako, Europako Batasunak eskaintzen dituen aukera guztiak herritarrei zabaltzeaz arduratzen da; Europan zehar egon daitezkeen lan-eskaintzak, bidaiatzeko aukerak, bekak... **Nola erabaki zenuen hona etortzea?**

**"KUADRILLEN KONTZEPTUA GUZTIZ EZBERDINA DA GAINONTZEKO HERRIALDEKIKO"**

Hain justu, Europako Etxean lan egiten nuen eta lan-eskaintzak argitaratzen genituen, batzuetan neure burua aurkezten nuen lan-eskaintzetarako. Curriculuma bidali nuen Arrasateko hizkuntza akademia batera, Alemaneko irakasle izateko, eta elkarrizketa egiteko deitu zidaten. Hasieran ez nekien Arrasate non zegoen ere, baina etorri nintzen, azkenean. Duela 13 urte izan zen hori.

**Ordutik Arrasaten bizi izan zara?**

Ez. Urte bat egin nuen akademia hartan lanean, baina, gero, akademiak egoitza bat zabaldu zuen Iruñean, eta hara joateko aukera eman zidaten. Han egon nintzen hiru urtez lanean, eta han bertan ezagutu nuen nire bikotekidea. Azkenean, erabaki genuen Aretxabaletara bizitzera etortzea.

**13 urte daramatzazu hemen; nola egokitu zara Euskal Herrira?**

Hasieran erraza da. Guztia berria da, eta hona etortzea ia-ia Erasmuseko esperientzia baten modukoa izan zen niretzat. Batez ere, akademia batean lan egiten nuelako, eta munduko beste herrialde batzuetako irakasleak ezagutzen nituelako. Geroago, egia da beste fase zailago batean sartzen zarela; faltan igartzen dituzu lagunak eta familiakoak. Hala ere, esango nuke integrazioa oso erraza izan dela. Nire inguruko jendeak asko lagundu dit; etxean sentiarazi naute.

**Erraza egin zaizu hemen pertsona-sare bat eraikitzea?**

Bai. Akademia batean lan egiteak adin eta mota guztietako jendea ezagutzeko aukera eman dit. Bestalde, nire bikotekidea ezagutzeak bere kuadrillan sartzeko aukera eman dit. Hemen daukazuen kuadrillen

**"NIRE HERRIAN BERTAN ERE HIZKUNTZA GUTXITU BATEAN HITZ EGITEN DUGU: FRIULERA"**

kontzeptua guztiz ezberdina da Europako gainontzeko herrialdeekiko, baina ikasi dut familia baten gisakoa dela; kuadrillako baten bikotekidea izanez gero, familia batera sartzera bezala da.

**Kalean ikasi zenuen euskara?**

Euskara zailagoa egiten ari zait. Iruñean bizi nintzenez, bi urtez hizkuntza eskolan aritu nintzen euskara ikasten, eta hemen beste hiru urtez aritu naiz euskaltegian. Erdi mailara heldu nintzenez, trabatuta geratu nintzen aditzekin. Bestalde, euskaltegian ikasten dugun euskara bat da, eta gero hemen jendeak erabiltzen duen euskalkia beste bat; horrek gauzak zailtzen ditu.

## Euskaldunak: hitz egiterakoan zuzenak, eta tratuan maitekorrak

Ohikoa izaten da, kanpotik heltzen direnen artean, euskaldunak itxiak direla pentsatzea. Pivessok, ordea, kontrakoa dio: "Herri txiki batetik etorrira, euskaldunak ez zaizkit horren itxiak iruditzen. Alderantziz; asko ukitzen dute elkar. Norbait ezagutzen duten lehen aldian, bi musu eta besarkadak ematen dituzue. Eta hori niretzat hasieran deserosoa izaten zen. Gero, ohitu egin nintzen". Hala ere, azaldu du batzuetan "zuzenegia" iruditzen zaiola hitz egiteko modua: "Gaizki sentitu izan nahiz, aginduak ematen ari zaizkidala sentitu dudalako, lanean zein arlo pertsonalean. Alemanez, ingelesez edo italieraz esateko modua adeitsuagoa izan ohi da, ez hain zuzena". Arreta eman dion beste gauza bat "hierarkiarik eza" izan da: "Ez dago hierarkiarik; jendeak berdin tratatzen zaitu enpresa bateko jabea bazara edo langile hutsa bazara".





Herritar bat, Garibai etorbideko bidegorrian, bizikletan. GOIENA

## Mugikortasun Planaren parte-hartzeaz ika-mika

Mugikortasun Jasangarrirako Plana garatu eta osatzeko parte-hartze prozesua "inoiz baino jendetsuagoa" izan dela nabarmendu du Udal Gobernuak; hala ere, EAJ-PNVk salatu du Gobernuak plana "inposatu" nahi duela, eta "arrasatearren ahotsa isilarazi"

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE Mugikortasun Plana berritzeko prozesua ika-mika politikoa eragiten ari da Udal Gobernuaren eta EAJ-PNVren artean. Gobernuak datuekin erakutsi du parte-hartze prozesuak izan duen garrantzia. Jeltzaleek, berriz, uste dute herritarrei ez zaiela behar besteko aukerarik eman euren iritzia emateko.

Herritarrentzako abenduaren 19an amaitu zen ekarpenak egiteko aukera, eta alderdi politikoentzako epea, aldiz, asteon. "Lehen aldiz, esfortzu izugarria egin dugu Mugikortasun Planean herritarren parte-hartzea sustatzeko. Ekintza horien artean daude auzoz auzoko parte-hartze saioak, herri galdeketa eta idatzizko alegazio formalak egiteko

aukera irekitzea. Pozik gaude egin dugun urratsarekin, eta bide horretan jarraituko dugu", adierazi du Garazi Etxeberriak, Hirigintza, Trantsizio Ekologiko eta Mugikortasun zinegotziak.

Jeltzaleek, ordea, prentsa agerraldia egin dute, salatzen duen Gobernuak "uko" egin diola Hirigintzako Aholku Batzordean eztabaidatzeari. "Plana eztabai-

da publikorik gabe onartzea erabaki dute eta jarrera horrek benetako parte-hartze prozesu bat bermatzeko borondate falta erakusten du", dio Ander Garayk, EAJren udal bozeramaileak.

Udal Gobernuak erantzun du, hain zuzen, 29 herritar eta eragilez osatutako Hirigintza Aholku Batzordean landu dutela plana eta, orain, herritarrek egindako ekarpen eta alegazioak aztertze fasea hasten dela. "Horiek aztertuko dituzte teknikariek, bideragarritasuna aztertze, eta idatzizko alegazio formalei banan-banan erantzun zaien idatziz", dio Etxeberriak.

**Bi bilera, alegazioei erantzuteko** Mugikortasun zinegotziak azpimarratu du 235 herritarrek hartu dutela parte auzoz auzoko saioetan eta idatzizko alegazio formalak ere aurkeztu dituztela beste 25 herritarrek. "Auzo bakoitzean hango berezitasunei lotutako ekarpenak egin dituzte, nagusiki, herritarrek; orain da unea guztiak aztertze, eta bideragarri direnak planean jasotzeko. Modu berean, idatzizko ekarpenak egiteko aukera ere eman diegu herritarrei, eta 25 alegazio izan dira; kopuru duina iruditzen zaigu", baieztatu du Etxeberriak.

Bestelako ekarpenei erantzuna emateko bi bilera deituko ditu Gobernuak: bata, Hirigintzako Aholku Batzordearena; eta bestea, herritar guztientzako batzar ireki bat. "Batzar irekiaren data aurrerago zehaztuko dugu, behin alegazio eta ekarpen guztiak aztertu ostean. Azken urratsa Hirigintza Batzordean plana diktaminatzea izango da, eta ondoren osoko bilkuran onartzea".

### Udal Gobernuari bi eskaera

Jeltzaleek gaineratu dutenez, aste honetako Hirigintza Batzordean proposatu zuten alegazioak aurkeztu dituzten arrasatearrek zuzenean batzordean defendatu ahal izatea, eta praktika hori aurreko agintaldietan onartu zutela diote. "2015-2019ko agintaldian, EAJ-PNVren eta PSE-EEren gobernupean, Hirigintza Batzordean Garbiketa Ordenantzarri buruzko alegazioak defendatzeko aukera eman zitzaion herritarrei; orain, zergatik ez? Ez al da eztabaida ireki eta demokratiko bat interesatzen?, dio Ibon Arrupe zinegotzi jeltzaleak.

Horregatik, Udal Gobernuari "exijitu" diote jarrera zuzentzeko, bi eskaera zuzen eginez: "Batetik, alegazioak Hirigintzako Aholku Batzordean eztabaidatzea, eta ondorioak biltzen dituen txosten bat egitea; bestetik, alegazioak aurkeztu dituzten arrasatearrek Hirigintza Batzordean defendatu ahal izatea ordezkariak duten alderdi politiko guztien eta langile teknikoaren aurrean, plana behin betiko onartu aurretik".

### Jeltzaleek, alegaziorik ez

Azkenik, Udal Gobernuak deitoratu du EAJ-PNVk ekarpenik egin ez izana. Arrupek zera erantzunez argudiatu du hori: "Guk ez dugu alegaziorik aurkeztu, uste dugulako herritarrei eman behar zaiela protagonismoa. Izan ere, planak haiei eragingo die egunerokotasunean".

## UDAL GOBERNUAK DIO ORAIN HERRITARREN ALEGAZIOAK AZTERTZEKO FASEA HASIKO DUTELA

## Erantzun irmoa taberna bateko komunean kamera jarri izanari

Udalak, Arrasateko Ostalariak taldeak eta Itaiak irmoki salatu dute, eta "oso larritzat" jo; ikerketa abian da

**E.A.B.** ARRASATE

Domeka goizaldean, Arrasateko taberna bateko komunean kamera bat aurkitu zuten neska gazte batzuek, eta irmoki salatu dute ekintza hori. Batetik, Udalak "oso larritzat" jo du gertae-

ra, eta "ikerketa sakona" eskatu. Era berean, ikerketa-fasea ireki du Udaltzaingoak, eta dagokion txostena egiten ari da. Horretarako, gainera, lekukoek testigantzak ere jasoko dituztela jakinarazi du Udalak.

Horrez gain, Udal Gobernuak harremanetan dago hainbat eragilerek eta udalbatzako gainontzeko alderdi politikoekin, hurrengo urratsak adosteko.

Bestalde, Arrasateko Ostalariak taldeak "arrasatear guztien aurkako ekintzat" hartu du. "Gogor salatzen dugu herritar guztien aurka egindako ekintza hau. Izan ere, testuinguru hartan, edozein izan zitekeen kameraren jomugan zegoena. Horrelako erasoak gure tabernetan, ez beste inon, lekurik ez dute".

Era berean, tabernak "ahalik eta espazio seguruenak" izateko bidean jarraitzen dutela adierazi dute. "Gauzak horrela, espazio zainduak izateko lan egiten dugula azpimarratu nahiko genuke. Horren adibide da orain dela urte batzuetatik taberna askotan dagoen erasoaren aurkako protokolo feminista".

Azkenik, Itaiak deituta, elkarretaratzea egin zuten atzo iluntzean Herriko Plazan, halako ekintzei "erantzun irmo eta kolektiboak" emateko.

## OHARRAK

### Altza Burua taldea

Adingabeen gaixotasun mentalen prebentzioa hizpide martitzenean, Kulturaten, 18:00etan.

### Ludoteka ibiltaria

Bihar egingo dute, Musakolako institutuko patioan, 11:30ean.

### Familian Jolasean

Okendoko ludotekan elkartuko dira etzi, 17:30ean.



# Eusko Abertzale Ekintzan egindako bideari aitortza

Eusko Abertzale Ekintzaren historiaren hiru zati daude jasota Eduardo Renobalesek otsailaren 19an Kulturateko areto nagusian aurkeztuko dituen hiru liburuetan; halere, EAEko batailoietan parte hartu zuten arrasatearretan oinarritutako hitzaldia izango da

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE Otsailaren 19an, eguaztena, Eusko Abertzale Ekintzako batailoietan aritu ziren arrasatearrak izango ditu hizpide Eduardo Renobales idazle zierbenarrak, Kulturateko areto nagusian egingo duen hitzaldian, 18:30ean hasita –sarrera, doakoa–.

Intxorta 1937 Kultur Elkarteak eta Sare Antifaxistak elkarlanean antolatutako saioa izango da eta hiru liburu hartuko dituzte oinarri. Horietako bakoitzak EAEko batailoien banaren historia jasotzen du: Olabarri, Eusko Indarra eta Zapadores 8. "Hiru liburuen aurkezpena izango da, baina Arrasaten zentratuta, batailoietan aritu ziren arrasatearren zentratuta", dio Intxorta Kultur Elkartearen kide Juan Ramon Garaik.

## Ivette Goitiari bisita Angelura

Aurkezpena baino lehen, Goitia Lopez Uralde familiako senideekin egotea pentsatu zuten Intxortako kideek. Zortzi anai-arreba ziren; EAEko kide Gabriel, Olegario, Pedro eta Saturnino, eta beste lau: Jose, Edesia, Crucita eta Carmen. "Gainera, Olegario, Pedro, Saturnino eta Jose Union Cerrajerako langile kaleratuak izan ziren", adierazi du Garaik.



Loretxu Goitia, Nati Roa, Ivette Goitia eta Juan Ramon Garai. INTXORTA

Hala, joan den domekan, Angelura (Lapurdi) joan ziren Nati Roa eta Juan Ramon Garai Intxortako kideak, Ivette Goitia bisitatzera. "Gabriel Goitia arrasatearren alarguna da Ivette. Gabriel EAEko militantea izan zen, frankismoaren kolpe militarren erresistentzian aritu zen Olabarri batailoiko komandantea". Bisitatzeaz gain, Iñigo Arregik egindako Egiaren Iturria eskultura eman zioten.

Ivette Goitiak 104 urte beteko ditu maiatzean. "Oso ondo gogoratzen da 1937ko bukaeran,

16 urte zituela, nola ezagutu zuen Gabriel, hamar urte zaharragoa zena, eta nola atxilotu zuten Gursen. Kontatu zigun handik ihesi joan ostean nola egon zen bere etxean gordeta, alemaniarrek joan arte. Gainera, 1944an, alemaniarrek joan ziren egunean ezkondu ziren".

Bisitan izan ziren Gabrielen alaba Loretxu Goitia eta Olegarioren seme Alberto Goitia ere. "Olegario ere EAEko kide zen, eta, kartzelatik irten zenean, Galiziara desterratu zuten. Han jaio zen Alberto semea", dio Garaik.



NIRE USTEZ

JOSU ZUGASTI

## Le Pantheon

Frantsesez ikasten ari naiz eta irakasleak, nire interesen jakitun, lantzeko bidali didan testu bat daukat ondoan. Iazko albiste bat da, baina ez du gaurkotasunik galdu.

Parisen bada marmolezko monumentu neoklasiko bat, Le Pantheon deritzana, non frantziar heroi nazionalak dautzan. Bertan goستن ditu Frantziako Estatuak nazien eta kolaboratzaile faxisten aurka borrokan hil ziren erresistentziako hainbat kide, besteak beste. Hantxe egon zen iazko otsailean Emmanuel Macron presidentea bera, Melinee eta Missak Manouchian partisano komunista omentzen, solemnitare handiko ekitaldi batean. 1943an, sasia zebilela, Vichyko gobernu kolaboratzaileak Missak atxilotzea lortu zuen; 56 atentatu egotzi zizkioten epaiketan eta Parisen fusilatu zuten, 1944an. Bere emazte Melineek ihes egin ahal izan zuen.

2025ean, Espainiako Erresuman, Meliton Manzanos polizia frankista torturatzaileak, Gestaporen kolaboratzaileak, Gran Cruz de Reconocimiento al Merito Civil dauka, gobernuak emana 2001ean. Txabi Etxebarrieta terroristen zerrendan dago.

## 30.000 euroko laguntza umeen parte-hartzea sustatzeko

Iaz baino 10.000 euro gehiago bideratu ditu Udala Gobernuak udalekuak eta campusak diruz laguntzera

### E.A.B. ARRASATE

30.000 euroko dirulaguntza eman-gu du Udalak udalekuetan eta campusetan haurren parte-hartzea sustatzeko. Laguntza jaso ahal izateko, aktibitatea 2025eko udan gauzatu beharko da eta antolatzaileak irabazi asmorik gabeko herriko elkarte bat izan beharko du. Halaber, familiek bi baldintza bete beharko dituzte dirulaguntza eskuratzeko: batetik, Arrasaten bizitzea; eta, bestetik, urtean gehieneko diru-sarrera gordinak honako hauek izatea: 21.200 euro bi la-

guneko bizikidetzaren unitateetan; 27.560 euro hiru laguneko bizikidetzaren unitateetan; eta 31.800 euro lau lagun edo gehiagoko bizikidetzaren unitateetan.

Hala, dirulaguntzaren onuradunak izango diren familiek %90eko deskontua izango dute matrikularen ordainketan; gehienez ere, 212 euroraino. Udala Gobernuak azaldu du "muga ekonomikoak gainditu" gura dituela modu horretan, eta "baktereta ekonomikoa" ekidin.

Eskaerak udal webgunean eta BAZen egin daitezke jada.

**VITALDENT** | 35 URTEAK  
ZURE AHOA DENA DA

**%15eko deskontua\*  
eta ez ordaindu apirilera arte\*\***

**ARRASATE Otarora Lizentziaduna kalea 1**  
943 06 03 22

\*Promoioa 2025/01/01etik 2025/02/28ra bitartean balio duen biak berriz. Aurrekontu orratzaren zehaztasunaren arabera. Beste deskontu eta promozio batzuk ere izan daitezke. Kontuak 2025eko urtearen hasieran bakarrik dira. Tratamenduak preskripzio medikuzkoen mende daude. Erregistro zenbakia: C64076. \*\*Finantzaileak Babel Consumer Finance S.A.U.-ren enpresaren mende dago. 2025/01/01 eta 2025/02/28 artean ezarritako eta zehaztutako finantzailearen formalizazioa eta 2025/04/01etik aurrera ezarritako lekuak dira. Adierazten duen kredituaren kopurua 1.700€. 2025eko urtearen hasieran kontratatu: 10 hilabeteko epea, 48 hilabeteko kosta 42,49%. TIN %7,45. TAE %8,73. Irteeraren kopurua 13.346. Aurretik finantziatuta. Kredituaren kosta osoa: 235,48€. Irteeraren gutxiago zehaztasunak: 1,700€. Epeak ordaintzeko prezio osoa eta zehaztasunak: 1.075,48€. 2025eko urtearen hasieran kontratatu: 10 hilabeteko epea, 48 hilabeteko kosta 41,99%. TIN %7,43. TAE %8,77. Irteeraren kopurua 13.346. Aurretik finantziatuta. Kredituaren kosta osoa: 223,20€. Irteeraren gutxiago zehaztasunak: 1,700€. Epeak ordaintzeko prezio osoa eta zehaztasunak: 1.023,20€. Epearen hasierako irteerak aurreratuta beharrezko kapitalari gehitzen zaizkio. \*Bateratu kalkulatuak irteeraren hasierako irteerak eta irteerak eta kontuak. Irteerak %10. 40-20



# Edukiontzia berriak jarri dituzte olioa jasotzeko

Debagoieneko Mankomunitateak asteon egin duen aldaketaren ondorioz, etxeko olio biltzeko pote berdeak jaso eta ordezkoa ematen duten edukiontzia desagertu egingo dira; era berean, olio botatzeko hamar puntu gehiago ere jarri dituzte -23 guztira-

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE Etxeko olio jasotzeko edukiontzia berriak jarri ditu Debagoieneko Mankomunitateak aste honetan. Edozein motatako ontzi itxiak onartuko dituzten edukiontzia laranja dira, eta, koloreaz gain, erabilitako olio uzteko aukerak ere aldatu egingo dira. "Aurrerantzean, etxeko olio edozein motatako ontzi itxian bota ahalko da, eta ez da nahitaez ontzi berdea erabili behar. Edukiontzia berrietan olio betetako beirazko edo plastikozko ontziak edota tetrabrikak sartu ahal izango dira", azpimarratu du Mankomunitateak.

Edozelan ere, dagoeneko ez dute ontzi hutsik bueltatuko. "Sistema horrek olio erabiliaren birziklatze egokia bideratuko du; izan ere, askotan agertu izan dira berdeak ez diren ontziak edukiontzien inguruetan. Erabilera desegoki horri amaiera eman behar diogu aurrerantzean", diote.

## Orain, 23 gune olio botatzeko

Olio, kutsakorra izanik, "modu egoki eta arduratsuan" jasotzeko aukera handitu egingo dela azaldu dute. Aste honetan ari dira edukiontzia ordezkatzeko, eta, aldi berean, olio botatzeko puntuak gehitu egingo dituzte. "Arrasaten hamahiru puntu daude gaur egun, eta 23 izatera pasako dira. Halakoak eskuragarriago jarri nahi dira, etxeko olio birziklatzea errazago gerta dakien herritar guztiei".

Era berean, lekualdaketa txikiak egingo dituzte puntu horietan. Hala, Udalpeko edukiontzia Jauregibarriara pasako da; Elkano kalekoa, Oñati kalera; eta Zaldibarkoa, Garibaira.

## Biharko azokan, informazioa

Bihar egingo duten bertako produktuen azokan gaiari buruzko informazio gunea jarriko dute. "Bertan, azalpenak emateaz gain, etxean olioa poteetan era egokian jasotzen laguntzeko inbutuak banatuko dituzte, doan. Hala, askotariko edukiontzietara egokitze aukera izango da", adierazi dute.

teaz gain, etxean olioa poteetan era egokian jasotzen laguntzeko inbutuak banatuko dituzte, doan. Hala, askotariko edukiontzietara egokitze aukera izango da", adierazi dute.

## Azoka, tailer eta guzti

Izan ere, hileko hirugarren zapatua izanik, Seber Altube plazan egingo dute bertako produktuen azoka, 09:00etatik 13:30era. Ohi moduan, garaiko produktuak salduko dituzte baserritarrek, eta, horrez gain, gazta, ogia eta ezta ere egongo dira, besteak beste. Bestalde, azokako bezeroen artean bertako produktuekin osatutako saski bat zozketatuko dute.

Berezitasun bat izan ohi du, gainera, azokak, hilero. Orain go honetan, tailer bat izango da, goizeko hamaiketan hasita, *Defentsak indartzeko tintura eta xarabea* izenpean. Edozelan

## BIHARKO BERTAKO PRODUKTUEN AZOKAN ALDAKETARI BURUZKO AZALPENAK EMANGO DIZKIETE HERRITARREI



Olio jasotzeko edukiontzia laranja, San Andresen. ARRASATEKO UDALA

ere, aurrez izena ematea komeni dela azaldu dute antolatzaileek, plazak mugatuak baitira -hamabi pertsonarendako lekua dago, gehienez-.

Tailerrari dagokionez, sendabellarrez egindako botikak egingo dituzte, Ekoudalatxen eskutik, bi formatutan: alde batetik, sistema immunea indartzeko tintura egingo dute, eztarriko infekzioak, narritadura, ezula eta hotzeria saihesteko eta tratatzeko baliagarria dena; bestetik, jatorri naturalako osagaiekin ondutako jarabe naturala ondutako dute, ezularen eta hotzeriaren sintomak arintzeko.

## Euskaraldiko materiala salgai

Azoka aprobetxatuz, zapatuan Euskaraldiko materiala saltzen ibiliko dira lantaldeko kideak, Seber Altube plazan, 12:00etatik 14:00etara. Telazko poltsak, lanpasak eta kamisetak salduko dituzte, haurrentzat zein helduentzat. "Materiala erostez gain, dei egiten diegu norbako zein entitateei Euskaraldian parte hartzera", azaldu du Uxue Sampedrok, Arrasateko Euskaraldiko dinamizatzaileak.

## Euskal Herriko harrera-sareak izango dituzte hizpide Kulturaten

Ekin Emakumeak Elkartearen 30. urteurrenaren baitan, mahai-ingurua egingo dute otsailaren 18an, martitzena

### E.A.B. ARRASATE

Euskal Herrian harrera-sareen zerbitzu integral bat gauzatzen duten edo harrera.egitasmoak bermatzeko lanean diharduten hainbat zerbitzuko eta kolektiboko Loramendi gelan 18:30ean egingo duten saioan. Alde batetik, Txatxilipurdiren baitan sortu zuten Zuaz kulturartekotasun laborategiko kideak egongo dira. Izan ere, nerabeen harrera lantzen duen egitasmoa da Zuaz. Bestalde, Bergarako herriko familia enbaxadoreen sarea (ikus

22. orria), Irungo Harrera Sarea eta Arrasateko Harrera Zerbitzua ere izango dituzte hizpide.

Mahai-inguruan, proiektu eta sareen hastapenak, ibilbideak, aurkitutako oztopoak, etorkizuneko erronkak eta euskararen erabilera zein protagonismoa aztertuko dituzte.

Publikoa ahalik eta pluralena izateko, itzulpen zerbitzua egongo da euskaratik gaztelerara eta euskaratik arabierara. "Era berean, zaintza zerbitzua ere eskainiko dugu Txatxilipurdiren eskutik", adierazi dute.



AMAIA TXINTXURRETA GURIDI

## Hizkuntza-eskubideen alde

Sententzia "euskarafobo eta atzerakoiak" salatu zituzten eguaztanean Herriko Plazan egindako elkarretaratzean, *Euskaldunon hizkuntza-eskubideen aldeko Arrasateko protokoloa*-k deituta. "Euskararen kontrako sententzien kateak ez du etenik. Donostiako Udalaren hizkuntza-politika deuseztatu gura duen erabaki judiziala dugu azkena", adierazi zuten.

## Martxoaren 21ean egingo dute Txotxparta Eguna

Aramaioko Unzueta sagardotegian egingo dute Ttakun Txalparta Elkarteak antolatutako Txotxparta Eguna, eta, txalpartariez gain, trikitilariak ere parte hartuko dute. Prezioa 45 euro da, autobusa barne, eta izen-ematea Irati tabernan egin daiteke, martxoaren 18a baino lehen. Hasiera batean, 50 pertsonarendako lekua egingo da.

2025a ere "ekimenez beteta" datorrela azaldu dute Ttakuneko kideek. "Hainbat ikastaro antolatze asmoa dugu, eta, urtea ongi hasteko, jai giroan batu gura ditugu arrasatearrak eta ingurukoak, txalpartaren inguruan", azaldu dute.

Ttakun Txalparta Elkarteak 32 urte beteko ditu aurten, eta "inoiz baino kide gehiago" ditu. "Gaur egun, 30 ttakunkidek osatzen dute taldea, eta azken urteetan hazkunde handia izan du", nabarmendu dute.



# "Denda zabaltzeko zain egoten zen jendea lehen"

**MIREN GALLASTEGI ZARRAOA LURRIN-DENAKO SALTZAILEA**

1944an zabaldutako askotariko dendak ateak itxi zituen urrian. Kanpatorpeko familia-negozioaren azken katebegia izan da Gallastegi, 40 urteko lana bizkarrean

**Hasier Larrea Herrero** ARRASATE

Lokal huts bat gehiago dauka alde zaharrak udazkenetik hona, arrasatearren arrastoa utzi duen hutsunea, gutxi izango baitira erdigunean hiru belau-nalditan zehar zerbitzu jarraitua eman duten saltokiak. Petra Zarraoak lehenik, Arantxa Cegiagak ondoren eta Miren Gallastegik (Arrasate, 1963) azkenik, askotariko produktuak eskaini dizkiete herritarrei, garaiaren garaira egokituta.

**El arca de Noe izenez ezagutu izan zaituzte beti; parrokiaren ondoan egoteak ekarri ote zuen izena?**

Biblikoa bada, bai. Ontzi hartan denetik sartzan zen, eta hemen ere bai. Amona galtzerdien puntuak egiten hasi zen lokalaren izkina bat errentan hartu zue-nean, beste aldea gozotegia zen eta. Gerora espazio guztia alokatu eta, amaren laguntzarekin, denetik ekartzen hasi ziren: garbitzeko produktuak, tinduak, pinturak, koloniak, liburuak, jostailuak, txapelak... *Totum revolutum* bat zen.

**Eta nolatan hori?**

Gogoan dut komertzial asko etortzen zirela dendara, amaren garaiaren. Eskaintzaren arabera, baiezkoa edo ezezkoa esaten genien, irizpide konkretu bat izan barik. Orduan, kolonia ba-



Miren Gallastegi, asteon, Zarraoa dendan. H.L.H.

karra zegoen eta ontziratu barik saltzen zen; jendeak ekartzen zuen potea etxetik. Nire garai desberdina izan da, etxe batzuekin egin izan dut lan eta Internetetik ere erosi izan dut; maletak, adibidez.

**Azken urteetan amonaren abizena zeraman dendak.**

Derrigortu egin gintuzten aldatzera. Antza, norbaitek Bilbo inguruan saltoki bat El Arca de Noe izenarekin erregistratu zuen, eta gutun bat jaso genuen horren berri emanaz, izena aldatzeko. Lokalean zaharberritzea egin

genuenean, Zarraoa kartela jarri genuen kanpoan. Edonola ere, jendeak, batez ere nagusiek, *Arca de Noe* bezala ezagutu dute gaur arte; kuriosoa da izena oso ondo mantendu izana.

**Zeintzuk izan dira unerik mugituenak, bizienak?**

Amaren garaiko Gabonak, zailantza barik. Zorakeria izaten zen, domeketan eta guzti etengabe lanean, 22:00ak arte sarri... Aitak ere laguntzen gintuen, fabrikatik irteten eta gero. Dendaren ardura hartu nuenean lasaiago ibiltzen nintzen, eta



Herriko merkatariak agurra egin zietenean. IBAI-ARTE

## Merezitako agurra

Ibai-arte merkatariak sorpresa eman zioten Gallastegiri, denda ixtear zegoela: "Oso lotsatia naiz eta ez nuen zeremoniarik gura. Baina deitu zidaten, agurtu egin nahi nindutela... Ama ere etorri zen, eta orkidea bat eta argazki-bilduma bat erregalatu ziguten".

pribilegiatua sentitzen naiz horregatik. Esango nuke 2000ko hamarkada izan zela biziena, goizetik egoten ziren bezeroak denda zabaltzeko ilara egiten.

**Nolakoak izan dira azken urteak?**

Gure alboan zegoen banketxearen egoitza lekualdatu zutenean igarri zen fluxuaren beherakada. Horrekin batera, kalera begiratu besterik ez dago. Oso pobre dago dena; agian, Olarte kalea da salbuespena. Pena ematen dit denda hutsik geratzeak eta kalea antzeko egoeran ikusteak. Azkenean, guk bizi apur bat ematen diogu kaleari. Baina zer egingo diogu, ba... Gaur egun, errentagarriagoa da Interneten egotea denda fisikoa izatea baino. Ulertzen dut, erosoagoa delako, baina, bestetik, herriek lo-hiri itxura hartzen dute.

**Pasa dira hilabete batzuk; moldatu zara bizimodu berrira?**

Lasaiago bizi naiz eta pozik nago. Urte asko izan dira hemen sartuta. Azken lau urteak nahiko gogorak izan dira, familiako kontuengatik; horregatik erabaki nuen bazela garaia uzteko. Eta, orain, esnatzen zara eta esaten duzu: "Nahi dudana egiteko astia daukat". Dirua denborarekin ordezkatu dut. Ez daukat jubilatze edaderik; beraz, autonomo izatetik erregimen berezian egotera pasa naiz; gizarte-segurantza ordaintzen dut, gerora pentsio duina izateko. Merezidu; azkenean, nork bere onena topatu behar du.

**"KURIOSOA DA JENDE NAGUSIAK JATORRIZKO IZENAZ GOGORATZEN GAITUELA ORAINDIK"**

## 'Habitat' erakusketa irekiko dute Kulturateko Loramendi gelan

Euskaldunen historia deskribatzen du, panelen bitartez, Nabarralderen eta Zuztarrak Errotuz-en proiektuak

**H.L.H.** ARRASATE

Otsailaren 17tik 21era, Euskal Herrian mugarri izan diren data, pertsonaia eta gertaera garrantzitsuz jantzita egongo da Kulturateko Loramendi gela. **Nabarralde eta Zuztarrak Erro-**

**tuz elkarteek osatu dute Habitat. Ezkutatu diguten historia izeneko erakusketa, Arrasateko Udalaren laguntzarekin.** DBHko laugarren mailako ikasleei zuzenduta dago eta euskaldunen habitata, lurraldetasuna

eta historiaren gako nagusiak adierazten ditu, "modu grafiko argi eta atseginean", hamalau panelen bitartez.

Hala, edukiak azaltzeko ordubeteko bisita didaktikoak eskainiko dizkie bederatzita talderi Nabarraldeko partaide Beñi Agirrek. Bukatu ondoren, ikastetxeetako ikasle eta irakasleei balorazioa eskatuko diete, eta, positiboa izanez gero, ikastetxeen adostasunarekin datorren urtean jarraipena emango liokete egitasmoari.



Iaz, azalpenak ematen. ARIZMENDI IKASTOLA





# Prestakuntza bukatuta, hasi dute denboraldia

Arrasateko Dragoi taldeko kadete, gazte eta senior mailetakoekin ekin diote denboraldiari. Irailean hasi zituzten entrenamenduak, eta, bost hilabete geroago, Gipuzkoako amateur mailako txapelketan erakutsi dute prestatu duten lana

**Julen Murua Mesonero** ARRASATE

Joan den domekan Bergarako Labegaraieta kiroldegian jokatu zen Gipuzkoako amateur mailako txapelketarekin ekin zioten denboraldiari Arrasateko Dragoi taldekoekin. Kadete, gazte eta senior mailetakoekin jokatu zuten Gipuzkoako txapelketako lehenengo fasea, eta zuzendaritza batzordeko Edurne Elkorok adierazi du "pozik" amaitu zutela egindakoarekin: "Normalean, lehenengo faseak txapelketari eskua hartzeko balio izaten du, eta pozik amaitu genuen. Lan polita egin zuten, urduritasunik gabe".

Lehenengo fasea igarota, dagoeneko bigarren fasea prestatzen hasi dira Dragoi taldekoak. Martxoaren 16an jokatu da, Ibarrran, eta, sailkatuz gero, maiatzean jokatuko lukete finala. Horrez gain, laster hasiko dira benjamin, alebin eta infantil mailetako taldeekin, eta Elkorok "hilabete beteak" izango dituztela aurreikusten du: "Maiatze-

ra bitartean topera ibiliko gara. Katgoria askotan ditugu taldeak, eta egutegia, otsailean eta martxoan, bete-beteta egongo da".

**Iraila ezker lanean**

Denboraldia joan den asteburuan hasi bazuten ere, iraila ezkereratik dihardute lanean Dragoi taldekoekin; izan ere, Gipuzkoako txapelketako lehenengo eta bigarren fasean –eta igaroko balira finalean ere– lan berbera aurkeztu beharko dute –aldaketa txikiren bat egin daiteke–. Horrek eragiten du irailan prestaketa lanekin hasi behar izatea, txapelketetara egoera hobereanean iristeko. "Lehenengo lantzen duguna alderdi fisikoa da: malgutasuna eta indarra, nagusiki.

**155 NESKA-MUTILEK OSATZEN DUTE DRAGOI TALDEA; BENJAMIN MAILATIK SENIORRETARA**

Horrez gain, oreka ere landu behar da, eta erabili beharreko tresnei eskua hartu behar zaie: uztaia, pilota, zinta... Izan ere, adinaren arabera aldatu egiten dira erabili beharreko tresnak, eta bakoitzak bere ezaugarriak ditu; hori handicap bat izaten da", dio Elkorok.

**Taldea, osasuntsu, eta "hazten"**

Guztira 155 neska-mutilek osatzen dute Dragoi taldea, eta urtetik urtera "hazten" ari den kopurua dela dio Elkorok. Are gehiago, talde batzuetan "itxarrote-zerrenda" dagoela ere airtortu du zuzendaritzako kideak: "Ezin dugu nahi beste pertsona hartu, ez daukagulako nahi beste ordu entrenatzeko. Azpiegitura aldetik mugatuta gaude; Arrasaten kirolari asko daude, eta hori oso seinale ona da, baina kirol azpiegiturak txiki gelditu dira. Bideraiezina izango litzateke jende gehiago sartzea, saio duinak bermatu nahi ditugu eta".



Seckou Sissoko, podiumean, urrezko dominarekin. ARRASATE ATLETIKO

## Bost domina jantzi dituzte Gipuzkoako txapelketan

Urrezko domina bat, zilarrezko beste bat eta brontzezko hiru lortu dituzte Arrasate Atletiko taldekoekin

**J.M.M. ARRASATE**

16, 18 eta 20 urtez azpikoen Gipuzkoako txapelketa jokatu zen joan den asteburuan Anoetako belodromoan, eta emaitza onarekin itzuli ziren etxera Arrasate Atletiko taldekoak. Izan ere, bost domina lortu zituzten Arrasateko atletek txapelketan: urrezko eta zilarrezko domina bana –Seckou Sissokok 400 eta 200 metrokoan, hurrenez hurren– eta brontzezko hiru domina –Lander Lanzosek 800 metrokoan, Danel Ruizek 60 metrokoan eta Maia Etxebarriak 400 metrokoan–, hain justu.

**Markak hobetzen**

Jokatu berri den Gipuzkoako txapelketan izan dira norbere marka pertsonalak ondu dituzten Arrasateko korrikalariak: 200 metroko lasterketari dago-kionez, Seckou Sissokok (22.65) eta Asier Buenok (24.50) 20 urtez azpikoen kategorian eta Danel Ruizek (23.83) parte-hartze askeko proban hobetu dute ordura arteko euren denbora onena; 800 metroko lasterketan, berriz, 18 urtez azpikoen kategorian, Lander Lanzosek (2.03.85) hobetu du bere marka pertsonala.



Dragoi taldeko hainbat kide, Bergarako Labegaraieta kiroldegian jokatu zen txapelketan. IMANOL SORIANO

## Ointxe!-ko bi talde nagusiek etxean jokatu dute

Emakumezkoek zapatuan (18:30) eta gizonezkoek domekan (18:30), Iturripen jokatu dituzte LF2 eta Hirugarren FEB mailetako partidua, hurrenez hurren. Ointxe!-ko neskek porrot mingarria jaso zuten joan den asteburuan Andratx taldearen aurka, eta, emaitza horri buelta emateko, Maristas Coruña taldearen bisita jasoko dute –sailkapeneko hirugarrenak–. Ointxe!-ko mutilen talde nagusiari dagokionez, garaipenak ihes egin zion joan den asteko Blendio taldearen aurkako partiduan. Orain, Baskoniaren bisita jasoko dute Iturripen, eta garaipena lortuz gero goiko postuetara hurbiltzeko aukera izango dute.

## Mondratek ez dio ihes egiten utzi nahi Antiguoko taldeari

Areto futboleko Euskadiko Hirugarren Mailako bi oilarrek neurtuko dituzte indarrak asteburuan; izan ere, Mondratek –bigarren sailkatua– Antiguokoren –sailkapeneko liderra– kantxa bisitatuko du zapatuan, 17:15ean. Joaneko partiduan, Musakolan, 3-4 galdu zuen Arrasateko taldeak, eta emaitza hori berriro ez errepikatzeko asmoz joango dira Donostiara Aitor Cortizasena. 49 puntu ditu lider den Antiguokok, eta gertutik jarraitzen dio Mondratek, 41 punturekin. Garaipen batekin 5 puntura murriztuko lukete aldea arrasatearrak; galduz gero, berriz, liga erabakita geldituko litzateke Donostiako taldearen alde.



Itziar Fragua eta Nerea Martinez aktoreak, *Zepo zapo* antzezlaneko une batean. MARKELIÑE

# Gerren zentzugabekeria agerian, umeen aurrean

Markeliñe antzerki taldearen 'Zepo zapo' obra Amaia antzokian ikusi ahal da bihar, hilak 15, 17:00etan. Edozein gerra astakeria bat dela nabarmentzera datorren umeendako antzezlan da, keinu adierazpena oinarri duen ikuskizun poetikoa

**Jokin Bereziartua Lizarazu** ARRASATE Markeliñe antzerki taldearen *Zepo Zapo* haur antzerki gozatzeko aukera egongo da bihar, otsailak 15, Amaia antzokian (17:00). Markeliñe taldeko promoziorako arduradun Teresa Salak zehaztu du zer den antzezlanak transmititu nahi duena: "Gerraren zentzugabekeria helarazi nahi diogu ikusleari, hori da antzezlanaren atzean dagoen ideia nagusia. Bi soldaduk frontearen ezagutzen dute elkar eta konturatzen dira ez daukatela ezer bata bestearen kontra. Ohartzen dira euren arteko ezberdintasun bakarra dela uniformearen kolorea; norbaitek bata bestearen kontra borrokatzera bidali ditu, baina ez dute ulertzen zergatik, gus-tura daudelako elkarrekin".

## Keinu antzerkia oinarri

Markeliñe konpainiaren marka bereizgarrietako bat den keinu antzerkia da oinarria *Zepo Zapo* antzezlanean ere, Salak zehaz-

tu duenez: "Obra honek asko lantzen ditu keinua, adierazpena, poetika, argiztapena eta musika. Aktoreen lana ere azpimarratuko nuke; emakumezko bi soldadu ikusiko ditugu eszenan [Itziar Fragua eta Nerea Martinez], eta keinuetan oinarritutako aktoreon interpretazio-lana goraiatzekoa da".

## Harrera "oso interesgarria"

*Zepo Zapo* obra antzeztu duten lekuetan harrera "oso interesgarria" izan dutela dio Salak: "Umeak ikuskizunera itsatsita geratu ohi dira hasieratik, eta hori ikustea oso ederra da". Gainera, balio zehatz batzuk hedatzeko obra ere bada: "Adiskidetasuna, elkartasuna eta elkar-

**'ARRASATE.EUS'-EN  
ETA LEIHATILAN EROSI  
AHAL IZANGO DIRA  
SARRERAK, BOST  
EUROTAN**

lana ere baditu oinarri. Ez gara gerran bakarrik zentratzen; protagonista diren bi soldaduen arteko harremanean balio garrantzitsuak plazaratzea ere bada gure helburua".

## Umeak, ikusle zorrotzak

Ordubete inguru irauten duen emanaldian umeak une oro adi izatea erronka handia ote den galdetuta, honako hau erantzun du Salak: "Gai horren inguruan aurreiritzi ugari daudela uste dut. Askotan esaten dugu umeak ohituta daudela teknologia berrietara, erritmo biziko bideo laburrak ikustera, baina halako ikuskizun poetiko baten aurrean jartzen dituzunean oraindik ere izugarri disfrutatzen dutela ikustea ederra da. Pantailek agintzen duten garaioan, umei halako ikuskizunak ere eskaini behar zaizkie".

Antzezlanaren ikusteko sarrerak [arrasate.eus](http://arrasate.eus) webgunean eta Amaia antzokiko leihatilan erosi ahal da, bost eurotan.

## "Ahalik eta organikoan islatu nahi izan ditut emakumeak"

**ROBINSON CASTAÑEDA 'KORNELIO'** ARGAZKILARIA 'Ellas' izeneko erakusketa du zabalik Kajoi tabernan

**J.B.L.** ARRASATE

Kajoi tabernan *Ellas* erakusketa ireki du Robinson Castañedak (Medellin, Kolonbia, 1984), argazkiak *Kornelio* izen artistikoarekin sinatzen dituen argazkilaria. Hiru urte daramatza Castañedak Arrasaten bizi izaten, eta gaur egun argazkilaritza du zaletasun nagusi; horren adibide da Artgazki elkarteko kide ere badela. Otsailaren 28ra arte dago ikusgai erakusketa, askotariko emakumeak protagonista dituen 16 argazki osatua. **Ellas jarri diozu izenburu erakusketari; zer erakutsi nahi duzu?**

Emakumeak dira protagonista erakusketa honetan, eta hortik dator kio izenburua. Emakumea arlo edota egoera askotan islatu daiteke, eta erakusketa honetan hainbat egoeratan erakutsi nahi izan ditut; badira artistikoak diren argazki batzuk, badira oldarkorrek diren beste batzuk eta badira, bereziki, errebeldeak direnak. Izan ere, emakumearen alderik errebeldeena islatzen saiatu naiz, bereziki.

## Nola islatu duzu errebelde hori?

Hasieratik erronka nagusia izan da protagonistaren naturaltasuna lortzea, hura den moduan islatzea. Erretratua ateratzeko orduan nire asmoa izan da ahalik eta argazkirik organikoena ateratzea; esate baterako, inperfekzioak ageri badira, saiatu naiz inperfekzio horiek diren moduan erakusten, ezer estali edo disimulatu barik. Naturaltasuna lehenetsi dut.



Kornelio argazkilaria. MIGUEL PUENTE 'MIKI'

## Lehen aldia izan da Kajoi tabernan erakutsi duzuna? Nola heldu zitzazun horretarako aukera?

Kajoi tabernan lehen aldia da, bai. Euskal Herrian jarri nuen lehen erakusketa ere Arrasaten izan zen, Irati tabernan; kasu hartan, erakusketaren gaia zuzeneko kontzertuak izan ziren. Artgazki elkarteko kide ere bainaiz, eta niretzat ohorea izan da erakusketa honen bidez elkarrekin ordezkatu ahal izatea.

## Zein harrera izan du azken erakusketak? Gustatu zaio jendeari?

Heldu zaizkidan kritiken artean azpimarratu didatena da ez dela erakusketa ohiko bat eta argazkiek zerbait berezia transmititzen dutela; naturaltasuna, bereziki. **Ezer gaineratu nahiko zenuke?** Herritar oro gonbidatu nahi dut Kajoi tabernara, tarte bat har dezaten nire argazkiak ikusteko. Ea zer sentitzen duten...

## Koiltur Ostegunak, Eraso! taldearen agur-biraren lekuko

Koiltur Ostegunak ekimeneko hurrengo gonbidatua Zarauzko Eraso! talde bateranoa izango da; hilaren 20an joko dute, gaztetxean, 22:00etan –sarrera, zazpi euro–. 1996an sortutako taldea, rock gogorra egiten dute; 30. urteurreneko agur-biran murgilduta daude, 2024an kaleratu zuten *Azken batean* disko berria oinarri hartuta.

## Ipuin-kontakteta musikatua Santa Marinar hilaren 19an

Familia giroan gozatzeko hitzordu interesgarria antolatu dute otsailaren 19rako, Santa Marinar auzo-bibliotekan (18:00). Itziar eta Joxan ipuin-kontalarien eskutik *Kontu kontu kantaldia* ipuin kontakteta musikatuaz gozatzeko aukera izango dute 4 urtetik gorako umeek. Aldez aurretik izena eman beharra dago, [arrasate.eus](http://arrasate.eus) webgunean.





Aramaixo bizi-bizi eguna antolatzen diharduten hainbat herritar. 'ARAMAIXO BIZI-BIZI'-REN ANTOLAKUNTZA TALDEA

## "Herriaren eta mendien defentsan" irtengo dira

Aramaixo Bizirik taldeak antolatuta eta herriko hainbat eragileren laguntzarekin, 'Aramaixo bizi-bizi' eguna ospatuko dute bihar, zapatua. Egun osoko egitaraua prestatu dute eta 13:00etan egingo dute manifestazioa eta ekitaldia, frontoitik hasita

**Amaia Txintxurreta Guridi** ARAMAIO Martitzenean elkartu zen azkenekoz bihar, zapatua, ospatuko den *Aramaixo bizi-bizi* egunaren antolakuntza taldea, eta dagoeneko guztia prest dute egun handirako. Aldarrikapen eguna izateaz gain, orain ospakizun eguna ere bilakatu da, Itsaraz proiektuak Espainiako Gobernuaren ezezkua jaso ostean. "Gure herriaren eta mendien defentsan" ospatuko dute eguna, eta hau gaineratu dute taldekideek: "Gure herriaren eta mendien defentsan borrokan jarraituko dugu, landa-eremuan bitzta duin baten alde eta Aramaio bizigarri baten alde".

Aramaixo Bizirik elkarteak da bultzatzailea, eta herriko hainbat eragileren laguntzarekin atera dute aurrera eguna; izan ere, alboan izango dituzte, besteak beste, talde hauek: Lagun Artean Dantza Taldea, Trikikalejira Trikiti Taldea, Bertso Eskola, Orixol Mendi Taldea, Alaiak Jubilatuta Elkarteak, Tal-

de Feminista, Iturzuri Emakumeen Elkarteak, Gazte Asanblada, Papargorri abesbatza, Aramaixoko Antzerki Taldea, Aramaixo Herri Eskola, Aramaio Udala eta hainbat norbanako abeslariak eta artistak, esaterako.

### Egun osoko egitaraua

Mendi buelta didaktikoarekin hasiko dute eguna, 09:00etan frontoitik aterata, 09:30ean Azkoagatik igaroko dira eta Gaborraldera joango dira. "Dantza taldeak emanaldi txiki bat egingo du han, eta salbatu gaituzten hegaztiei buruzko azalpenak emango ditu aditu batek", adierazi du Aramaixo Bizirikeko Beñat Agirrek.

**EKINTZETAN PARTE HARTZEKO DEI EGIN DUTE; BAZKARIRAKO 120 TXARTELAK SALDUTA DAUDE**

Mendira joan ezin direnendako gosari-tertulua izango da, ekologismoaz hausnartzeko, 11:00etan jubilatuen elkarteak, adin guztietakoendako.

Manifestazioa eta ekitaldia egingo dituzte 13:00etan, frontoitik hasita, *Gure herriaren eta mendien defentsan* lelopean. Manifestazioak hiru geldione izango ditu, antzerki taldearen eta bertso eskolako emanaldi laburrekin. Bukieran, Bizente Goikoetxea plazan egingo den ekitaldian, Papargorri eta dantza taldea ere batuko dira.

Eskolako jangelan bazkalduko dute gero; 120 txartelak salduta daude. Eta bazkalostean kantuan eta dantzan egingo dute, baita jolas egin ere.

21:00etan, berriz, kontzertuak izango dira: Zero, Harrikada eta Bat Bat Bi taldeak eta DJ Tigers Brothers.

Agirrek herritarrak animatu nahi izan ditu: "Jendea etor dadila parte hartzera, oso ondo pasako dugu eta".

## "Egoera ekonomiko irregularra" salatu dute jeltzaleek

Udal Gobernuaren kontrako salaketan, diote kultur etxeko bi langile "lan-kontraturik gabe" dabilzala jardunean

### A.T.G. ARAMAIO

Udal Gobernuaren "kudeaketa ekonomiko irregularra" salatu du Aramaio EAJk, kultur etxeko langileen ustezko lan-egoera gogoan izanda, ohar baten bidez: "Kultur etxea kudeatzen duen enpresak, Ostadar SCK, fakturak jaulkitzen ditu 2014tik inolako kontraturik gabe. EH Bilduk hamabi urte daramatza kontratua lizitaziora atera gabe, idazkari-kontu-hartzaileak behin eta berriz eragozpen-txostenak egin arren". Haren hitzetan, "dirudienez", Udal Gobernuak aldi horretan "ez du astirik izan edo ez da gai izan legeak eskatzen duena egiteko".

### Osoko bilkuran atera zuten gaia

EAJk urtarrileko ohiko osoko bilkuran atera zuen gaia, kultur etxeko bi langileen egoeraren txosten juridikoak kanpokoak zein barnekoak eskatu baitzizkion Alberto Aménabar bozeramaileak Udal Gobernuari. Horrez gain, "egoera horretan dauden pertsonekin konponbide bat negoziatzeari buruzko dokumentazioa" ere eskatu dute, baita "egindako bileren akta eta gobernu-taldeak

langile horiekin hartutako konpromisoak ere". Puntu horretara iristeko, ordea, aurrerariak zeudela adierazi dute: "Egoera hori salatzen duten idazki anonimo batzuekin leheritu da hori guztia duela gutxi, EAJk ezagutzen ez zuena, eta, jakina, ez dugu parte hartu horri buruz hartu diren eta hartzen ari diren erabakietako batean ere. Antza denez, EH Bilduko Gobernu Taldearen eta langile horien artean negoziazioak izan dira, baina, nonbait, negoziazio horien hausturak agerian utzi du egoera hori guztia".

Hala, azkenik, jeltzaleek azpimarratu dute "hipokrita" dela "EH Bilduk hamabi urtez bi langile kontraturik gabe mantentzen dituen jarrera, eta, aldi berean, lan-baldintza duinen defentsaren eta emakumeen lan-diskriminaziorik ezaren bandera jasotzea".

Bestetik, Asier Agirrek, Aramaio alkateak, GOIENARI jakinarazi dio momentuz ez dutela adierazpenik egingo: "Guk egingo dugu gure balorazioa, eta aurrerago erantzungo dugu".



ARAMAIO UDALA

## Udalaren gaitzespena

Frontoi ondoko edukiontzi-multzoari su eman diote, beste behin. Errefusaren eta plastikoaren edukiontziez gain, zuria ere erre zen. Zuhaitz bat enborretik apurtu eta sutara bota zuten. Ekintza gaitzetsi du Udalak. "Dakarren kostu materialagatik, baina, batez ere, kalte pertsonalak ere egon daitezkeelako", adierazi dute.



# Memoria historikoa jasotzeko asmoz, bilera

Julen Arriolabengoa idazle aramaiorren gidaritzapean, eta Udalaren laguntzarekin, herritarren ekarpenak jaso nahi dituzte, Aramaioko memoria historikoa jasoko duen liburu bat argitaratzeko. Lehen bilera irekia eguaztenean egingo dute, udaletxean

**Amaia Txintxurreta Guridi** ARAMAIO Aramaion 36ko gerrak utzi zituen eraginak eta ondorioak zeintzuk izan ziren jasotzen dituen ikus-entzunezkoa osatu zuen Julen Arriolabengoa (Aramaio, 1960) idazleak. Horretarako, *Ahotsak.eus*-en dauden Aramaioko hainbat bizilagunen testigantzekin osatu zuen kontakizuna, eta abenduan aurkeztu zuen herrian. Horrekin batera, testuinguru historikoa azaldu zuen Intxorta 1937 Kultur Elkarteko Juan Ramon Garaik hitzaldia egin zuen.

Horren ondoren, herritar talde batek proposatuta eta bertako memoria historikoa jasotzeak daukan garrantzia ikusita, orain, Udalak herritarrendako bilera irekia deitu du, Aramaioko memoria historikoa jasotzeko lantaldea osatzeko helburuarekin. Hauxe adierazi du Libe Ramila zinegotziak: "Garrantzitsua da herriko memoria historikoa jasota gelditzea, idatziz eta dokumentatuta. Gure bilaketa propioa egin nahi dugu, eta,

horretarako, gaiaren inguruan interesa dutenak, informazioaren bat dutenak, materialen bat duenak edota laguntzeko prest daudenak gonbidatu nahi ditugu bilerara". Hilero batzeko asmoa dute, eta, Julen Arriolabengoa gidaritzapean, jasotako materialarekin liburu bat osatzeko.

Lehen bilera irekia eguaztenean egingo dute, hilak 19, osoko bilkuren aretoan, 17:00etan.

## Lanean hasita

Talde txiki batek dagoeneko egin ditu lehen bilerak udaletxean, eta, aurrerantzean, herritar guztiei zabaldukoak egiteko asmoa dute. Arriolabengoak adierazi du dagoeneko

## LANTALDEA OSATU NAHI DUTE HERRITARREKIN ETA HILERO ELKARTZEKO ASMOA DUTE

lanean hasita daudela: "Bibliografia mordo dago, eta hori guztia kontsultatzen hasiak gara dagoeneko. Artxiiboak ikuskatzeko asmotan, udaletxekoa aztertzen hasten jarri gara. Gainera, Intxorta 1937ren bitartez, badakigu nola lortu Salamancan eta Ferrolen dauden dokumentuak eta abar. Gauza asko dago egiteko, baina lanean hasita gaude".

Arriolabengoak azpimarratu du lanean hasita dauden arren herritarren ekarpen guztiak izango direla ongi etorriak: "Alde batetik, herritar talde bat osatu nahi dugu lanketa horretarako; beraz, interesa duenarentzat, lana badago. Laguntza instituzionala ere badaukagu Udalaren aldetik. Eta, bestetik, etxean edota inguruan dokumentazioaren bat duenak bere ekarpena egin dezake: argazkiren bat ekarriz, gerra garaiko talde politiko baten bateko txartelen bat ekarriz...". Helburua da liburu "erabilgarria" argitaratzea.



Egubakoitzean ospatu zen bigarren Bertso Egunean, Manex Agirre kantuan. GOIENA

## Herriko hirugarren bertsolari taldea ezagutzeko eguna da

Arabako Kuadrilla Arteko Bertsolaritza Txapelketan, Legution aurkeztuko dute gaur Aramaixoko Taluek

### A.T.G. ARAMAIO

Santa-eske egunean aurkeztu zuten Arabako Kuadrilla Arteko Bertsolaritza Txapelketan parte hartuko duen Aramaioko lehen taldea: Bañera FT. Ondoren, joan zen egubakoitzean Sastiñan aurkeztu zuten bigarrena: Izena Pentsau Bida 2 taldea. Gainera, talde hori ez zen izan oholtzaratu zen bakarra, bertso eskolako gaztetxoek osatutako Izena Pentsaute Dau taldea ere igo baitzen taula gainera. Bi taldeek elkarrekin egin zuten bertsoan, Olatz Zuazubiskar gai-jartzailearen gaiei erantzunez. Gaztetxoek parte-hartzeak bertsoek etorkizuna ere badutela frogatu zuen Sastiñan. "Gazte asko ikusi ditugu gaur kantuan. Gure ostean jende berria etorriko da, eta pozik gaude", adierazi zuen Eñaut Olaziregik, Izena Pentsau Bida 2 taldeko kideak. Gainera,

50 pertsona inguru bildu ziren bertsoekin gozatzeko.

Eta gaur, egubakoitza, txapelketan parte hartuko duen hirugarren eta azken taldea ezagutzeko eguna da; Legutioko kultura etxean 17:30ean aurkeztuko dute Aramaixoko Taluek.

### Aramaixoko Taluek-en txanda

Gorbeialdeko Bertso Eguna ospatuko dute gaur, egubakoitza, Legution, eta han izango da Aramaixoko Taluek taldea ezagutzeko aukera. Hauek dira parte-hartzaileak: Peru Abarrategi, Andere Arriolabengoa, Txomin Abarrategi, Anitz Abarrategi, Hegoi Azkarate, Sabin Abarrategi, Mikel Ruiz de Azua, Unai Etxenautia eta Mikel Ullibarriana. Legutioko bertso eskolako gaztetxoekin batera egingo dute saioa, eta, hala, Aramaioko talde guztiak aurkeztuta geldituko dira.



Gatzaren errebelioiko gudariak, Tantaibakargo posizioa defendatzen. JOSE ANTONIO URGOTIA ETA FELISA AKARREGIEN ARTXIBO ARGAZKIA

## OHARRAK

### Puntu berde mugikorra Ibarra martitzenean

11:00etatik 13:00ak bitartean egongo da etxeko hondakin bereziak jasotzen dituen zerbitzua.

### 'Ekonomia zirkularra' hitzaldia martitzenean

+ 55 Elkartegiak programako bigarren saioa izango da, 18:00etan, kultura etxean, Jorge Gomez ekonomialariaren eskutik. Gaztelaniz izango da.

### Aramaioko Lagunkoiak: irteera eguaztenean

10:00etan elkartuko dira, jubilatuen lokalaren aurrean, eta ibilbide hau egingo dute: Ibarra, Basauti, Goiko Errota, Arane, Maskariano, Ametsu eta Ibarra.



# Ongizatean eragiteko tresna diseinatzen

Gazteen ongizate emozionala definitzen duten hainbat aldagai aztertu dituzte azken hilabeteotan Aretxabaletako eta Eskoriatzako herritar askok parte hartu duten prozesu baten bitartez, eta orain, han jasotako emaitzak aurkeztu dituzte

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Gazteen ongizatearen gaineko lanketa baten beharra atzeman zuen Aretxabaletako Udalaren Prebentzio Mahaiak, eta, Eskoriatzako Udalarekin bat eginda, 2024ko ekainean abiatu zuen hori. Garaia enpresak bideratu duen 1.000 lagunen baino gehiagoren ekarpenak batu dituzte parte-hartze prozesu baten bidez, eta emaitzak aurkeztu dizkiete herritarrei orain. Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Nerea Zubillaga pozik dago lanketarekin: "Eragile mordoa inplikatu da, eta jasotako datuei beste balio bat ematen die horrek".



Nerea Zubillaga zinegotzia, lanketa aurkezten. MIRARI ALTUBE

## Drogen kontsumo "normalizatua"

Ikasleen artean galdeketa egin zituzten lehen fasean –Kurtzebarri, Arizmendi Ikastola eta Lanbide Hezkuntza–, 909 gaztek hartu zuten parte. Erantzunen bidez jaso dute %86 pozik bizi dela, eta familiarekin duten harremanari balio handia eman diote. Sexualitatearen, teknologia digitalen, apustuen eta substantzien kontsumoaren gainean galdetu zieten haiei, baita foroak antolatu ere. Haiek esan dute drogen kontsumoa oso normalizatua dagoela udalerrian, eta normalizazio horren aurka ezer gutxi egin dezaketela gazteek. Mugikorraren gehiegizko erabilera ere arduratzen ditu, eta onartu dute sare sozialen erabilera eta bideojokoena oso ohikoa dela. Adikzioen prebentziarako jasotzen dituzten tailerrak eraginkorrak izan arren neurri gehiago behar direla uste dute. *Bullying*-ak eta eraso sexuak ere kezka eragiten diete.

Udalerrri "osasuntsuagoa erakitze" hainbat proposamen egin dituzte: lehenitasuna ematea buruko nahasmena duten pertsonen; drogen eskuragarritasuna murrizteko neurriak hartzea; eta gazteak kirola egitera animatzeko ekintzak indartzea, besteak beste.

## GAZTEEK ADIERAZI DUTE DROGEN KONTSUMOA OSO NORMALIZATUTA DAGOELA UDALERRIAN

Ongizate emozionalaren pertzepzioari dagokionez, DBHko bigarren ziklokoek balorazio oso baxua egin dute; esan dute ez direla kontuan hartuak sentitzen eta presioak jasotzen dituztela hainbat eremutatik.

### Kezkak eta arriskuak

Herritarrek parte hartu duten foroetan eta egindako galdeketa ere gazteek dituzten kezka berberak jaso direla jakinarazi zuten.

Behin hori guztia esku artean, honako ondorio hauek ateratu dituzte: substantzien kontsumoa eta substantziarik gabeko portaerak oso normalizatuta daudela komunitatean eta legeak ez direla zorrotz aplikatzen; eta arazo emozionalak dagokienez, gazteen artean antsietatearen, depresioaren eta osasun mentaleko beste arazo batzuen prebalentziak nabarmen egin direla gora. Bestetik, gabeziak atzeman

dituzte prebentzioan: "Familien inplikazio handiagoa behar da, eta familia horien prestakuntza hobetu egin behar da". Eta lehenitasunez landu beharreko ekintzak zerrendatu dituzte: gazteentzat aholkularitza zerbitzuak; ikasleekin prebentzio lana goizago hasia; familientzako aholkularitza zerbitzuak; aisialdiko eta denbora libreko eskaintza gehiago; prebentzioa eta osasunaren sustapenerako kanpainak; familientzako formakuntza-saio gehiago; herrian parte hartzeko aukera edo balia bide gehiago eta elkarteentzat dirulaguntza gehiago.

Eskaintza proposamen bat ere erakutsi zuten, honako hauekin: aisialdi eredu osasuntsuagoa diseinatzea; hiru urte arteko etapan prebentzioa sustatzea; adikzioa duten pertsonen testigantzak entzutea; gazteen partaidetza areagotzea antolatutako ekintzetan; eta udalerrian dagoen kontsumo kultura aldatzea.

Txosten osoa ikusgai jarriko dute orain. "Prebentzio Mahaiak lanean jarraituko du eta asmoa da datorren ikasturteko prebentzio ekintzak lanketa ardatz hartuta antolatzea", zioen Zubillagak.



Txapel Txin, udal ordezkariekin eta herriko eragileekin, Aratusteak aurkezten. M.B.

## Aratusteetarako gertu daude Txapel Txin, Udala eta eragileak

Yera Sanchez aretxabaletarrak eta bere bi semeek egindako kartelak iragarriko du 2025eko mozorroren festa

**M.A.** ARETXABALETA

Aratusteen berri emateko gogotsu dago Txapel Txin. Hilaren 20an eta 21ean ikastetxeetara joango da eta otsailaren 22an, zapatua, kaleak girotuko ditu. Hamazortzigarrenez ospatuko dute eguna "Atxabaltza Arenan", eta *Txapelaroa* izango dela iragarri du pertsonaia ezagunak.

Egitarauari dagokionez, erraldoiekin eta gaiteroekin kalejira, bola-txapelketa, kale-animazioa, pregoia eta erromeria izango dira, besteak beste. Era berean, paella-jana bueltan datorrela aurreratu du: "Aretxabaletako paella-egile famosoek egingo dute. Eta, bazkalostea girotzeko, Glutenbakuak taldea izango da". Bazkarirako txartelak Urbaltz eta Kixkor tabernetan erosi daitezke, astelehenera bitartean. Langileek 15 euro ordaindu beharko dituzte, eta ikasleek eta langabeek, 12 euro.

**Glam kamera**

Otsailaren 28an, Egubakoitz Argal eguneko dantza saioa egingo dute Leizarra musika eskolako kideek, eta egun handia martxoaren 2an iritsiko da. Aratuste-domakak ohiko egitaraua izango du: Txino dantza, desfilea, bazkariak eta mozorro lehiaketaren sari-banaketa ekitaldia. Herri bazkarietan 1.100 lagunetik gora elkartuko dira: 600 lagun kiroldegian eta 570 pilotalekuan.

Berritasun bat ere iragarri du Kultura zinegotzi Ibai Zangituk: "Glam kamera bat jarriko dugu, 360 gradutan grabatzen duena, eta, gero, jendeak bideo horiek eskuratu ahal izango ditu".

Antolatzaileek ondo pasatzeko gogoia eskatu dute: "Kaleak kolorez eta poztasunez bete ditzagun, eta giro ona izan dezagun egun horretan. Aratusteak adinik gabeko jaiak dira, guztiontzako jaiak".

## Aldapeko taldearen kontzertua izango da eguenean Arkupen

Aldapeko Basque Latin Jazz proiektuaren bueltan hainbat jatorritako musikariak elkartu ziren 2019an, eta Imanol Iribarren piano-jolea da buru. Taldea sendotuta, eta musikari garrantzitsuen kolaborazioekin –besteak beste, Xabi Solano, Asier Gozategi, Ines Osinaga eta Thierry Biscary–, dagoeneko hiru disko kaleratu dituzte: *Iribarrenetik*

(2021), *Irigoienetik* (2024) eta *Plazara* (2024).

Otsailaren 20an, 20:00etan, Arkupeko Zeraia aretoko ohol-tzan bat egingo dute folkloreak, instrumentu tradizionalak eta erritmo bizi eta dantzagarriek –sarrera 6 euro da–. "Kantua, erritmoa, inprobisazioa, birtuosismoa, lehenaren eta orainaren arteko fusioa dakar Aldapekok; menditik hasi eta aldapa jaitsita herriko plazan dantzan amaitzen den bizipena", adierazi dute taldekideek.





Auzoko taldean elkartzen diren hainbat lagun mahai-jolasean, Loramendiren bulegoan. AMAIA MARTINEZ JAUSORO

## Auzoko taldea lanean da, eta zabalik ditu ateak

Euskarara gerturatzea helburu duten bost bat lagun elkartzen dira astean behin Loramendi elkartearen Amaia Martinez bidelagun dutela. Astelehenean, gainera, ospakizuna egingo dute, Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Eguna aitzakia hartuta

### Mirari Altube ARETXABALETA

Kanpotik etorritakoak euskara gerturatzea du helburu Loramendi elkarteak bideratzen duen Auzoko taldeak, eta ikasturte honetan bost lagun elkartzen dira horren bueltan. Taldea, baina, zabalik dago, eta edonor onartzeko gertu; horretarako, Loramendiren bulegora jo daiteke, edo telefonoz deitu: 943 77 09 70 eta 685 75 67 29. Dagoeneko beste hiru laguni egin diete batzeko proposamena, eta interesa dute haiek.

### Eguneroko jarduna ezagutzen

Martitzenetan elkartzen dira, 18:00etan, eta Amaia Martinez Jausoro dute bidelagun: "Sasoiko kontuak eta ohiturak ezagutzen gabiltza. Joan den astean, esaterako, San Blas opilak jan genituen eta kintoen dantza saioa ikustera joan ginen. Datorrenean, osterara, Txapel Txin izango dugu gai, eta Aratusteen gaineko lan-ketari ekingo diogu, udaletxe zaharreko balkoiak apaintzeko".

Herriko eguneroko jardunera ere gerturatu gura ditu: "Ostalaritza zerbitzuetan euskaraz hitz egiteko berbak eta esaldiak ikasiko ditugu, eta asmoa da martxoan tabernaren batera joatea eta praktikan jartzea". Haiek oso gustura dihardutela gaineratu du, ikasitakoa "probetxugarria" delako, besteak beste, seme-alabek eskolan lantzen dutena zerbait gehiago ulertzeko.

Azken bost urteotan Aretxabaleta iritsitako bost bat emakumekin abiatu zuten ikasturtea, eta haietako hiru seme-alabekin joaten dira. Harremanak estutzeko balio izan duela ekimenak azaldu du Martinezek: "Bik hemen ezagutu zuten elkar, eta orain, hemendik

**BERTAKO OHITURAK  
ETA SASOIKO  
KONTUAK IKASTEN  
DABILTA, BAITA  
ESALDIK ERE**

kanpo ere sarritan elkartzen dira, seme-alabak ere errefortzu eskoletan dituztelako".

### Astelehenean ospakizuna

Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Eguna da otsailaren 21ean, eta, horren harira, ospakizuna antolatu dute Auzokan dihardutenek astelehenerako. Gu Haziak Gara elkarteko kideak izango dituzte lagun, eta udaletxe zaharrean elkartuko dira, 16:45ean. "Hainbat herrialdetako musikarekin eta dantzekin girotuko dugu jaialdia, eta jakiak izango dira probatzeko". Horrez gain, pankarta bat egingo dute, irudi bat marraztuta, eta asmoa da herriko hainbat txokotara eramatea: "Gure herrian dagoen hizkuntza aberastasuna ikusarazi gura dugu eta jakinarazi Ama Hizkuntzaren Eguna dela egubakoitzean". Hizkuntza-errefortzuetako umeek eta haien gurasoek ere hartuko dute parte, eta herritarrak gonbidatu dituzte bertara.

## Luciana Alfarorekin ekingo diote II. Jabetze Eskolari, eguaztenean

Feminismo de(s)kolonialaren oinarriak azalduko ditu Emakume Migratuen eta Arrazializatuen sareko kideak

### M.A. ARETXABALETA

II. Jabetze Eskolaren egitaraua abiatuko du Udaleko Berdintasun Sailak. Bergaran bizi den Luciana Alfaroren hitzaldia hautatu dute horretarako: *Descentrando miradas: introducción al feminismo de(s)colonial para transformar luchas locales*. Feminismo de(s)kolonialaren oinarriak azaltzeaz gain, feminismo eurozentrikoari ekingo dio kritika; bereziki, "emakumeen esperientziak unibertsalizatzeko joerari", horrek "arrazismoa, kapitalismoa eta beste botere-egi-

tura batzuk ikusezin" bihurtzen dituela iritzita. Otsailaren 19an izango da, 18:00etan, Arkupeko bigarren solairuan.

### Izen-ematea zabalik dago

Hitzaldiez gain, tailerrak ere izango dira Jabetze Eskolaren baitan: *Hilekoaren zikloa berrezagutzen*, martxoan; *Boterea, ahizpatasuna, perreoa*, maiatzean; eta *Produktu erotikoak ezagutzen*, ekainean. Horietarako, aldezturik eman behar da izena: [berdintasuna@aretxabaleta.eus](mailto:berdintasuna@aretxabaleta.eus). Azken eguna otsailaren 28a da.



ARETXABALETAKO LANBIDE ESKOLA

## Lanbide Eskolatik atzerrira

Aretxabaleta Lanbide Eskolako sei ikasle atzerrira joango dira lanprestakuntza osatzera, Erasmus programaren baitan: erdi-mailako Elektromekanika zikloa ikasten diharduten bi ikasle eta goi-mailako Automozio zikloko bat, Italiara; Automozio beste ikasle bat, Bulgariara; eta Menpekotasun Egoeran Dauden Pertsonen Arreta zikloko bat, Portugalera.

### Euskara indartzeko lan-ketaren azken saioa egunean

Euskara indarberritzeko eta euskaldunak ahalduntzeko AROA plana garatzen dihardu Udalak azken hilabeteetan, Elhuyarrek gidatuta eta herriko eragileak lagun hartuta. Datorren egunean, otsailaren 20an, hirugarren eta azken lan-saioa egingo dute, eta herritarrak bertara gonbidatu dituzte; 18:00etan izango da, Arkupeko bigarren solairuan.

**M**obiliario  
**A**RENAZA

**ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA





Eskoriatzako Berbalagunak taldeetako zenbait partaidek egindako azken afari-meriendan. ESKORIATZAKO BERBALAGUNAK

## Euskaraz berba egiteko taldeak, bidelagun bila

Berbalagunak egitasmoaren barruan, hiru talde daude funtzionamenduan Eskoriatzan, gaur-gaurkoz. Euskara hobetzeko, euskaraz bizitzeko eta ingurune euskalduna sortzeko bide horretan, bi bidelagun behar dituzte –euskaraz dakitenak–

**Imanol Beloki Unamuno** ESKORIATZA Eskoriatzako Berbalagun taldeak martxan dira iraila ezker. Euskara praktikatzeko espazioak eskaintzen ditu egitasmoak, zenbait helbururekin; besteak beste, parte hartzaileak hizkuntzaren erabileran trebatzeko, galdutako ohitura berreskuratzeko, euskarazko harreman berriak egiteko... Ondorioz, hitzun berriak gizarteratzen ditu, euskararen erabileran eragiten du eta euskara zaletasun bilakatu.

"Azken urteetan eboluzio polita izan du egitasmoak. Hartzaileen interesetara egokitzeko gaitasuna izan du, formula berriak martxan jarri eta emaitza politik jaso. Ikasturte honetan, *Eta euskaraz egiten badugu?* lelopean kaleratutako kanpainan, zaletasunen inguruko taldeak sortzeko dei egin dute. Dei horri erantzunez, hainbat dira herri batzuetan martxan jarritako taldeak, eta Eskoriatzan ere martxan jarri nahi ditugu", dio Nerea Zugastik,

Eskoriatzako Berbalagunak egitasmoa koordinatzaileak.

### Bidelagunen beharra

Bidelagunen egitekoa ezinbestekoa da Berbalagunak egitasmoa zabaltzeko, eta horretan eragin nahi dute Eskoriatzan. "Egunerokotasunean euskara erabiltzeko ohitura duten herritarrak dira bidelagunak; haien egitekoa ez da euskara irakastea, euskara praktikatu nahi dutenei laguntzea baizik; hizketan ari direnean falta diren hitzak erraztuz, hitz egiteko gaiak sortuz... Azken finean, taldean ari direnean giro atsegin eta erosoa sortuz". Hain zuzen ere, bidelagunen beharra aldarrikatzen dute egitasmoa saretzen jarraitu

**AURTENGO  
HELBURUEN ARTEAN  
DAUDE TALDEAK  
MANTENTZEA ETA  
BERRIAK SORTZEA**

tu ahal izateko; Eskoriatzan gaur egun hiru talde daude, eta horietako bik bidelaguna behar dute. "Bidelagunez gain, taldeak mantentzea, berriak sortzea eta gurasolagun taldea sortzea da aurtengo asmoa".

### Izen-ematea zabalik dago

Hori horrela, aukera dago Berbalagun taldeetan parte hartzeko. "Ekimenean parte hartu nahi baduzu, euskaraz aritzeko guneak saretzen lagundu nahi baduzu, bai euskara praktikatu nahi duzulako edo bai besteei laguntzeko prest zaudelako, eman izena", adierazi du Nerea Zugastik, Eskoriatzako Berbalagunak taldeetako koordinatzaileak. Eskoriatzako Udalaren webgunean, 661 74 63 76 zenbakira deituta edo [berbalagunak@gmail.com](mailto:berbalagunak@gmail.com) helbide elektronikora idatzita eman daiteke izena. Eskoriatzan hiru talde dituzte: martitzen goizetan 09:30ean, eguenean 17:00etan eta eguenean 19:00etan batzen dira.

## Buruarinen tailerra, goma- aparezko munstroak sortzeko

Zapatuan 16:30ean izango da tailerra, kultura etxean, eta hurrek heldu batekin joan beharko dute

### I.B. ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak bihar, otsailak 15, zapatua, buruarinaren egiteko tailerra egingo du, familiei zuzenduta. Tailer horretan, haur bakoitzak bere buruarina egingo du, eta, 16:30etan hasita, 18:30ak arte izango dute horretarako denbora.

### Goma-aparezko munstroak

Duela bi urte ere egin zuten Eskoriatzan halako tailer bat, Ibarraundi museoa, eta, orduan arrakasta izan zuenez, berriz antolatzea erabaki du Udalak. Orduan bezala, haurrak buruhandien mundura gerturatuzko, goma-aparezko buruarinaren sortuko dituzte.

Buruarinen gaia *Munstroak* izango da, eta horiek nola egiten diren azaltzen Gorka Olazabal dinamizatzailea izango da kultura etxean. Olazabalek emandako materialekin sorkuntza

librean jardungo dute hurrek; betiere, guraso edo heldu baten laguntzarekin. Horregatik, 4 eta 11 urte bitarteko hurrek ezinbestekoa izango dute heldu batekin joatea.

### Izena emateko bi modu

Tailerrean izena emateko moduak honako hauek izango dira: batetik, online, [labur.eus/buruarinen](http://labur.eus/buruarinen) helbideko formularioa beteta; eta, bestetik, zuzeneko arreta bidez, udaletxeko [H@AZI](mailto:H@AZI) zerbitzuan.

Buruarinen egiteko tailerrean parte hartzeko prezioa bost eurokoa da haur bakoitzeko, eta ordainketa tailerrean bertan egin behar dela adierazi dute Eskoriatzako Gazteria Saileko ordezkariak. Izen-emateak plaza kopurua gaintzen badute, zozketa egingo da partaideak hautatzeko, eta posta elektronikoz jakinaraziko dira emaitzak.



Buruarinen egiteko tailerrean batutakoak, lanean, iaz. GOIENA

## Lotuneko lanak hasi dituzte AP-1aren Eskoriatzako irteeran

Eskoriatzako AP-1aren lotunea hobetzeko lanak hasi zituzten zapatuan, otsailaren 8an. AP-1aren Eskoriatzako 123 lotunea, 123,500 kilometro-puntu, itxita egon zen bi noranzkoetan 24 orduz, bide-adarrak fresatzeko eta langileen eta erabiltzaileen segurtasuna bermatuko duten hormigoizko hesiak jartzeko. Hala ere, Eskoriatzako lotunea hobetzeko

proiektua amaitzeko sei hilabete beharko direla uste dute.

Bertan egingo diren lanei dagokienez, azelerazio-errei berria lortzeko, egungo argiztapen-kutxetak eraitsi egingo dira eta argiztapen eta telekomunikazio lineak kendu egingo dituzte, trazadura berriaren gainean baitaude. Horrez gain, autobidearen enberraren eskuineko ertzeko ezponda indartzeko jarduketak bat egingo da, sareak eta guneeetako bi geruza jarrita, besteak beste.



# Memoria lehen planoan jarrita, 'Manttalingo alaba'

'Manttalingo alaba' Mikel Etxabururen liburuan oinarritutako emanaldi musikatu izango da domeka honetan, 19:00etan, Zaldibar antzokian. Sarrerak bost eurotan erosi daitezke, alde zurreratik, Manuel Muñoz kiroldegian eta 'bibe.me' webgunean

**Imanol Beloki Unamuno** ESKORIATZA *Manttalingo alaba* izen bereko poema liburuan oinarrituta Saturrarango kartzelan giltzapean izan ziren emakumeak oroitzeko eta bertan gertatutakoa aldarrikatzeko emanaldia da. Poema-liburuak Arabako Foru Aldundiak sustaturiko Ernestina Chanpourcin 2023 saria irabazi du, eta lanaren sortzaileek kantu bihurtu dituzte *Manttalingo alaba* liburuko poemak, musikaz eta ahotsez jantzita. Horiek dira Mikel Etxaburu (idazlea), Nerea Zuloaga (ahotsa), Jon Gardoki (akordeoia) eta Irina Alvarez (biolina).



*Manttalingo alaba*-ren saio batean. 'MANTTALINGO ALABA'

## Saturrarango kartzela oinarri

Saturrarango Mutrikun egon arren, Ondarroatik gertuago dago. Oinez paseoan aritzen da jende asko, leku lasaia da, baina badu atzean istorio luzea. "Orain, autokarabak joaten dira bertara asteburu-pasa, hondartzara... eta askotan uste izan dut zein ondo eta gustura dauden toki hartan; lehen, aldiz, bazegoen kartzela bat. 1948. urtean zabaldu zuten, aurretik bainuetxe bat izan zen, eta gaur egun ludikotasunerako baliatzen dugun espazioa garai batean errepre-siorako baliatzen zen", dio Mikel Etxaburuk.

## Memoria lehen planoan

*Manttalingo alaba* Saturrarango kartzelako emakumeak erdigunean dituen poema-liburu bat da, eta lan horretatik eraturako ikuskizunak badu helburu bat. "Saturrarangoan gatibu 4.000tik gora emakume izan ziren: Itsasoak denek izenak dakizki. Banaka-banaka oroitzen ditu han hil ziren 166 andre, haur eta gazte. Oroitzen ditu errudun sentitzen delako, ez zelako oldartu arroken kontra, eta, horren ordez, hildako haurren izenak ezabatu zituelako,

olatuz olatu eta malkoz malko. *Manttalingo alaba* poema-liburua oinarri hartuta, haien izenak ikasiko ditugu. Oroitzen dugun hori garelako, eta oroitzen ez dena ez baita inoiz gerta; ez bizi, ez hil".

## Hainbat diziplina batuta

Hainbat diziplina batzen dituen ikuskizunarekin iaz hasi ziren, eta domekan Zaldibar antzokira joango direnek errealtatean oinarritutako istorio bat fikzionatuta ikusiko dute, ordubeteko saioan.

## Inauterietako bazkarirako txartelak erosi daitezke

Martxoaren 1eko Arastuste-zapatuko herri bazkarirako txartelak eguaztena ezkerre daude salgai Manuel Muñoz kiroldegian.

Aurtengo *catering*-a Sarayolak eskainiko du eta bi menu izango dira aukeran: batetik, 18 urtetik gorakoentzako menua, 25 euroko prezioan; eta, bestetik, 17 urte artekoentzako menua, 15 euroko prezioan. Otsailaren

23ra bitartean salduko dituzte bazkarirako txartelak, Manuel Muñozen. Otsailaren, 21an, berriz, kontzejupean salduko dituzte, 18:30etik 20:30era bitartean, eta *Bibe.me* (+%10) webgunean ere jarriko dituzte.

Lekua erreserbatu egin behar da, eta, menu bereziak behar izanez gero, abisatu egin behar da, hilaren 26a aurretik. Bazkaloste, berriz, Ad Libitum txarangak girotuko du eta haurrentzako jolasak izango dira, Partxis plazan.

## OHARRAK

### Kontzertua Inkernun

Gaur, 22:00etan, Julene eta Unai bikote akustikoaren emanaldia izango da.

### Mozorroak prestatzeko lokala

Kuadrillen esku-mozorroak eta karrozak prestatzeko eta eskaerak egiteko epea ireki du Eskoriatzako Udalak; webgunean dago esteka.



Hainbat lagun, artoa ereinda dagoen soro batean. ESKORIATZA IRUDITAN

## Artoa zuritzeaz, adinekoek haurrei ezagutza transmititzeko

Gurel Guraso Elkartek antolatuta, domekan Toki Eder elkartearen batuko dira herritarrak, 18:00etan

### Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Gurel Guraso Elkarteko gurasoek, herriko haurrei baserriko lanak nola egiten ziren irakasteko asmoz, Toki Eder Erretiratuen Elkarteko kideengana joan eta proposamena egin zuten kontaketa bat antolatzeko. Hori horrela, arto-zuritzeaz arituko dira kontu-kontari domeka honetan, gazteen eta adinekoen artean giro ona sortzeko asmoz.

Periko Orobengoa izango da kontu-kontari arituko den pertsonetako bat, adineko beste hainbat gatzagarrekin batera, eta, haren esanetan, gogoz daude haurrei irakasteko. "Gurelkoak etorri ziren, adinekoak ipuin batzuk gazteekin egingo genituen galdetzerara. Hasiera batean, aspaldiko pasarte batzuk kontatzea pentsatu genuen, baina, zer kontatu antolatzen hasita, arto-zuriketara kontuz soilik aritzea pentsatu genuen".

### Teoria eta praktika

Berbaldirako materiala eramango dute, eta, teoriaren gain, praktikaldia ere izango dute bertaratzen diren gaztetxoek. Honela azaldu du Orobengoa: "Arto-lasto batzuk eramango ditugu, artaburu batzuk, lastoekin edo malutekin. Gero, garandu egingo ditugu artoak, bi eratarik: kaskararekin, batetik, eta burdin batekin, bestetik. Gainera, irina ateratzen saiatuko gara, eta morokila ere egingo dugu, esnearekin hartzeko; txistorra pixka bat ere egingo dugu".

### Transmisioa helburu

Domeka honetako saioaren helburua aspaldiko ohiturak herriko gaztetxoei transmititzea izango da, eta, bide batez, artoak ganaduarengana eta pertsonengan izan duen elikadura garrantziaz jabetzea, antolatzaileen esanetan.

## OHARRAK

### Herri batzarra

Gaur, Udalak antolatuta, herri batzarra egingo dute erabilera askotariko espazioan, 18:30ean.

### Auzolana, bertan behera

Otsailaren 22an kanposantuko bidean egitekoak ziren lanak martxoan egingo dituztela jakinarazi dute.

## Arrasate Musikaleko Txistulari Bandaren saioa hilaren 22an

Arrasate Musikaleko Txistulari Bandaren kontzertua izango da otsailaren 22an, zapatua, 12:00etan, Juan Karlos Larreategiren zuzendaritzapean, Leintz Gatzagako Gatz Museoan. Horren ondorioz, egun horretarako zehaztuta zuten auzolana atzeratzea erabaki dute, emanaldira herritar gehiago joango direlakoan.

# 38,5 milioi euroko aurrekontua onartu du udalbatzak 2025erako

Astehenean onartu zuen udalbatzak Udal Gobernuaren aurrekontu-proposamena; EAJk aurka bozkatu zuen eta PSE-EEko Alberto Alonso ez zen bilkuran izan

**Idoia Aranbarri Arzuaga** BERGARA 38.552.926 euroko aurrekontua onartu du Bergarako udalbatzak, 2024koa baino %14 handiagoa, astehenean egin zen ezohiko osoko bilkuran. 10 milioi euroko inbertsio gaitasuna izango du eta. Udal Gobernuaren esanetan, Bergarak "sekula izan duen inbertsio mailarik handiena izango da". EAJk aurka bozkatu zuen eta PSE-EEko ordezkari Alberto Alonso ez zen osoko bilkuran izan.

Udal Gobernuak adierazi zuen Bergarak dituen erronkei aurre

egiteko eta herritarren beharrei erantzuteko prestatu duela aurtengo aurrekontua, herria bizi-kalitatean erreferente bihurtzeko, espazio publikoak eta zerbitzuak hobetuz eta auzo guztiak kontuan hartuz. "Guk pentsatzen dugu proiektu ambizioz batekin gatzela, uste dugu erronkak ondo identifikatuta dauzkagula eta plan estrategiko bat daukagula. Hori jarraitzen ari gara", azaldu zuen Maite Usabiaga EH Bilduko bozeramaileak osoko bilkuraren ostean.

## Proiektu esanguratsuenak

10 milioi euroko inbertsio gaitasunarekin, Udal Gobernuak nabarmendu dituen bi proiektu nagusiak izan dira Barrenkalearen berrurbanizazioa, 1.447.382 euro, eta San Martin plazaren itxura-aldaketa, 2.100.000 euro.

Horretaz gain, milioi bana euro bideratuko dituzte udal eraikinetako hobekuntzak egiteko -herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuak irisgarriago eta erosoago egiteko; eta udal txeko eremuak berritu egingo dira- eta Agorrosingo teilatua

berritzeko. Boluko maldan segurtasuna bermatzeko 536.000 euro erabiliko dira. Eta Arrizuriagan jarriko dute emakumeen txokoa, berdintasun politiketan sakontzen jarraitzeko, eta erreferente kultural bihurtu nahi dute. Horregatik, eraikinaren hornikuntzarako 1.300.000 euroko inbertsioa egingo dute.

Jasangarritasunari dagokionez, eraikin publikoetan instalazio fotovoltaikoak jarriko dituzte, eta aurreikuspena 388.000 eurokoa da. Landa-auzoetan, base-errietako bideak garbitu, zaindu eta konpontzeko 272.000 euro bideratuko dituzte. Era berean, Martokoa kaleko proiektua definitzen hasteko konpromisoa hartu du EH Bilduk.

Herritarrei zuzendutako zerbitzu nagusiak indartu egingo dituztela ere gaineratu dute: batetik, etxez etxeko laguntza zerbitzuan adineko pertsonen arreta hobetzeko 1,1 milioi euro erabiliko dituzte; Laboratorium museoaren urteurrenerako 200.000 euro eta herriko kultur ekimenak aberasteko 343.000 euro bideratuko dituzte. Ohiko gastu arrunten artean, honda-

kinen bilketa eta beste zerbitzu batzuk finantzatzeko 2,5 milioi euro erabiliko dira, eta udal langileen lansariak 11,2 milioi euro izango dira.

## EAJren ezezkoa

EAJk aurka bozkatu zuen, jeltzaleen iritziz aurrekontuak ez dielako erantzuten Bergarak etorkizunera begira dituen erronkei. 22 proposamen aurkeztu zizkieten Udal Gobernuari, eta, puntuak eztabaidatu ostean, haiengandik jaso zuten erantzuna ez zela "nahikoa" izan esan zuten. "Pentsatzen dugu onartu den aurrekontua ez dela Bergarak behar duena. Esan dugu Bergara atzean geratzen ari dela, bailarako beste herri batzuekin konparatuta, eta horregatik uste dugu aurrekontu horiek ez dutela erantzunik ematen Bergarak etorkizunera begira dituen erronkei aurre egiteko", zioen EAJko bozeramaile Mikel Letek, bilkuraren ostean.

Jeltzaleek azpimarratu zuten EH Bilduk ez duela jarri funtsezko proiekturik mahai-ganean eta orain garatu behar dituztenak aurreko urteetan landuta-

## Aurrekontuan jaso dituzten hainbat proiektu

Aurreko urteetako inbertsio gaitasuna gainditu, eta 2025ean 10,7 milioi euro bideratuko dituzte inbertsioetara. Asteheneko ezohiko osoko bilkuran, Aitor Aranzabal Ogasun zinegotziak adierazi zuen Bergarak "sekula izan duen inbertsio mailarik handiena" izango dela. Hauek dira aurrekontuetan jaso dituzten bost proiektu nagusi:



Agorrosin kiroldegia. I.A.A.

**Agorrosin** kiroldegia berritzen jarraituko dute, eta aurten teilatua konponduko dute, 1.000.000 euroko inbertsioa eginda.



Vaumm Arkitekturak diseinatutako proposamena. VAUMM ARKITEKTURA

**Alde zaharra** biziberritzeko proiektuen artean, Barrenkalea berrurbanizatzeko 1.447.382,65 euro bideratuko dira; San Martin plazara, 2.100.000 euro.



Arrizuriaga jauregia. I.A.A.

**Arrizuriaga** jauregian jarriko duten emakumeen txokorako eta kultur proiektu erreferenteak egokitzeko, 1.300.000 euroko inbertsioa egingo du Udalak.



Bergarako udaletxeko sarrera. I.A.A.

**Udaletxeko eremuak** berritu egingo dira, herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuak irisgarriago eta erosoago egiteko: 1.000.000 euro.



Boluko bidegorriko malda. I.A.A.

**Boluko maldan** segurtasuna bermatzeko 536.000 euro bideratuko dira, "herriko auzoak eta eremuak seguruagoak izan daitezen, bizi-kalitate handiagoz" hornitzeko.





Aurten berrurbanizatuko duten Barrenkalea kalea. JOKIN BEREZIARTUA

koak direla: "Ikusten duguna da aurrekontuan azaltzen diren inbertsioak direla duela zortzi-zazpi urte egindako proiektuak. Ez duguna ikusten da etorkizunari begira funtsezkoak diren proiektuak Bergarak aurrera egin dezan", gehitu zuen Letek. Horren harira, Usabiagak gaineratu zuen jaso dituzten proiektuak "aspalditik" egiteko zeudenak direla, eta orain dela momentua egiteko.

Horrekin batera, jeltzaleek esan zuten 22 proposamenetik eurentzat garrantzitsuak ziren lau proposamen ez dituela onartu Udala Gobernuak –sustapen ekonomikoa, etxebizitzak, eguneko arreta zerbitzua eta etxez etxeko zerbitzuak uztartzeko lizitazio bateratua eta San Joxepe egoitzaren berrantolaketa-. Horren harira, osoko bilkuran Gorka Artola alkateak erantzun zuen esanez EAJren sei proposamen onartu dituztela, horietatik hamabi "modu batera edo bestera jasota" daudela ulertzen duela Gobernuak, bi ez direla onartu eta bi udal kompetentziaz kanpo dauden eskumenak direla, eta beste erakunde batzuekin "proaktiboki" lantzeko proposamena egin dutela.

### Mugikortasun Plana

Mugikortasun Plana izan zen osoko bilkuran eztabaida nagusia sortu zuen puntua. EH Bilduk adierazi zuen HAPO berritzen ari direla, eta horren baitan jarriko dutela Mugikortasun Planaren proiektua martxan: "Gorka Artolak azaldu bezala, diagnostiko bat egin genuen, baina erabaki zen ez zela abiapuntu egokia. Gaur egun HAPO berritzen ari gara eta Mugikortasun Plana guztiz baldintzatuta ikusten dugu HAPOk emango duen horrekin. Horregatik, horren baitan jarriko da Mugikortasun

## "GUK PENTSATZEN DUGU PROIEKTU ANBIZIOTSU BATEKIN GATUZELA"

MAITE USABIAGA, EH BILDU

## "USTE DUGU ONARTU DEN AURREKONTUA EZ DELA BERGARAK BEHAR DUENA"

MIKEL LETE, EAJ

Planaren proiektua. Badaude oinarri batzuk Mugikortasun Plana arautzen dutenak, eta plan bera, momentuz, plan bezala existitzen ez bada ere, badauzkagu oinarri batzuk mugikortasunari begira Bergara egokitzeko".

Jeltzaleei, aldiz, iruditzen zaie HAPO barruan garatuko den Mugikortasun Plana ez dela benetako Mugikortasun Plan bat: "Sei urte daramatzagu EH Bilduk Mugikortasun Plana egingo zuela agindu zuenetik. Guk batzordean ere esan diegu HAPOren barruan egingo den plana ez dela benetako Mugikortasun

Plana. Datu batzuk jasotzea da, hortik aktuazio batzuk etorriko dira. Ari gara ikusten mugikortasun aldetik Bergaran arazo handiak daudela. Atzeratzen goaz, eta soluzioak ez dira planteatzen Gobernutik".

### Barrenkaleko obrak, hastear

Aurtengo proiektu nagusiengatik da Barrenkalea berrurbanizatzea. Udalak martxoaren 3a zehaztu du lanak hasteko data ofizial bezala, baina, halako obrek ezinbesteko dituzten prestaketa-lanen ostean, Udalak kalkulatu du martxoaren 17an hastea zulaketa-lanak. Zubieder enpresa arduratuko da lanez. "Zubiederrek herrian hainbat obra egin ditu eta bermea ematen du lanak txukun egiteko eta herritarrei arreta ona emateko", dio Bergarako Udaleko Hirigintza zinegotzi Markel Azkargortak. Hamar hilabeteko epea du lanak amaitzeko eta bi fasetan egingo dituzte: Egin Mallea etxetik hasi Arrese kantoiraino, eta Arrese kantoitik San Martin plazaraino.

Azkargortak aurreratu du lehendabizi sareak berrituko dituztela eta bukaerarako utzi-ko dituztela urbanizatzeko-lanak: "Sareak berritu egingo ditugu, oso zaharkituta daudelako. Urak ere bideratuko ditugu berez joan beharko luketen bidetik. Irigarritasuna ere hobetuko da. Pentsatzen dugu Barrenkalea berritzeak lagunduko duela komertzioen biziberritzean eta etxebizitzaren gaian".

Era berean, adierazi du obrak irauten duen bitartean kaleko etxebizitza, komertzio eta tabernetara irisgarritasuna bermatuta egongo dela, eta Zubiederrek bulegoa jarriko du herritarrei arreta emateko.

## Bergarako Udaleko sailen banaketa

Sailak	Aurrekontua
Gobernu organoak	987.543,06 €
Idazkaritza	2.844.239,31 €
Udaltzaingoa	1.481.761,80 €
Informatika	585.008,72 €
Obra eta Zerbitzuak	8.366.767,91 €
Kultura	2.896.199,70 €
Artxiboa	265.424,94 €
Liburutegia	217.409,83 €
Museoa	537.478,60 €
Turismoa	248.686,61 €
Ondare Historikoa eta Artistikoa	54.000 €
Kirolak	4.189.734,97 €
Hezkuntza	585.181,89 €
Gazteria	502.941 €
Euskara	892.360,21 €
Kontu-hartzailletza	1.826.724,05 €
Gizarte Zerbitzuak	2.843.038,54 €
Berdintasuna	250.640,13 €
Hirigintza	5.380.880,69 €
Auzoak	1.259.486,34 €
Ingurumena	1.747.959,77 €
Sustapen Ekonomikoa	589.458,91 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>38.552.926,98 €</b>

**Kabutzia**

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6  
BERGARA  
Tel.: 943 76 56 62

**Sugoi**

ERLOJUAK,  
ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.  
943 76 59 54 BERGARA

**UGARTE**  
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ALTZARI DENDA  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 034630

ARROZTEGIA  
San Juan 1a  
Tel.: 943 765491

BERGARA  
aroztegia@ugartearoztegia.com

Proiektuak · Koltxoak  
Horma-armairuak  
Altzariak neurria  
Ateak · Eskailerak ·  
Leihoak · Tarimak ·  
Egur lanak

**21**  
KALITATEA

Enpresa Registrada N°99/025



Bihako ongiatorri ekitaldian parte hartuko duten hainbat herritar, eguazten arratsaldean, Bergarako plazan. XABIER URTZELAI

# 2024an Bergaran erroldatu zirenei harrera egingo die Udalak

396 lagun erroldatu ziren iaz Bergaran, eta, azken bi urteetan bezala, ongiatorria egingo die Udalak iritsi berriei, bihar, haien etorrera errazteko baliabideak emanda eta sei eragile aurkeztuta; gaur amaituko da ekitaldian parte hartzeko izen-ematea

**Idoia Aranbarri Arzuaga** BERGARA  
Iaz Bergaran erroldatu ziren herritarrei ongiatorria egingo die Bergarako Udalak bihar, 12:00etan, udaletxeko osoko bilkuren aretoan. 396 lagun erroldatu ziren guztira, eta, Zihortza Marzan Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak emandako datuen arabera, 30 nazionalitate baino gehiagotako pertsonak; gehienak, euskal herritarrak. Aldizkari honen itxieran, hogeitaz lagun zeuden ekitaldirako izena emanda. Hirugarren aldiz egingo du Udalak ongiatorri ekitaldia, eta horrekin nahi dutena da iritsi berriei baliabideak ematea, Bergaran zer dagoen ezagutu dezaten; horrekin batera, komunitatea osatu eta herritar guztiak komunitate horren parte izatea. "Geroz eta herri anitzagoak dauzkagu, eta kontziente gara kanpotik zatozenezan -atzeritrik

edo Arrasatetik etorri, adibidez-, zailtasunak egon daitezkeela zure ingurua egiteko", dio Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak.

## Eragileekin hartu-emana

Euskal musikarekin eta dantekin emango diote hasiera bihar-ko saioari, eta, ondoren, herriko sei taldek euren xehetasunak emango dituzte. Horrekin batera, aurreko urteetan Bergarara bizitzera etorri diren hainbat herrikidek euren bizipenak kontatuko dituzte.

Aurreko urteetako harrera-ekitaldiak "instituzionalagoak" izan direla gaineratu du Marzanek, besteak beste, Udalaren Baliabideen Gida eta Familia Enbaxadoreen proiektua aurkeztu zituztelako. Ndank Ndank elkarteak hartu zuen parte, baina ez modu "zuzen-zuzenean". Aurten, Ndank Ndank, Familia Enbaxadoreak,

Martxanterak, Udal Euskaltegia, Bergarako EPA eta Euskal Herriaren Euskaraz eragileek euren lanaren berri emango dute.

Marzanek azaldu duenez, komunitateko parte izateko garrantzitsua da sarea jostea eta sare horretako eragileak ezagutzea: "Iruditzen zaigu etorri berri bantentzat halako ekitaldi batek izan behar duela aprobetxagarria, eta, horregatik, egin genuen irakurketa izan zen eragileak bertara gonbidatu eta ekitaldian parte hartzea".

## Hainbat baliabide eskura


2023an aurkeztu zuen Bergarako Udalak *Baliabideen gida*, eta Bergarara bizitzera doanak hasieran beharko lukeen informazioa jasotzen du, 2022an Bergarara etorritakoen ekarpenekin: "Gaintik azalduta, herriko mapa bat agertzen da, gune interes-

## Iaz herrian erroldatutako lau lagun



BLANCA ALICIA BLANDON

"Nikaraguakoa naiz eta bederatzi urte daramatzat Euskal Herrian; bat, Bergaran. Lan-baldintzengatik etorri nintzen. Ez dut zailtasunik izan, eta zapatuan, herriari buruz ez dakidana ezagutu nahi dut".



CRISTIAN CORTES

"Kolonbiakoa naiz eta Zarauztik etorri nintzen, iaz, nire familiarekin. Bergaran ondo hartu gaituzte eta hainbat ekintzatan hartu dugu parte. Zapatukoa ekitaldi adeitsua da, eta eskertuta sentitzen naiz".



ANN-KETIRA LOUISSAINT

"Haitikoa naiz, baina Aretxabaletatik etorri nintzen, iaz, familiarekin. Senarra bailarakoa da, eta ezagutzen du Bergara. Ongiotorria egitea ideia ona iruditzen zait, eta horregatik eman dugu izena".



ALLAOUJI JAOUAD

"Familiarekin etorri nintzen herri historiko honetara, eta ondo hartu gaituzte. Udalaren gonbidapena jaso genuen; zapatuan han izango gara. Eskertu egin nahi diet integrazioan lagundu digutenei".

garriekin. Horrekin batera, baita herriko zerbitzuak ere. Osasun txartela zelan eskuratu daitekeen, liburutegian zer dagoen, nola funtzionatzen duen, kiroldegia... Erraztu egin nahi diegu etorrera".

Halaber, lehen edizio hartan aurkeztu zuten Herri Hezitzaileetatik sortutako Familia Enbaxadoreen Sarea. Ikastetxeetan jarri zen martxan, eta helburua da kanpotik datozei bertako familia bat izendatzea herria hobeto ezagutzeko. Dena den, Marzanek nabarmendu du proiektu garrantzitsua dela, baina ikusten dutena dela umeak dituzten familiendako bakarrik dela, eta badaudela ume barik etortzen direnak ere. Aurreratu du etortzen diren guztiei harre-egokiagoa egiteko lantzen ari direla gaia, pertsona guztien "etorrera erraztu eta komunita-

tearen parte izateko". Bestalde, 12 eta 18 urte bitartekoendako badute beste zerbitzu bat, gaztelekuarekin elkarlanean. Behin ikastetxean hasita, ikastetxea bera jartzen da gaztelekuarekin harremanetan, eta, gurasoekin hitz egin eta haiek baimena emanda, nerabe hori gazteleku-ko hezitzaile batekin eta erabiltzaile batekin hasten da hartu-emanean.

Marzanen ustez, bergararrek ere egunerokotasunean egin dezakete euren ekarpena, esaterako, Familia Enbaxadore izanez edo kuadrillak zabalduz. "Bergara harrera-herria bihurtzea gustatuko bakarririk oraindik pauso asko dauzkagu emateko. Harrera-herria izatea lortzen dugunean lortuko dugu herri izatea. Horretarako, komunitatearen inplikazioa garrantzitsua da".



# Umorea, artea eta beste, hamaikakoa aurkezteko

Euskaraldiaren laugarren aldiari begira motorrak berotzeko ekitaldien artean, otsailaren 21ean aurkeztuko dute hamaikakoa, Seminarixoan (19:00); bakarrizketa-saioa, murala, zuzeneko musika eta luntxa izango dituzte, besteak beste

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA Euskararen erabilera aktibatzeke asmoz sortu zen Euskaraldiaren laugarren aldia maiztaren 15etik 25era izango da, *Elkar mugituz egingo dugu* leloa oinarri hartuta. Bergaran 2024ko abenduaren 10ean jarri zuten martxan lehenengoz udaberri giroan egingo den Euskaraldiaren laugarren aldia, Kike Amorrizaren hitzaldi batekin. Bada, hurrengo zita garrantzitsua otsailaren 21ean izango dute, Seminarixoa aretoan. Egun horretan aurkeztuko dute Bergarako hamaikakoa, 19:00etan hasi eta ordubete inguru iraungo duen ekitaldian.

**Artistak, musikariak, erraldoiak...** Hamaikakoa aurkeztea izango da hilaren 21eko ekitaldiaren helburua. Hamaikakoa osatzen duten kideen gaineko pista batzuk eman dituzte sare sozialetan, baina ekitaldira arte itxaron beharko da zein herritar aukeratu dituzten jakiteko. Ekital-

diaren aurretik, baina, Beart-eko artistek Euskaraldiaren mural bat margotzen arituko dira, 16:00etan hasita, eta Bergarako Erraldoi Taldekoek eta herriko musikariek kaleak girotuko dituzte 18:00etatik 19:00etara. "Ordu horretarako, kalean bueltaka ibiliko dira *Ahobizi* eta *Belarriprest* pertsonaiak", adierazi du aurtengo Euskaraldiaren dinamizatzaile Andrea Bellak (Montevideo, Uruguai, 1978). Gainera, Jardunen eskutik, umeendako tailerrak ere egongo dira, 18:30etik 20:00etara, Seminarixoko arkupeetan.

**Andrea Bella dinamizatzailea** Karmele Uribesalgo kazetari bergararrak aurkeztutako eki-

**URUGUAIN JAIOTAKO ANDREA BELLA "OSO GOGOTSU" ARI DA LAUGARREN EDIZIOA DINAMIZATZEN**

taldian, Asier Galarzaren umoreaz barre egiteko aukera egongo da, bakarrizketa-saioa egingo du eta; ondoren emango dute ezagutzera hamaikakoa. Zuzeneko musika ere aurreikusten dute, eta, ekitaldia borobiltzeko, luntxa ere izango dute, San Jozepe erretiratu elkarteari eta pentsiodunei esker.

Euskaldun berria, Bellak urtebete eskas daroa Euskal Herrian bizi izaten. "Gogotsu eta oso motibatuta" ari da Euskaraldirako lanean: "Euskaraz bizi nahi dudalako etorri nintzen Euskal Herrira, eta gaur egun Zornotzan bizi naiz; hori bai, ia egunero nabil Bergarara joan-etorrian. Behar dena egiten ari naiz. Diseinatzen, posta elektronikoa kudeatzen, sare sozialak elikatzen, tabernaz taberna euskarazko ikastaroak eskaintzen, bilerak antolatzen... Behar denerako nago, oso motibatuta nabil. Euskaraldira harago, lehen hitza euskaraz esateko ohitura oso barneratuta daukat".



NIRE USTEZ

INAZIO NARBAIZA

## Sofiaz maiteminduta

San Balentin eguna, maitasuna(k) berbagai. Ohikoenak pertsonengana zuzenduta. Hala ere, nik oraingoan beste maitasun mota bat goraiatu nahi dut: *sofia* maitatzea; hau da, jakinduria, bere zentzurik zabalenean bilatzea. Zergatik? Abestiak dioen moduan, sasoi ilunak nabariari buruz hitz egin behar denean, hala ere, azaltzen saiatuko naiz. Mundua nola dagoen begiraturata, zeraz konturatzen gara, sekula baino indartsuagoa direla jakineza, desinformazio interesatua, manipulazio ideologiko zikina... Dena oso ondo pentsatuta eta antolatuta dago pertsonak gero eta inkultuago izan gaituzten. Hori bai, ikasketa tekniko batzuk eskuratzera animatuko zaituzte, berez gaizki ez dagoena, baina oinarri kritiko sendorik gabe, jai daukagu; benetan boterean dauden menpe jarraituko dugu. Zertan datza oinarri sendo hori? Ganorazko formazio filosofiko, historiko, zientifiko, etiko, estetiko baten, jakina. Besteak zera esango digu, zertarako hori guztia *adimen artifizialaren* sasoian? AA ikaragarritzko tresna boteretsua da, baina formatutako pertsonentzat; tximino bati pistola bat ematea ez da komeni.



IMANOL SORIANO

## Okinaren koadroak elkarrekin

Miguel Okinaren jaiotzaren mendeurreneko ekintzen barruan, bisita gidatuak egiten ari dira, elkarte gastronomikoetan dauden artelanak hobeto ezagutzeko. Otsailaren 8an Sagarpin elkartu ziren, eta aurretik San Miguel-pe eta Gure Ametsa ere bisitatu zituzten. Hurrengo bisita gidatua otsailaren 22rako lotu dute, Umorea Onan; izena eman behar da alde aurretik: 613 44 82 17.

## OHARRAK

### Literatura solasaldiak: zita bi datorren astean

Neguko literatura saioen barruan, Karmele Jaioren *Maitasun kapitala* izango dute berbagai hilaren 19an, Irizarren (18:30). Izena eman Jardunen edo liburutegian. Bestalde, Kartzelako Irakurketa Taldeak Uxue Alberdiren *Hetero* izango dute hizpide hilaren 20an (18:30). Izena emateko: [kolaxirratsaioa@gmail.com](mailto:kolaxirratsaioa@gmail.com).

### Aralarko ondarearen gaineko dokumentala

Kukubasoren eskutik, hilaren 18an, *Aralar*, *mundua leku den lurra* filma ikusi ahalko da Seminarixoan (19:00). Ondoren, solasaldia izango dute Garazi Auzmendi zuzendariarekin. "Aralarko ondarearen leiho izateaz gain, gogoetarako bide ematen duen dokumentala da", adierazi dute antolatzaileek.



Euskaraldiaren hirugarren aldia martxan jartzeko ekitaldia borobiltzeko talde-argazkia, Seminarixoan. GOIENA

# Patxiko Txerren lehiaketa bueltan da, ipuina oinarri

1997an egin zituen lehen urratsak, eta 2019an egin zen azkenekoz; herritar guztiek har zezaketen parte hasieran, eta hala izango da edizio honetan ere. Idolaz elkarrekin eta Udalak antolatu dute, eta martxoaren 28ra arte dago lanak aurkezteko aukera

**Amaia Ramirez de Okariz**

**Kortabarria** ANTZUOLA

Bueltan da Patxiko Txerren ipuingintza lehiaketa, Idolaz elkarrekin horretarako lehen urratsak egin ondoren, Zumaia El-koro elkartekidearen hitzetan: "Behin baino gehiagotan aritu gara hizketan horretaz gure artean, eta, azkenean, Udalean aurkeztu genuen. Lehiaketari buruzko oroitzapen onak genituen, ume ginenekoak, eta horri eutsiz berriro ere martxan jartzea pentsatu genuen. Orditik hona, elkarlanean dihardugu Udalarekin, eta oso eskertuta gaude".

1997an egin zituen lehen urratsak lehiaketak, liburutegiak bultzatuta, eta 2019an egin zen azkenekoz, COVID-19ak eragindako izurritearen aurretik. Hasiarako urteetan, gainera, herri mailako lehiaketa zen, haurrek, gazteek eta helduek har baitzezaketzen parte, Herri Eskolako haurren parte-hartzean zentratu zen arren gerora. "Taldeen gabiltzanok beti lotu izan dugu lehiaketa umeekin, baina helduagoi ere parte hartzeko aukera eman nahi diegu". Horrenbestez, hirugarren mailatik seigarrenera arteko ikasleek ez ezik, lehiaketaren aurtengo edizioan parte hartzeko aukera izango dute 12 urtetik gorakoek,



Patxiko Txerren ipuingintza lehiaketako 2019ko irabazleak. GOIENA

herrian bizi edo lan egiten dutenek, nagusientzako kategoria izango baita. Gaiari dagokionez, librea izango da, baina lanek euskaraz idatzita egon behar dute, halabeharrez.

Era horretan, Elkorok nabarmendu du sormena eta irudimena lantzea dutela helburuetako bat, baita idatzizko adierazpena ere. "Horrez gain, irakurzaletasuna bultzatzea dugu xede, eta euskarazko ipuingintzari bultzada ematea. Hala ere, garrantzitsuena haurrek zein helduek gustura egiteko ekintza

bat izatea da; horrenbestez, parte hartzera animatu nahi ditugu herritarrek, inolako aitzakiarik izan gabe".

**Parte hartzeko urratsak**

Herritar bakoitzak ipuin bakarra aurkez dezake, eta lanak eskuz idatzitakoa izan behar du, letra ulerkorrean; haurren kategoriako ipuinek orrialde bakarra eduki behar dute, izan marrazkiarekin edo gabe, eta nagusien mailakoek, berriz, lau. Lan horiek gutun-azal batean entregatu behar dira, liburutegian edo eskolan, eta kanpoan, izenburua ez ezik, parte-hartzailearen adina idatzi behar da, anonimoagoa izan dadin. Hala ere, gutun-azalaren barruan bestelako datuak aipatu behar dira, aparteko gutun-azal txiki batean: ipuinaren izenburua, egilearen izen-abizenak eta adina. Martxoaren 28a da lanak aurkezteko azkeneko eguna.

Epaimahaiari dagokionez, Idolaz elkarrekin ordezkariak eta liburuzainak osatuko dute, eta bi kategoriatan banatuko dira sariak, maiatzaren 9an: haurre-

nean, bina liburu jasoko dituzte irabazleek; eta nagusienean, liburuak erosteko bonuak. Horrez gain, ipuin guztiak koadernatu egingo, dira eta liburutegian jarri; sariketarako hautatzen direnekin, gainera, liburuxka bat argitaratuko dute.

**IPUINETAKO GAIA LIBREA DA, BAINA EUSKARAZ IDATZITA EGON BEHAR DUTE, HALABEHARREZ**

## 'Herrixan erosi, herrixa bizi', astelehenetik aurrera martxan

Herriko komertzioa sustatzea da helburua, eta bezeroek sariak lor ditzakete dendetan kontsumitu ondoren

**A.R.K.** ANTZUOLA

*Herrixan erosi, herrixa bizi* kanpaina jarri du, beste urte batez, martxan Udalak, "herriko merkataritza sustatzeko eta bertako erosketen garrantzia azpimarratzeko: komertzioa duen herri

bat herri bizi bat da, eta gure helburua herritarrek herriko dendetan erostera animatzea da, guztion ongizatea eta ekonomia indartzea sustatzeko".

Horretarako, otsailaren 17an, astelehena, ekingo diote ekime-

nari, eta herriko komertzioetan kontsumitzen duten bezeroek erosketak txartelak eskuratzeko aukera izango dute, denda bakoitzean berehalak erabiltzeko hamar euroko hiru txartel eta hogeituroko bat izango baitira; txartel horietako bat ere lortzen ez dutenek, ordea, martxoaren 11n udaletxean egingo den zozketa nagusian parte hartzeko aukera izango dute, aurrez izen-abizenak eta telefonoa apuntatuta, ehun euroko lau sari-txartel zozkatuko baitituzte, mar-

txoaren 31 baino lehenago erabili behar direnak.

Hala, Udalak azpimarratu du herritarren parte-hartzea "funtsezkoa" dela ekimen hori "arrakastatsua" izan dadin, eta erantsi du zalantzarik izanez gero udaletxera jo behar dela horiek argitzera.

**Bigarren aldia du**

2023ko abenduan jarri zuen lehengo aldiz abian *Herrixan erosi, herrixa bizi* kanpaina Udalak, herriko merkatariekin elkarla-

nean, antzuolarrak Gabonetako erosketak herrian egitera bultzatzeko asmoz. Hala ere, kanpaina amaitutakoan, ohartu ziren Gabonetan beste aldi batzuetan baino gehiago kontsumitzen dela herriko komertzioetan, eta, horrenbestez, data aldatzea erabaki zuten: bigarren aldi honetan, horrenbestez, erabaki dute Gabonetan egin baino otsailera aldatzea kanpainaren data, hilabete hutsagoetan herriko komertzioei indarra emateko asmoarekin.

## Antero Apaolazaren oroimenez

Urretxun jaio arren, antzuolarra zuen ama —Maria Isabel Aranguren— Antero Apaolaza Aranguren (1845-1908). Madrilen egin zituen botikari ikasketak, eta, titulua eskuratu ondoren, Bergaran ireki zuen denda. Politikan ere aritu zen, eta Bergarako alkate izendatu zuten 1881eko uztailan —liberala zen—; hala ere, irailan kargua utzi eta Antzuolara joan zen bizitzera.



Antero Apaolaza. WIKIPEDIA

Erretiratu zenean ekin zion literatura idazteari, eta Antonio Truebaren *El judas de la casa* obraren egokitzapena egin zuen euskarara, *Patxiko Txerren* titulupean, 1890ean kaleratua: Antzuolako Basalde auzoan kokatu zituen kontakizunak, familia baten gorabeherak kontatuz herriko paisaia ugaritan. Hala, adituek diotenez, ez da itzulpen soil bat, oso bertsio librean idatzita dagoela baitiote. Haren oroimenez jarri zioten, bada, 1997an, Antzuolako literatur lehiaketari *Patxiko Txerren* izena.

**Lan gehiago idatzita**

Bost edizio izan ditu Apaolazaren lanak, eta Resurreccion Maria Azkuek *Linda obrita* (obratxo polita) zela adierazi zuen. Jakinekoea da, gainera, lan horrez gain beste batzuk ere idatzi zituela, baina, hil ondoren —1908ko abenduaren 21ean, Antzuolan, Bergarako hilerrian dagoen arren lurperatuta—, haren senideek erre egin zituzten, beraren ideia liberalak zirela eta.



# Landatxope pizteko ekintzak antolatzen

Antzuolako Landatxope Jubilatuen Elkarteak kideek ekintza berriak txertatu nahi dituzte urteko programazioan, jendea elkartera gertura dadin. Horren baitan, Ostegunetako Tertuliak saioa egingo dute otsailaren 20an, Toti Martinez de Lezea idazlearekin

**Imanol Beloki Unamuno** ANTZUOLA  
Antzuolako Landatxope Jubilatuen Elkartea urratsak egiten ari da elkartea biziberritzeko. Horren baitan, urteko programazioa antolatzen ari dira, eta berrikuntzak txertatu nahi dituzte, jende gehiago elkartera erakartzeko asmoz. Aldiro antolatuko dituzten ekintza berezietan gain, irteerak prestatzen ari dira, eta ohiko jarduerak ere martxan dituzte.

## Ekintzetara gerturatzeko deia

Landatxope Jubilatuen Elkarteak 270 lagun inguru dira bazkide, eta Elkartea osasuntsuago egoteko urratsak egiten ari dira dio Joxe Angel Arbolok, Landatxope Erretiratuen Elkarteak kideak. "Pandemiaren ostean, behera egin zuen Landatxopek; gainontzekoetan moduan, gurean ere, eta horri buelta eman nahian, orain programazio indartsua antolatzen ari gara. Dantzak antolatu ditugu; ostiraletan karta-jokoa; hilean behin Ostegunetako Tertuliak... Helburua jendea elkartera gerturatzea da".

## Txangoak, arrakastatsu

Apirilean Errioxara joateko asmoa dutela dio Arbulok, eta, honako hau egun bateko irteera



Landatxope Jubilatuen Elkarteak karta-jokoa. GOIENA

## APIRILEAN ERRIOXARA EGUN-PASA JOATEKO ASMOA DUTE LANDATXOPEKOEK

den arren, maiatzean, berriz, Cadizera *Herri zurien ibilbidea* egitera joango direla dio, aste-beterako.

"Irteerek erakartzen duten ekintzak dira. Izan ere, bidaiari horietara animatzen dira elkar-

teko bazkideak, baina bestelako ekintzetara ere gerturatu nahi dugu jendea".

## Inauterietan moztortuta

Elkarte gisa martxoaren 4an, Inauteri-martitzenean, merienda egingo dute Landatxopen, beste urte batzuetan egin duten moduan, ohiturari eutsiz, eta moztortuta joateko gonbidapena egin diete elkarte-kideei antolatzaileek. 18:30 aldera batuko dira, mokadutxo bat jateko, eta moztortu onenarentzat saria egingo dela aurreratu dute.

## Martinez de Lezearekin berbetan

Hilean behin, behintzat, tertulia bat antolatzen saiatuko dira Landatxope Erretiratuen Elkarteak, Landatxopen bertan. Hurrengo saioa otsailaren 20an izango dute, eta hitzordu horretan Toti Martinez de Lezea idazle arabarrarekin jardungo dute. Tertulia 15:00etan hasiko da, eta saio irekia da, interesa duen ororentzat.

"Toti Martinez de Lezea ezagutzen dugu, eta, haren liburuen gainean solasaldia izateaz batera, hura pertsona moduan ezagutzeko tartea ere izango dugu solasaldian", adierazi du Joxe Angel Arbulok. Gaineratu duenez, galderak egiteko gogoz nahi dituzte herritarrak, solasaldi dinamikoak eta parte-hartzaileak egiteko asmoz.

## Martxokoak prestatzen

Asmoa hilean behin antolatzea den arren, martxoan bi tertulia egin nahi dituztela aurreratu du Arbulok: "Antolatu dugun saioetako bat Antzuolako botikako arduradunarekin da, Amaia Garitanorekin. Horrekin batera, Istripu zerebrobaskularrez –iktusa– hitz egingo duen norbait etortzea ere nahiko genuke; ikusiko dugu lortzen dugun. Hala ere, horien berri emango dugu aurrerago".



NIRE USTEZ

ION LIZARAZU ARBULU

## Erdigunetik

Denok dauzkagu gure gogoak, nahiak eta beharrak, eta bertan kokatu ohi zaigu erdigunea. Bizitzako garaiaren arabera, aldaketak izaten ditugu erdiguneari dagokionez. Bikote berriek, ikasketa lagunek, lankideek... sozializazio bide berriak irekitzen dizkigute, erdigunea mugiarazi dezakete edota erdigunera ekar ditzakegu.

Badago, tartean, gure erdigunea ez ezik, ingurukoena ere ukitzeko eta mugiarazteko gai dena. Haurra. Gurasoen erdiguneari itzulipurdi bat eman eta giltzapetzeko gai da, eta horrekin batera dator lana.

Lana, erdigune berri horretatik aurreko guztiak ez ahaztekoa, lana, erdigune hori irekitzen asmatzeko eta hasierako lurrikarako guztizko protagonismo hori kanpotik begira neurtzeko.

Erdigune berri hori norberarena bakarrik ez delako, inguru guztiak (eta guztian) eragina duelako, eta inguru horrek ere gutaz eta gure erdiguneez gozatzeko eskubidea duelako.

## Hamazazpi liburu jarri ditu digitalean eskuragarri Udalak

Formatu fisikoan argitaratutako lanak iaz digitalizatzen hasita, herritarren eskura jarri dituzte orain

## I.B. ANTZUOLA

Antzuolako Udalak jakinarazi duenez, eskuragarri daude herritarrek eta herritar ez direnak baina Antzuola gaitzat dutenak idatzitako eta Antzuolako Udalak argitaratutako liburuak, Udalaren webguneko *Argitalpenak* atalean. Guztira, hamazazpi liburu daude digitalizatuta, nahi duenak kontsulta ditzan.

PDF formatuan daude eskuragarri, eta honako hauek dira horietako batzuk: Iñigo Ramirez de Okarizek idatzitako *Antzuolako Alardea. Mairuaren Jaial-*

*dia, Antzuolako baserriak eta errotak edo Antzuola 1900-1970. Antzinako argazkien bilduma; Jone Larrañagak idatzitako Antzuola herria lehen ikerketa beka; Ane Alberdik eta Onintza Legorburuk idatzitako Antzuolako hizkera; Memoria josten. Gatazka armatua Antzuolan, 1958-2011; Patxi Olabarriak idatzitako Antzuolako armarriaren alardea; Ibai Muñizek idatzitako Antzuola eta Aiherra, mugak zubi; Lourdes Odriozolaren Antzuolako Alardeari buruzko ikerketa historikoa...*

## Fernando Valladares ikerlariaren hitzaldia astelehenean

Espainiako Zientzia Ikerketen Kontseilu Nagusiko (CSIC) ikerlaria da Fernando Valladares, eta hitzaldia egingo du astelehenean, 18:30ean, Torresoroan. Zientziaren dibulgazioan erreferentea da, eta giza jarduerak biodibertsitatean eta klima aldaketan duen eragina du, batik bat, aztergai; hala, horretaz jardungo du jendaurrean.

## Salgai daude Inauterietako bazkarirako txartelak

Martxoaren 1ean ospatuko dituzte Inauterietako Antzuolan, eta Udalak salgai jarri ditu bazkarirako txartelak, *Entradium* plataforman. 14:30ean izango da bazkaria, pilotalekuan, baina txartela erosten dutenek konpromisoa hartu behar dute mahaia jartzeko eta jasotzeko; 11:00etarako egin dute eremua prestatzeko deialdia.



Hartza eta kokoen konpartsa Arantzeta auzoan, iaz. L.Z.L.

# Hartz txikia ere esnatuko da

Datorren zapatuan irtengo dira kokoak. Hartza esnatutakoan ekingo diote baserriz baserriko ibilbideari. Aurtengo nobedadeen artean, konpartsa Bergarako Ubera eta Zabaleta auzoetara helduko dela eta hartz txikia ere esnatuko dela

**Larraitx Zeberio Lekuona** ELGETA Koko-batze egunerako zazpi egun falta dira –otsailaren 22an egingo da–, eta prestaketa-lanak aurreratuta daude Elgetan. Goibeko euskara elkarteak antolatuta, laugarren urtez egingo dute Inauteria iragartzeko eske-erronda. "Herri proiektu bat da eta denok gaude deituta. Lotzen ditu tradizioa, euskara, dantza, kantua, harremanak, belaunaldiar-tekotasuna, baserriekiko errespetua, natura... Oso artefaktu kulturala osatu da, eta helburu preziatuena gozamina da", azaldu du Goibekoko presidente Ainara Iribarrek.

## 40 lagun izena emanda

Aurten ere talde handia irtengo da baserriz baserri. Lerrook idazterakoan, 40 lagun zeuden izena emanda. "Gazteei dei berezia egin nahi diegu. Gustatu-

ko zaie, ondo pasatuko dute eta Elgeta bizitzeko modu bat ikusiko dute etorritz gero".

Zeramika-gelan jarrita dagoen erakusketatik pasatzeko gomen-dioa egin du Goibekok, baita irekia den Telegram kanalaren jarraipena egiteko ere. Telegram kanaletik zabaltzen dute intereseko informazio guztia eta erakusketan daude izena emateko orria eta aukeran dauden mozorroak. "Edonork mozorro bat behar badu, ez da zaila izango bideratzea", esan du Iribarrek, eta izena ematearen garrantzia azpimarratu du: "Antolaketa

**DAGOENKO 40 LAGUN DAUDE APUNTATUTA, ETA IZEN-EMATEAK ZABALIK JARRAITZEN DU, ZERAMIKA-GELAN**

egokia egiteko, komeni zaigu jakitea zenbat izango garen; baserri batetik bestera mugitze-ko, gosarirako zein bazkarirako...". Erakusketatik pasa eta datuak uzteko eskaera egin du. Eguneko gastuak ordaintzeko koko bakoitzari 20 euro eskatuko zaizkio, eta koko-zuriei –gazteak–, 12 euro.

## Bisita Uberara eta Zabaletara

Errepidearen beheko aldeko baserrietan egingo da aurten koko-batzea, eta, bertakoekin adostu ostean, lau baserritara eta bi auzotara eramango dute Inauteria kokoek: Urrejalei, Ubera auzoa, San Antonio, Galarragaetxetxo, Zabaleta auzoa eta Zalbide. "Bergarakoak diren auzoetara joatea berritasuna da. Harremanak aipatu ditugu, eta nahi dugu *periferian* dauden bizikideekin ere harreman hori



Erakusketa zeramika-gelan. L.Z.L.

## Izena emateko aukera erakusketan

Urtero moduan, koko-batzearen gaineko erakusketa ipini du Goibekok zeramika-gelan. Jantziak eta aurreko urteko koko-batzearen irudiak ikus daitezke bertan. Izena eman nahi dutenek ere bertan aurkituko dituzte izen-emate orriak.

landu. Ubera, Angiozar, Zabaleta... Egon da harreman sendoagoa eta egon daiteke oraindik ere. Koko-batzearekin bisita egingo diegu, eta ea denok batera ondo pasatzerik dugun. Uberan izango gara 10:15ean, eta uberar guztiak deitzen ditugu auzoko plazara. Zabaletara geroago iritsiko gara, 13:30ean".

## Hartz txikia aurten

Bigarren nobedade handia hartz txikiaren esnatzea izango da. 18:00 aldera irtengo da kobazulotik, eta saiatuko da hartz handia aurkitzen. "Oso argi dugu koko-batzea ez dela umeendako. Gazteendako pentsatutakoa da; 100 urtera arteko gazteendako. Hala ere, transmisioa zaindu beharreko aldagaietako bat da eta Elgetako herri eskolatik jasotako laguntza handiarekin batera zozketa egin dugu, eta egunaren akabera aldera izango du lekua hartz txikiak. Plazabarrereko kobazulotik aterako da eta Salvador goienara joango da, hartz handiaren bila. Txarangak eta haren lagunak lagunduko diote bide hori egiten. Herrietarako ere gonbidatzen ditugu".

Kokoen konpartsak plazan egingo du azken dantza eta kan-

**KOKOEK UBERA ETA ANGIOZARKO ZABALETA ERE BISITATUTAKO DITUZTE AURTEN**

tu saioa. Bertara joko dute iluntzean hartzak, hartz txikiak eta gainerako koko guztiak. Udalaren eskutik, Ustekabe txarangak girotuko du koko-batzearen amaiera.

## Zalantza argitzeko saioa gaur

Koko-batzean parte hartu nahi dutenek hitzordua dute gaur, 19:00etan, kiroldegiko gimnasioan. Bertan, dantzak eta koplak entseatuko dira eta edozein zalantza argitzeko aukera egongo da. "Azalduko dugu, baita ere, koko-batzea zer den. Jai bat da, baina ez diskoteka bat. Zaindu behar ditugu tradizioa, hizkuntza, bisitatzea goazen baserrietarak, natura... Hori dena azalduko dugu. Fox-trotaren pausoak gogoratuko ditugu eta jantziak nola dauden ere begiratuko dugu", esan dute Goibekokoek.

Bestalde, jantziak prestatzeko laguntza behar dutenek jakin behar dute badagoela lantalde txiki bat horretarako. "Oso erraza da gu zeramika-gelan aurkitzea", esan du konpartsa-kide Iratxe Bravok. "Astelehen iluntzean elkartu ohi gara, eta hurrengo astean gehiagotan elkartuko garelakoan nago. Libre dauden mozorroak badaude oraindik, eta material apur bat ere gelditzen da mozorro berriak prestatu nahi dituztenendako; etorri eta galdetu. Uste dut aurten gutxienez bost mozorro berri irtengo direla konpartsan".



# Ahuntzak Trail probaren laugarren aldiari begira

Martxoaren 29an jokatu da Intxortako Ahuntzak Trail lasterketaren laugarren aldia prestatzen ari dira. Izen-ematea otsailaren 27ra arte dago zabalik, eta antolatzaileek gazteen parte-hartzea sustatu nahi dute

## Sara Lanz Azpiazu ELGETA

Martxoaren 29an jokatu da Ahuntzak Trail lasterketaren laugarren edizioa, eta izen-ematea oraindik zabalik dago. Otsailaren 27ra arte egongo da izen emateko aukera.

Intxortako Ahuntzak Trail lasterketa urtez urte hazten joan da, eta antolakuntzan hobera egin du. Taldeko kide Eleder Lozanok adierazi duenez, lehen edizioa izan zen zailena, bigarrenean akatsak zuzendu zituzten, eta hirugarrenean ibilbidea luzatu zuten, Egoarbitza mendia gehituta. Laugarren ediziorako gogotsu daude, eta lasterketa eguna iristeko irrikan.

## Ibilbidea eta prestaketa

Lasterketaren ibilbideek izako berak izaten jarraitzen dute laugarren honetan. Nagusien proba 10:00etan hasiko da, eta 21 kilometro eta 1.200 metroko desnibela izango ditu. Ibilbide honetan barrena eramango ditu parte-hartzaileak: Egoarbitzatik, Goikomenditik, Aixelako urtegitik eta Intxortako puntatik pasatuko dira. Antxumeen lasterketak, aldiz, 09:50 izango du irteera-ordua; 4 kilometro eta 250 metroko desnibela izango ditu bigarren horrek, eta, Elgetako plazan abiatu, San Roke kaletik mendira igo, handik jaitsi, eta plazara itzuliko dira.

Bideak prestatzen hasiak dira jada antolatzaileak, eta Lozanok adierazi du entrenatzeko aukera edonorentzat zabalik dagoela: "Ibilbidea markatuta dago, eta jende askok aprobetxatu du entrenatzeko. Aztarnak nonahi ikus daitezke". Lasterketa egunerako azken ukituak egingo dituztela gaineratu du Lozanok: "Markak indartu eta banderaxoak eta zintak jarri".

Lasterketaren antolakuntzan lau pertsonako talde bat arduratzen da lan nagusiez, baina



Intxortako Ahuntzak Trail lasterketaren hirugarren aldia. GOIENA

## MOMENTUZ, 225 KORRIKALARIK EMAN DUTE IZENA AHUNTZEN LASTERKETARAKO

atzean babes handia dute. Lozanoren hitzetan: "Antolakuntzan lau pertsona gaude, baina, gero, atzetik babes handia daukagu. Herriak babesten gaitu, asko daude laguntzeko". Nabarmendu du herritarren babesak eta boluntario sare zabal batek egiten dutela posible halako ekitaldi bat antolatzea.

## Dorsal kopurua handitu

"Momentuz, 225 korrikalarik eman dute izena Ahuntzen lasterketan", azaldu du antolakuntzako arduradunak, eta Antxumeen lasterketan oraindik gutxi batzuk direla esan du, gazteenek azken momentura arte itxaroten dutela ohartaraziz. Dorsalen kopurua aurten 350ekoa izango da Ahuntzenean eta 50koa Antxumeenean, gutxira 400 korrikalari. Dorsal kopuruan hazten joan den arren,

emakumeen parte hartze kopuruak azken urteetan jaitsiera izan du 2023an 56 izatetik, 2024an 39 izatera pasa ziren. Horrenbestez, antolakuntzatik edizio honetan emakume korrikalariei gonbita luzatu nahi diete. Oraindik 100 dorsalek inguru geratzen dira, eta otsailaren 27ra arte egongo da izena emateko aukera, [herrikrosa.eus](http://herrikrosa.eus) webgunean.

## Izen ezagunak

Aurten ere izen handiak izango dira Elgetan. Oihana Kortazar, distantzia horretako munduko onena, eta Ane Zabala, Hiru Handiak irabazitakoa, dagoeneko izena eman dutenen artean daudela ziurtatu du Lozanok; adierazi du maila handia egongo dela ziurtatuta.

## Antxumeen lasterketa

Antolatzaileek gazteen parte-hartzea sustatu nahi dute aurten ere. "Kirola naturan egitea gozamen hutsa da, eta gustatuko litzaiguke herriko neska gazte gehiago animatzea", azaldu du Lozanok. Azken urteetan gorakada izan du gazteen parte-hartzeak, eta aurten ere joera hori mantentzeko helburua dute.

## Elgeta Berbetan: euskara praktikatu eta hobetzeko aukera

Elgetako Mintzalagun programan gaur egun bi talde daude martxan, eta bidelagun gehiago behar dira

## Sara Lanz Azpiazu ELGETA

Elgetako Mintzalagun programak bi talde ditu gaur egun, eta sei-zazpi pertsonak osatzen dute ekimena. Astean ordubeteko konpromisoa eskatzen du, eta taldeak astelehenero elkartzen dira: bat 16:00etatik 17:00etara eta bestea 18:00etatik 19:00etara; azken hori zuzenketetara bideratuta dago.

Geaxi Ezpeletak, Elgetako Udal Liburutegiko arduradunak, bidelagun gehiagoren beharra dagoela adierazi du. Izan ere, parte-hartzaileetako batek ezin

izan du taldean lekurik aurkitu, ordutegien bateragarritasun faltagatik, azaldu du Ezpeletak.

Izen-ematea online formulario bidez egin daiteke, edo liburutegian zein udaletxean eskuz betetako inprimakia entregatuz. Gainera, informazioa jasotzeko aukera dute liburutegian.

Bestalde, mintza-ekintzak ere egiten dituzte bailara mailan, eta azken asmakizun lehiaketa batean Elgetako talde batek irabazi du. Era horretan, dinamika berriak sortzeko koordinatzen dira.

## GORA ETA BEHERA



## Elgeta eta Bergara arteko errepideko zuloa, estalita



"Leku txarrean zegoen, eta erraz sartzen zen errubera. Konpondu izana albiste ona da. Pena da, behin hasita, beherago daudenak ere konpondu ez izana", esan du herritar batek.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo 688 69 00 07.

## OHARRAK

### Ipuinen Ordua gaur, barikua, liburutegian

Ipuin-kontalari boluntario taldearen eskutik hiru saio, 17:30ean hasita. HH-2 eta LH-5 arteko ikasleendako dira.

### Gaztetxoentzako Laser Tag ekintza

Gaztelekuak antolatuta, Laser Tag ekintza egingo dute gazteek. Hilaren 15ean izango da, zapatua, Asentzian, 10:30ean.

### Podologoa, martitzenean, kultura etxean

Xalbadorpe erretiratuen elkarteak antolatuta, otsaileko kontsulta martitzenean izango da, hilak 18. Aurrerantzean, goizez izango da, 08:45- 13:15 artean. Txanda hartzeko, deitu egin behar da: 653 74 19 64 (Uri Gallego).

# Txorien gainekoa da aurtengo erakusketa

Dagoeneko zabalik dago kultura etxean Natur Eskolak Ingurumen Jardunaldien barruan prestatu duen erakusketa. 30 txori espezieren erreplikak eta informazioa jasotzen du, hainbat bitxikeria barne; aipagarriena, dinosauro baten arrautza

## Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Txoriek pisu handia izango dute Natur Eskolak aurten antolatu dituen Ingurumen Jardunaldien barruan. Egongo dira kaparrei eta Urdaibairi buruzko hitzaldiak ere, adibidez, baina haiei buruzkoa da aurten prestatu duten erakusketa. Aurrekoak bezain ikusgarria.

## Erreplika eta guzti

Txoriak hobeto ezagutzea du helburu *Txoriak txori* erakusketak, eta hegazti txiki horien 30 espezie ingururen gaineko informazioa jaso dute, bakoitzaren tamaina, itxura eta koloreak dituen erreplika bana barne. Denak dira ezagunak, hemengo ohiko txoriak eta hainbat habitatatetan bizi direnak: hirigunean, basoan edo mendian, larrean eta erreka bazterretan.

Dauden bitxikerien artean aipagarriena, agian, "benetako dinosauro" baten arrautza bat da. "Dinosauroak desagertu zirela esan izan dute askotan, baina ez

da egia, hegaztiak dinosauroak dira eta. Lumadun dinosauroak ziren desplazatzen azkarrenak eta, agian, baldintza hobekak zituen parajeetara heldu zirelako edo baldintza klimatiko hobekak batzuen bila urrutiago joan zirelako, haien ondorengoak dira egungo hegaztiak", Natur Eskolako Aimar Uribesalgoren azalpena.

## Soinuak egiteko gailuak

Txepetxek izaten duten tamaina txikia, antzandobi arruntek ehi-zatutako pieza arantzetan ka-teatzeko duten ohitura eta beleekek duten adimen-maila handia dira, adibidez, erakusketan ikus daitezkeen beste berezitasun batzuk. Gainera, espezie bakoitzak egiten duen soinua ateratzen duten

## IRTEERARA PRISMATIKOAK ERAMAN BEHAR DIRA ETA EZ DA AURREZ IZENIK EMAN BEHAR

gailuak ere jarri dituzte kultura etxeko sotoko gelan, putz eginda edo txalo eginda norberak soinu hori ateratzeko duen abilezia neurtzeko.

Erakusketa martxoaren 2ra arte egongo da zabalik, egunero, iluntzeetan. Herriko ikastetxeekin izandako hartu-emanaren ondorioz, Lehen Hezkuntzako zein Bigarren Hezkuntzako ikasle guztiak ikusiko dute -ari dira bisita horiek egiten, egunero-. Bi bisita gidatu ireki ere egingo dituzte, herritar guztiendako, eta txoriak entzutera eta ikustera joateko irteera antolatu dute: otsailaren 22an izango da, Natur Eskolatik bertatik, eta ez dago aurrez izenik eman beharrik.

Ohikoa duten moduan, zineklubeko filmen artean, natura-rekin lotura duten bi film eskainiko dituzte hilabete honetan; Oskar Alegria zuzendaria bera etorriko da bere dokumentala emango duten egunean. Eta, nola ez, hainbat gairi buruzko hitzaldiak ere antolatu dituzte.

## Ingurumen jardunaldien egitaraua

### Erakusketa

- **Martxoaren 2ra arte:** *Txoriak txori*. Kultura etxean, 18:00etatik 20:00etara.
- **Bisita gidatuak:** otsailak 19 eta otsailak 27.

### Irteera

- **Otsailak 22:** txoriak entzutera eta ikustera. Prismatikoak eraman behar dira. Natur Eskolan, 09:30ean.

### Hitzaldiak

- **Otsailak 19:** *Itsas ekosistema bentonikoa: funtsezko bioadierazlea*. Hizlaria: Nahiera Muguerza.
- **Otsailak 21:** *Kaparrak, ziztadatik haratago*. Hizlaria: Aitor Cervidanes.
- **Otsailak 25:** *Stolen fish dokumentala eta Arrantza industriala: Getariako hegabalur haztegien kasua*. Hizlaria: Lorea Flores.
- **Otsailak 26:** *Urdaibai: arriskuan dagoen Biosfera Erreserba. Zein da bere etorkizuna?* Hizlaria: Eider Gotxi.

### Zinekluba

- **Otsailak 20:** *Zinzindurrunkarratz*. Zinema-aretoan, 19:30ean.
- **Otsailak 27:** *El mal no existe*. Zinema-aretoan, 19:00etan.

### Zuhaitz Eguna

- **Otsailak 23:** zuhaitz landaketa herrigunean. Plazan, 10:00etan.
- **Bisita gidatuak:** otsailak 19 eta otsailak 27.

### Zuhaitz azoka

- **Martxoak 1:** landare mintegiaren azoka. Plazan, 09:00etan.

Oharra: hitzaldiak kultura etxea dira 19:00etan.

## Usako inguruko lanak egiteko eskaintza-epea zabalik dago

Lizitazio-fasean daude Usako ingurua lehengoratzeko proiektu obrak. Epea zabaldu dute lan horiek egin gura dituzten enpresek euren eskaintzak aurkez ditzaten; otsailaren 18ra arteko epea dute proposamenak aurkezteko. Aurrekontua 89.943,82 euro da eta turismo jasangarrirako Next Generation funtsetatik jasotako dirulaguntzekin finantzatu da. Esku-hartze hauek egingo dira, adibidez: zaharkituta dauden heldulekuak aldatu eta berriak jarri, Zuazolak zubitik putzurainoko bidezka konpondu, komuna forratu, berdegunera zuzenago iristeko bidea egin ondoko zelaitik eta zuhaitzak landatu.

## Monitorizatutako aparkalekuen lanak esleipenera atera dira

Arantzazuko eta Araotzeko aparkalekuak monitorizatze proiektua eginda dago, eta orain, lan horiek esleitzeko prozesua zabaldu du Udalak. Obrak egin gura dituzten enpresek martxoaren 3a aurretik aurkeztu behar dituzte eskaintzak. Lanak egiteko 130.000 euroko aurrekontua zehaztu da, baina merkeago egiteko aukera dago; Next funtsetatik dirulaguntzekin finantzatu da. Landa-auzo bi horietara iritsi aurretik, panel batzuk egongo dira, aparkalekuetan tokia dagoen edo ez adieraziko dutenak: Azkoagainen eta Urriagainen egongo da panel bana, eta semaforo bat Jaturabeko zubian.

## Emakumion Etxia-ko lantaldeen hurrengo bilerak, astelehenetik

Emakumion Etxia eraikitze proiektuan dauden taldeek bilerak egingo dituzte, astelehenean hasita. Hainbat esparru landuko dituzten bost talde daude, eta parte hartzeko bideak hauek dira: [berdintasuna@onati.eus](mailto:berdintasuna@onati.eus) edo 688 78 52 47. Bestalde, Ugarte eraikuntza enpresari esleitu dio Udalak eraikin barrua egokitze obra, 1.164.823 eurotan.



Erakusketaren irekiera egunean, astelehenean, egindako bisita gidatuen azalpenak ematen. AMAIA TXINTXURRETA



# Energia-merkaturatzailea sortzeko bidea hasi dute

Oñatiko energia merkaturatzailea abiarazteko bidean, CHC Energiaren delegazioa etengo du Udalak eta laster ez du zuzeneko arretarik eskainiko Oñatin. Informazio-saioak egingo dituzte datorren astean, proiektuaren gainekoak azaltzeko

## Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Energia sortzeko eta banatzeko bertako enpresak dituen moduan, energia komertzializatzea ere herrikoa izatea gura du Oñatiko Udalak, eta horretarako bidea hasi du –urtebete ingurukoa da prozesua–. CHC Energia merkaturatzaileari jakinarazi dio dagoeneko agente komertzial izateari utziko diola. Hori da herriko merkaturatzailea sortzeko prozesuan egin beharreko lehen urratsa, Udalaren esanetan, eta egin duela esan du.

## Jarraitu edo bertakoan sartu

Horrek esan gura du CHC Energiak ez duela epe motzean aurrez aurreko informaziorik emango Bibarrieta kaleko bulegoan. Besteetan gertatzen den moduan, telefonoz edo beste herri bateko bulegora joanda argitu beharko ditu zalantzak herritarrek. Delegazioa eten arren, baina, herritarra ez da argirik barik geldituko, jarraituko du argia izaten eta CHC Energiatik etorriko zaizkio argiaren fakturak, baina ez du enpresa horrek arreta punturik izango Oñatin laster.

Oñati moduan, beste herri batzuk ere batzen dituen merkaturatzailea da orain arteko CHC Energia –2009an sortua–, eta, 2023az geroztik, Repsol da bazkide nagusia, akzioen %50,01ekin. "Azken urteetako testuinguru nahasiek energiaren merkatuan eta herritarren etxetan eragindako ziurgabetasuna, azpiegiturak izan arren erabakiak herrian hartzeko mugak, energia berriztagarrien aldeko apustua, CHC Energiaren azken urteotako bilakaera, gardentasunari eta gertutasunari eutsi beharra... Askok eta askotarikoak dira erabakiaren oinarrian dauden arrazoiak", azaldu du Izaro Elorza Arregi alkateak.

Hasi den prozesu hori aurreko agintaldian aurkeztutako Energia Planean du jasota Oñatiko



Oñatiko Ur Jauziak. GOIENA

Udalak, "eta posible egingo du Oñatin sortutako energia berriztagarria oñatiarrek modu zuzenean kontsumitzea". Burujabetza energetikoaren baitan, eta energia berriztagarrietan, nagusiki, argindarraren kate

edo zirkulu osoa herriratzea ahalbidetuko luke bertako agente komertzial bat izateak. "Merkaturatzaile berriak posizio hobean jarriko du Udala, herritarren behar energetikoei modu eraginkorrean erantzuteko, ziurgabetasunak ezaugarrituriko garaletan, ziurtasuna eskaini dezan, espekulazio eremuetatik urrunduta, oinarritzko zerbitzuaren bidezko eskaintza erdigunean jarrita". Alkateak gaineratu du pauso horrek "erreferente" bilakatuko duela Oñati energiaren alorrean.

## Bilerak eta eskuorriak

Herritarrek jarraitu dezake orain arteko merkaturatzailearen bezero izaten edo sortuko den bertako horretakoa. Bigarren hori aukeratuz gero, Bidebarrieta kalean dagoen Energia Bulegora joan beharko du, beste kontratu bat sinatzea; digitalki ere egin ahal izango da.

Hartutako erabaki horren berri emateko eta herritarren edozein zalantza argitzeko, informazio bilerak egingo dituzte datorren astean herritarrekin. Eta eskuorriak banatuko dituzte.

## Informazio-saioak

Informatzeko eta zalantzak argitzeko hiru saio egingo dituzte herritarrekin.

### Otsailak 18

18:30 Kultura etxeko zinema-aretoa.

### Otsailak 19

18:30 Eltzia hirugarren solairuan.

### Otsailak 20

10:00 Zubiko kirodegiko bilera-gelan.

Oharra: aldi bereko itzulpen zerbitzua egongo da saio guztietan.



Stadler enpresa, Santxolopeztegi auzoan. O.E.G.

## Eroslerik agertzen ez bada, lixi egingo dute Stadler enpresa

Enplegu Erregulazio Espedientearen tramitea hasi du, eta, inor agertu ezean, kalean geldituko dira langileak

## O.E.G. OÑATI

Enplegua Erregulatzeko Espedientearen sartuta dago Stadler enpresa, eta, datozen astetan eroslerik agertzen ez bada, itxi egingo dute. 58 langile daude lanean, eta denak geldituko dira kalean itxiera heltzen bada. Enpresako gerente Txema Gallegok azaldu duenez, lantegiak ezin izan dio bueltarik eman 2019tik izan duen lan jaitsierari, eta horrek eraman du egoera horretara enpresa: "Mercedes, Volkswagen, Renault eta halako bezero handiak ditugu, baina 2019an Mercedesendako bakarrik egiten genuen pieza baten ekoizpena galdu genuen, beste enpresa bati eman ziotelako, eta, 2023an beste proiektu batekin aurrera egingo genuela uste arren, ez zen horrela izan. 2024ko uztailan sartu zen hartzekodunen lehiaketan eta urtarrilaren 25ean Enplegua Erregulatzeko Espedientea tra-

mitatzeari ekin zioten. Hiru hilabeteren barruan ez bada inor agertzen erosi gura duela esanez, itxi egingo da". Gallegok gaineratu du Europako merkatuan ibili direla aukerak aztertzen eta Asiako merkatuan ari direla orain saiakerak egiten, baina bertako enpresa edo enpresa talde batek erosteko modukoa ere badela: "Bost linea ditu, makinak onak dira eta langileek badute formakuntza".

2008an izan zuen langile kopuru handiena Stadlerrek; egungoaren bikoitza, gutxi gorabehera. ELA eta ESK sindikatuetakoa bina ordezkari eta independente den batek osatzen dute komitea, eta lehen biek adierazi dute enpresaren "kudeaketa faltagatik" iritsi direla egoera horretara; egoera salatu dute. Eguaztenean izan dute fase honetako lehen bilera, eta gehiago egingo dituztela jakinarazi dute.

**AUTLAN<sup>®</sup>**  
EMD

Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako  
Manganeso Dioxido Elektrolitiko ekoizpena.

# 'Mamut' lana domekan, familian ikusteko

Markeliñe antzerki konpainiak 'Mamut' antzezlanaren ekarriko du domekan Oñatira, 4 urtetik gorako umeek eta euren senideek elkarrekin ikus dezaten. Hizkuntzarik gabeko garaian kokatuta, taldean eta elkarrekin lan egiteak duen indarra erakutsi gura du

**Oihana Elortza Gorostiza** OÑATI

*Mamut* antzezlanarekin dator Markeliñe antzerki konpainia domekan Santa Ana antzokira. Familia giroan ikus daitekeen antzezlanaren da *Mamut*, elkarrekin, inor bazterrean utzi barik eta bakoitzak bere ekarpena eginez; gauza asko lortu, sentitu eta deskubritu daitezkeela erakutsi gura duen obra. Haurrendako zein helduendako ditu keinuak.

**Hizkuntzarik gabeko garaian**

Tximinozik gizakirako trantsizio garaian kokatzen da *Mamut* antzezlanaren. Hiru hominido, oraindik hizkuntzarik ez duten hiru gizaki, dira oholta gainean agertuko diren hiru aktoreak. Otsoengandik ari dira ihesi hirurak, bakoitza bere bidetik, topo egiten duten arte. Elkarrekin daudela, eta komunikatzeko erabiltzen dituzten soinuei eta keinuei zein gorputz mugimenduei esker, elkarrekin otsoari aurre egiteko, bizirik irauteko, aukera gehiago dituztela ikusten dute. Konturatzen dira otsoari dioten beldurra gainditu dezaketela batera egonda, ehizara batera joanda. "Mamut baten hezurrekin gauzak sortzen hasten dira, irudikatzen, tresna edo erreminta bihurtzen. Konturatzen dira hobeto funtzionatzen dutela elkarrekin, bakoitzak bere ekarpena eginez. Elkarren laguntzarekin hobeto ibiliko gara da mezua, elkarren beharra dugula eta talde-lana denondako dela onuragarri", dio Markeliñe konpainiako zuzendari Jon Kepa Zumaldek.

**Jolasak ume zein helduendako**

Mezu hori modu "alaian, plastikoa eta dibertigarrian" ematen dutela gaineratu du Zumaldek. "Oraindik ez dute hizkuntzarik, baina komunikatzen dira, eta, poliki-poliki, gauzak elkarrekin eginaz, artea, hizkuntza eta sua sortzen dituzte,



Hiru aktoreak, *Mamut* antzezlanaren momentu batean. MARKELIÑE

adibidez. Talde-lanaren garrantzia, maitasunaren indarra zein heriotza ikusiko dituzte ikusleak; gizakiaren eboluzioa, nolabait esatearren. Eta erritmo bizian, dibertigarrian eta poetikoan. Horretarako, jolasak erabiltzen ditugu".

**DOMEKAN IZANGO DA 'MAMUT' OBRA, SANTA ANAN 17:00ETAN; SARRERA LAU EURO DA**

Umeendako zein helduendako aproposak eta harrigarriak diren jolasen bidez osatutako antzezlanaren da, eta batzuetan zein besteendako keinuak daudela nabarmendu du Zumaldek.

Nerea Martinez, Fernando Barado eta Maite Bayon dira oholtan hominidoen rola beteko duten aktoreak, eta 4 urtetik gorako umeek eta euren senideek goazatzeko prestatua. Domekan izango da *Mamut* antzezlanaren, 17:00etan, Santa Ana antzokian. Sarrera lau euro da; udal webgunean eros daitezke aurrez.

## Musika bidez deskribatuko ditu mendi ezagunak bandak etzi

Kontzertua 13:00etan da, kiroldegiko frontoian, eta joateko Txokolateixan dituzten gonbidapenak behar dira

**O.E.G.** OÑATI

Aurtengo denboraldiko hirugarren kontzertua egingo du Oñatiko musika bandak datorren domekan, otsailaren 16an. Ohikoa duten moduan, 11:00etan kalejira egingo dute herriguneko kaleetan zehar, eta 13:00etan hasiko da kontzertua, kiroldegiko pilotalekuan.

**Mendietan arreta jarrita**

*Usaindu lurra* izenburua du domekako emanaldiak, eta hainbat mendiren izen propioak dituzten piezak eskainiko dituzte: *Montc Blanc*, *Terra Vulcania*, *Ritmos de la tierra*, *Yellow mountain*, *Mt. Everest*, *Mountain moments* eta *Ain't no mountain high enough*. Aitor Biain Bidarte zuzendariaren esanetan, "obra programatikoak dira, deskriptiboak", eta "naturaren gertatzen diren fenomeno edo gertakariak



Aner Agiriano. OÑATIKO MUSIKA BANDA

–haize efektuak, elurra, ekaitza...–" irudikatzen dituzte musikaren bitartez. Hainbat estilo –latindarra, popa...– eskainiko dituztela ere gaineratu du.

Kontzertu horretan Aner Agiriano tronpeta jotzailea estreinatuko da, bandako kide.

## Rüdiger eta Madame Birrots taldeak domekan gaztetxean

Bi talde gonbidatu ditu Burrunda Faktoriak etziko, domeka, Antixena gaztetxera: Rüdiger eta Madame Birrots.

Willis Drummond taldeko bateria-jole Felix Buff-ek gitarra hartu eta kantuak idazteari ekin zion pandemia garaian, eta Rüdiger proiektua sortu zuen. Psikodeliaz eta Kaliforniako 60ko rockaz bustitako

pop-rock piezak egin ditu eta hiru lan kaleratu ditu orduetik: *Before It's Vanished*, *The Dancing King* eta *Wild cotten glow*; joan den hilabeteaz azken hori. Hainbat formatutan jo izan ditu kontzertuak; Oñatira bakarrik dator. Nafarroako Madame Birrots taldeak bederatzikantu dituen bere lehen diskoa aurkeztuko du: Madame Birrots.

Kontzertua 18:00etan hasiko da, domekan. Sarrerak: zortzi euro ohikoak, hiru murriztuak.

## Domeka da Kantari saioan izena emateko azken eguna

Domekan, hilak 16, izango da azken eguna Goienako Kantari saioan izena emateko. Taldeko partaide bakoitzak bere izen-emate orri propioa bete bihar du, [www.goiena.eus](http://www.goiena.eus) webguneko *Kantari* atalean sartuta. Hortxe izango ditu argibide guztiak izen-ematea ondo egiteko. Galdetegi bat bete beharko du taldekide bakoitzak.

Debagoieneko Kantariren bederatzigarren aldia da aurtengoa, eta, kantu berriez gain, eszenografia eta irudi berriak ere baditu. Argibideak behar izanez gero, 943 25 05 05 telefono-zenbakira deitu daitezke, edo [kantari@goiena.eus](mailto:kantari@goiena.eus) helbidera mezu bat bidali. Herriko 7 eta 12 urte bitarteko gaztetxoek eman dezakete izena saioan parte hartzeko. Martxoaren 22an egingo dituzte grabazioak gaztelekuan; entseguak, berriz, aurreko asteburuan, 15ean, Eltzian.





# DEBAGOIENENKO OSASUN ZERBITZUAK



## DENTISTAK

### ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

### AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 32, behea / 943 76 00 23

### ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.  
943 79 13 68

### ARANDO IRIARTE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

### ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

### ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

### CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

### DURANA HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

### GARAI HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Iralabarri 15 / 943 53 42 63

### GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

### MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

### VITALDENT

Arrasate / Otalora lizentziaduna kalea 1 / 943 06 03 22

## DIETETIKA

### BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

## ENTZUMEN ZENTROAK

### INSTITUTO OPTICO AUDITIVO

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68  
Bergara / Bidekurutzeta 10 - 943 76 97 03

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

### BIZI KIROPRAKTIKA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## MASAJISTAK

### AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

## NEUROLOGIA

### AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## OPTIKAK

### BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

### MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

## OSASUN- DIAGNOSTIKOAK

### UDALAITZ ZENTRO MEDIKOA

Arrasate / Euskal Herria plaza 3  
943 79 44 22

## PODOLOGOAK

### ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk.  
943 79 97 46

### IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g  
943 76 07 84

## PSIKOLOGOAK

### NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

### VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

## PSIKIATRIA

### IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11



# "Harrobiko neskendako motibagarria da"

**FUTBOLA** Klub txuri-urdinak iragarri du Maren Lezeta (Aretxabaleta, 2005) Realaren talde nagusiko dinamikan sartuko dela aurrerantzean. "Realak haren aldeko apustua egin nahi du, etorkizuneko proiektu gisa", adierazi du klubak

**Xabier Urtzelai Atxa** ARETXABALETA Maren Lezeta aretxabaletarrak 2020-2021eko denboraldian egin zuen salto Realera. Gaztetan Aretxabaletan eta Leintz Arizmendin jokatuakoa, 15 urterekin Realeko bigarren talderako fitxatu zuten, eta aurtengo denboraldian, urrian, Atletico Madrilen kontrako partiduan talde nagusiarekin egin zuen debuta. Bada, orain, klub txuri-urdinak adierazi du erdilari jokatzeko duen jokalaririk aretxabaletarra Realeko talde nagusiko dinamikan sartuko dela, nahiz eta bigarren taldearekin ere jokatu ahal izango duen.



Maren Lezeta aretxabaletarra, Reale Arenan, Realaren elastikoarekin. REAL SOCIEDAD

## "Poztasun handiz"

Lezetak senitartekoekin batera egin du agerraldia, Reale Arenan, eta bertan jokatzeko desatzen dagoela adierazi du. "Ilusio handiz hartu dut albistea; urteak daramatzat talde honetan, baina inoiz ez dakizu pauso hau emateko aukera iritsiko zaizun. Momentu gogorak ere bizi izan ditut, eta, horiek gaindituta, orain honekin gozatzea tokatzen da". Hala, Realari ematen diotaren eta Realetik jasotzen duenaren gainean ere egin du berba aretxabaletarrak: "Eguneroko entrenamenduetan hazten jarraitzen joateko aukera ema-

ten dit Realak, eta, harrobiko jokalaria naizenez, neska gazteendako motibagarria dela uste dut". Hala, etorkizun laburrera begira dituen helburuen gainean ere egin du berba Lezetak: "Futbol jokalaririk gisa hazten jarraitu nahi dut, eta Reale Arenan jokatzeko aukera izatea ederra izango litzateke".

## "Harrobiaren aldeko apustua"

Albistearen berri emateaz batera, talde txuri-urdinak harrobiko filosofiaren aldeko apustua egiten jarraitzen due-

la adierazi du, etxeko jendeari aukera emanda: "Maren Lezeta, bigarren taldeko jokalaria, lehen taldearen dinamikan egongo da eta bigarren taldearekin lehiatzeko aukera izango du. Realak haren aldeko apustua egin nahi du, etorkizuneko proiektu gisa. Maila nazionalen bigarren taldearekin protagonista, erdilariak Sanchez Verraren konfiantza bereganatu du, haren kalitate tekniko handiari esker. Marenek 28. zenbakiarekin jokatzeko jarraituko du talde nagusian".



Yaman Mahjed, WOW15-en, Diego Larrearen aurkako borrokan. WOW

## WOW16-ko borroka nagusietako bat jokatu du Mahjed

**MMA** Richard Jacome 'La Pantera'-ren (1-0-0) aurka jokatu du bihar, 18:30ean hasita, Bilbo Arenan

### Julen Murua Mesonero ARRASATE

MMA urrats handiak egiten ari da Yaman Mahjed (2-0-0) arrasatearra; izan ere, WOW14 eta WOW15 jaialdietan garaipen bana lortu ostean, Bilbo Arenan jokatu duen WOW16 jaialdiko borroka nagusietako bat jokatu du.

### Bereari begira

Zaragozako borrokalari Richard Jacome *La Pantera*-ren aurka lehiatu da Arrasatekoa, *Bantamweight* kategorian, 61,2 kilotan. *La Pantera*-k jokatu duen borroka bakarria irabazi du, baina Mahjedek dio hari irabazteko gakoa izango dela arreta norbere lanean jartzea: "Gustatzen zait arreta jartzea nik egiten dudana horretan. Nire helburua da orain arte ikusi ez den bertsio bat erakustea; bai teknikoki, baina baita fisikoki eta mentalki ere".

### "Izugarria izango da"

Yamanek dio WOW16 jaialdia Bilbon egingo dela iragarri zenean "mugikorra sutan" izan zuela ezagutzen ez duen jendearen "babes mezuekin": "Madrilen borrokatzen dudanean etxean bezala sentitzen banaiz, ez dut imajinatu ere egin nahi zer gerta daitekeen Bilbon; izugarria izango da". Gaur-gaurkoz, sarri gertatu gaituz besterik ez dira gelditzen.

### Debagoieneko ordezkaritza

Yaman ez da jaialdiko debagoienar bakarria izango; izan ere, Aretxabaletako Rachid Archaouik debuta egingo du profesionaletan Luca Biusoren aurka; Fabrizio Zapata antzularra Isai Villamurren aurka borrokatuko da profesional mailan; eta Iker Davila arrasatearrak, amateur mailan, Marouane Nassiriren aurka jokatu du.

## IPAR ZONAKO TRIAL PROBA

'HARMAILATIK' SAIOA

ASTELEHENEAN, OTSAILAK 17, 20:00ETAN ETA 22:00ETAN  
ARETXABALETAKO OZTOPO TRIAL TALDEAK ANTOLATUTA



DESKARGATU  
GOIENA  
APLIKAZIOA

goiena  
Zu hemen zaude.







Ainara Urrutia, Kobaz Koba lasterketako helmugan. GUKA

# Urrutia nagusi, laugarren aldiz, Kobaz Koba proban

**MENDI LASTERKETAK** Garaipen batekin hasi du denboraldia Ainara Urrutia aretxabaletarrak; laugarrena jarraian, urtea hasteko aukeratzen duen lasterketan. Datozen lasterketak ez ditu planifikatu, baina Zegama-Aizkorri egitea bada helburua

## Julen Murua Mesonero

ARETXABALETA

Kobaz Koba trail lasterketa egin zuten joan den domekan Zestean, eta korrikalariak 16 kilometroko Artzei Bidea edo 26 kilometroko Zaldei Bidea egin behar izan zuten. Ainara Urrutia korrikalari aretxabaletarrak Artzei Bidean hartu zuen parte, eta helmugara iritsi zen lehen emakumea izan zen, 1.33.05eko denborarekin; sailkapen orokorrean 34.a izan zen. Lorpenarekin, aurreko hiru urteetako txapel-dunaren titulua berretsi zuen. Emakumezkoetan, haren atzetik sartu ziren Ane Elzaurdia (1.33.54) eta Irati Larrañaga (1.34.26).

## Lasterketari eskua hartuta

Laugarrenez irabazi du Urrutiak Kobaz Koba traileko Artzei Bidea zatia; lasterketari eskua hartu dion seinale da hori. Izan ere, aretxabaletarrak onartzen du "ohitura" bilakatu dela "denboraldia hasteko Kobaz Koba lasterketa aukeratzea". Urrutiak dio "giro aparta" sortzen dela mendian zein herrian, eta "gustuko" duen lasterketa dela.

Entrenamendu-saioak "duela gutxi" hasi dituela dio aretxabaletarrak, baina, hala ere, ondo ikusi zuen bere burua Zestean: "Igoeran lehenengoetako postuetan mantentzea zen helburua, jaitsieran buelta emateko. Lokatz asko zegoen, eta banekien jais-

teko orduan estutu egin behar nuela, hor moldatzen naizelako ondoen; hori izan zen jarraitu nuen estrategia".

## "Gogoaren arabera"

Denboraldia hasi berri dute mendi lasterkari askok, eta batzuek dagoeneko izango dute parte hartu nahi duten lasterketen zerrenda. Ez da hori Urrutiaren kasua; izan ere, lasterketa batzuk begiz jota ditu, baina "gogoaren arabera" mugituko da: "Iaz egin bezala, gogoaren arabera ikusiko dut zer lasterketatan parte hartzen dudana. Hala ere, Zegama-Aizkorri lasterketa egitea bada helburua".

## Open Zona Norte txapelketako lehen geltokia, Aretxabaletan

**TRIALSIN** Bost geltoki dituen txapelketa da; Aretxabaletan jokatu da lehenengo proba, domekan

### J.M.M. ARETXABALETA

Bizikleta gainean abilezia dutenak izango dira protagonista domekan Aretxabaletan; eta ez kilometro kopuru izugarria egiteko gai izateagatik, bi gurpilen –edo bakarraren– gainean ematen duten ikuskizunagatik baizik. Izan ere, 11:00etan hasi eta 15:00ak bitartean, Open Zona Norte 2025 txapelketako lehenengo proba jokatu da Oztopo Trail parkean. Debagoieneko ordezkariak egongo da txapelketan: Julen Arenaza arrasatearra izango da bizikleta gainera igoko denetako bat –kategoria zehaztu gabe–.

Bost geltokiz osatuta dagoen txapelketa da –lau kanporaketa eta finala–, eta bost horietatik aurrenekoa izango da Aretxabaletan jokatu dena. Gainontzeko kanporaketak jokatu dira Lizarran –apirilaren 12an–

, Lukun –uztailaren 19an– eta Gijonen –irailaren 28an–; finala, berriz, Lizarran izango da, urriaren 11n.

### Hainbat maila

Txapelketa bina orduko bi zatitan banatu da, eta bakoitzean maila askotariko parte hartzaileek neurtuko dituzte indarrak: 11:00etatik 13:00etara bitartean, promes, hasiberri, alebin eta infantil mailakoak arituko dira bizikleta gainean; 13:00etatik 15:00etara bitartean, berriz, kadeteen, juniorren, R1 eta R2 kategorietakoak eta elite mailakoak txanda izango da. Elite mailako lehenengo hiru sailkatuek 200, 100 eta 50 euroko sariak lortuko dituzte, hurrenez hurren; gainontzean, sailkapenaren arabera, parte-hartzaileek finalerako txartela lortzeko puntuak batuko dituzte.

## KROSA Ekain Larreak Gipuzkoako errekorra ondu du 1.500ekoan

Parte-hartze askeko proba jokatu zen joan den zapatuan, hilaren 8an, Donostian, eta 3 minutu, 48 segundo eta 47 ehunen behar izan zituen antzuolarrak 1.500 metroko distantzia lasterka egiteko.

Ekain Larreak Gipuzkoako errekorra ondu du 1.500 metrokoan –Real Sociedad klubean dihardu–, eta sentsazio "onak"

izan zituela nabarmendu du: "Federatutako edozeinek har dezake parte proba horretan, eta helburua, normalean, da bakoitzak bere markarik onena egitea. Federazioak erbi bat jarri zuen horretarako, aurretik tiratzen joaten den pertsona bat, erritmoa marka dezan, eta haren atzetik joan nintzen kilometro batez; ondoren, bakarka erdietsi nuen marka". Errekorra ontzeagatik, gainera, hilaren 22an jokatu den Espainiako txapelketa absolutuan izango da Larrea.



**Realaren eta Leganesen arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean**

**GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA**

Reala-Leganes norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuek eta zuek aukeratutako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko *premium* gunetik. Partidua otsailaren 23an izango da, 21:00etan. Parte hartzeko azken eguna: otsailaren 17a.




**goiena<sup>™</sup> kide**

**Okm:**  
batzen gaituen distantzia

**Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!**



**1.**  
Aplikazioa deskargatu.

**2.**  
Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

**Gertu.**  
Zorte on!



**Egin Goienakide eta Reala ikusteko aukera izango duzue!**







# Amodiozko gutunen irakurketa, musikarekin eta antzerkiarekin josita

Jardun Euskara Elkartearen 43. Amodiozko Gutunen Lehiaketako sariak banatuko dituzte gaur, Seminarixoan, 19:00etan; Txuma Murugarren kantuan eta Jarduneko antzezleak izango dira taularen gainean; guztiontzako daude ateak zabalik

**Aitziber Aranburuzabala** BERGARA  
Ibilbide luzea du Jardun Euskara Elkarteak antolatzen duen Amodiozko Gutunen eta Esaldien Sariketarak, eta estimatua da Euskal Herrian. Horren erakusle da, esaterako, ia herrialde guztietako sormen-lanak batu dituztela aurten ere, eskualdean hainbat sari geratu badira ere.

Epaimahaia nork osatzen duen ere bada lehiaketa batek duen mailaren beste adierazle bat, eta 43. aldikoa artista ezagunekin osatu dute: Mikel Albisu *Mikel Antza* idazlea, Txuma Murugarren abeslaria, Oihana Iguaran bertsolaria eta iazko irabazle nagusi Sara Aranburu. Ohi moduan, Bergarako batxilergoko ikasleek osatu dute gazte-epaimahaia; aurten, Ipintza Institutuko Beñat Azkaratek eta Ariane Igartuak eta Aranzadi Ikastolako Maddi Gazteluk, Malen Aranburuk eta Ane Ormae-teak izan dute ardura hori.

## Ekitaldia, gaur, Seminarixoan

58 gutun jaso dituzte aurten guztira, eta horietatik bostek saria jasoko dute gaur. Maialen Akizu Bidegain urretxuarrak bigarren jaso du sari nagusia (500 euro); Barakaldoko Yannick Vergara Villafafilak bigarren saria (250 euro); Lide Mantxola Akizu oñatiarrarentzako izango da Gazte saria (150 euro); Bergarako Onena saria (150 euro) Libe Txintxurretak; eta Parte-hartzaile Berriaren saria (100 euro) Ane Zuazubiskar Iñarra arrasatearrak jasoko du.

Lan kontuak direla-eta Yannick Vergara ez da sari-banaketa ekitaldian egongo, baina gaitortzeko Seminarixoan izango direla baieztatu dute. Gutuna idazleen ahotik entzutea beti da plazera, baina Jardun Euskara

Elkarteko kideek azaldu dute irakurketa soil bat baino gehiago izango dela aurten; estreinakoz, Seminarixoan egingo dute ekitaldia. "19:00etan hasiko da ekitaldia eta Jardun Antzerki Eskolakoek zabalduko dute, esketx bat eginda. Segidan, irabazle guztiek euren gutunak irakurriko dituzte, eta, haien artean, aurten epaimahaikide izan den Txuma Murugarrenek laster kaleratuko duen bildumako kantu batzuk abestuko ditu. Ohi moduan, ekitaldia guztiontzako dago zabalik".

## Maitasunaz, erpin askotatik

Maitasuna da lehiaketaren munita, baina, urtero moduan, batu dituzten istorio guztiak ez dira erromantikoak eta gozoak; eta badira hartzaileak izango ez dutenak ere. Hala abiatzen da-

eta sari nagusia jasoko duen Maialen Akizurena: *Hau inoiz bidaliko ez dudun gutun bat da.*

Gazte sariaren irabazle Lide Matxolak, berriz, bere buruari idatzi dio, ispilua aurreko beldurri aurre eginda eta gutunarekin identifikatuta sentitzen den orori zuzenduta. "Nire helburua, nolabait esateko, ez zen lehiaketa irabaztea, baizik eta gutunean kontaktzen dudanari zentzua ematea eta ikustea ni neu izanda gauzak lortzerik badagoela. Terapia hutsa".

Oso pertsonala da Bergarako Onena saria irabazi duen Libe Txintxurretaren ere: "Barne-emozioei eta ezkutuko desioei buruzko hausnarketa pertsonala da; beraz, autoelkarrizketa bat. Maitemintze isil eta idealizatu baten istorioa kontatu dut. Bergara-Oñati tranbia hartzen



Gazte-epaimahaikide taldea osatu duten Bergarako batxilergoko ikasleak. JARDUN

duen pertsona da idazlea; sentimendu sakon eta obsesiboak garatu ditu behin San Prudentzioko geltokian igo eta bi aldiz begiratu zion norbaitekiko".

Oso barrukoa da bigarren sariaren irabazle Yannick Vergarak idatzi duena ere. "Ia hamar-kada oso bat elkarrekin eman ostean, gaur egungo Yannickek bere esklerosi anizkoitzari idatzitako maitasun gutuna da. Niretzat oso garrantzitsua da gai hori. Gutunean kontaktzen dudun gutzia erabat autobiografikoa da eta opari ederra izan da barruan gordeta nuen hori gutzia atera eta, gainera, epaimahaikideen esker ona jasotzea".

Ane Zuazubiskarrek estreinakoz hartu du parte, eta kategoria horretako saria jaso du *Gizon heterosexual bat maitatzea (emakume heterosexual batentzat)*

izenburua duen gutunarekin. "Emakume heterosexual batek gizon heterosexual bati idatzitako gutuna da, haren estereotipo eta kanon guztiekin..."

## Esaldietan ere, uzta ona

Gutunez gain, amodiozko esaldien lehiaketa ere bada Jardunek antolatzen duena, eta oraingoan, 35 jaso dituzte. Horietatik guztietatik, Zuriñe Etxeberria Fernandez iruindarrarena go-raipatu du Gazte-epaimahaia. Honako esaldi honekin jasoko du, bada, 100 euroko saria: *Motza da iragana bizitako guztia laburtzeko; luzea etorkizuna biziko ez duguna idazteko; gutxi da bizitza oso bat oroitzapenak ahazteko; asko dira hamar urte malko bakarrean husteko; itsaso oso bat beharko nuke barre-na husteko.*

## "Irudimenaren defendatzailea naiz ni"

**MAIALEN AKIZU** LEHEN SARIAREN IRABAZLEA

2021ean irabazi zuen Maialen Akizu soziologoak (Urretxu, 1996) Jardunen sariketa; bigarren jaso du, aurten. **Zeri buruz idatzi duzu?** Balizko bizitzekin ere bizi gure bizitza honetan, eta maitasunean ere eragiten dute horiek. Ni irudimenaren defendatzailea naiz, baina lilurak baditu bere gatazkak, bere mehatxuak, eta horiei lekua patxada batetik ematen dien ahots batek idatzi du *Hau*



BERTSOZALE ELKARTEA

*inoiz bidaliko ez dudun gutun bat da* izenburua duen gutuna. **Zelakoa izan da idazketa-prozesua?** Ez da gai berria; lagun-artearen eta elkarrizketetan ateratzen da. Ez nuen gutun bihurtzeko asmorik, baina lehiaketaren berri jakin nuenean, nolabait, presente neukan, eta hitzak jartzen saiatu nintzen. **Pozik sariarekin?** Bai; azkeneko egunean bidali nuen, azkar samar idatzita.

## "Barrua husteko idazten dut askotan"

**LIDE MANTXOLA** GAZTE SARIAREN IRABAZLEA

Bere buruari idatzitako gutun ausartarekin irabazi du Lide Matxolak (Oñati, 2000) saria. **Zeri buruz idatzi duzu?** Oso pertsonala da: barruak husteko idazten dut askotan; beste batzuetan, prozesu batek dituen zailtasunak gainditzeko gai naizela gogoan izan eta, bide batez, errealitatea erlatibizatzeak duen garrantzia ez ahazteko. Gutuna horren adibidea da; identifikatuta sentitzen direnei zuzenduta.



LIDE MANTXOLA AKIZU

## Zelakoa izan da idazketa-prozesua?

Noizean behin, gogoetaren bat edo beste idazteko joera daukat, eta hau hortik sortu zen. Hasiera batean, hausnarketa bat besterik ez zen, eta, lehiaketaren berri izan nuenean, gutun itxura eman nion. Pentsatu nuen gai horren inguruko ezjakintasuna besarkatuz merezi duen ahotsa ematea, naturaltasunez eta zintotasunez.

## IRAGARKI SAILKATUAK

## 1. ETXEBIZITZAK

## 101. SALDU

**Bergara.** Mekolalden baserria salgai. 12 hektarea, pinu eta fruitu arbola ezberdinez inguraturata. Interesatuok deitu hurrengo telefono zenbakira: 943 76 49 61 edo 644 40 93 67

## 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Alokairu bila gabiltzan bi gazte gara. Lana daukagu. Ez haurrik eta ez animaliarik. 2 logela izatea gustatuko litzaziguke. Arrasaten eta Bergaran lan egiten dugu. 631 68 09 17

**Bergara.** Alokairu bila nabil Bergaran. 2 edo 3 logela izatea eskertuko nuke. Bergarako Udaltxan ari naiz lanean. Deitu 645 72 92 87 telefono zenbakira.

**Bergara.** Bergarako neska gazte bat naiz eta alokairuzko pisu baten bila nabil. Etxebizitza niretzat bakarrik izango litzateke eta 750 euro arte ordaintzeko prest egongo nintzateke. Ahal dela, bi gela eta argitasuna izango litzateke eta bat nahiko nuke. 684 14 95 54 edo 608 15 45 37

**Debagoiena.** Alokatzeko logela bila dabilen emakume arduratsua eta langilea naiz. Alokairuaren kontratua eta etxebizitzan errotatzeko aukera izatea beharrezkoak ditut. Telefonoa: 602 53 38 42

## 2. GARAJEAK

## 201. SALDU

**Arrasate.** Arrasateko Kontzezio kalean garaje itxia salgai. 699 83 07 82

## 4. LANA

## 401. ESKAINTZAK

**Bergarako Angiozar auzoa.** Neska euskaldun baten bila gabiltza, pertsona nagusi batzuen etxean garbiketa egiteko. Goizez, astean 4 orduz. Soziosanitario titulua eta kotxea izatea beharrezkoak dira. 655 73 10 54

## 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Garbiketa lanak egiteko gertu dagoen emakumea. 603 30 73 94

**Arrasate.** Zaintzan zein garbiketak egiten lan egingo nuke. Atarian, etxean zein fabrikan garbiketa egingo nuke. Deitu 688 29 97 05 telefono zenbakira.

**Bergara.** Bergarara iritsi berria den neska gazte bat naiz eta lan bila nabil. Esperientzia daukat garbiketa alorrean, sukaldari laguntzaile gisa eta nagusiak zaintzen. Etxea zein atariak garbitzeko, nagusiekin laguntzeko eta bestelako lanak egiteko gertu nago. 631 87 56 29 edo 684 14 95 54

**Bergara.** Zuzenbidea ikasten duen neska euskalduna eta arduratsua eta ez animaliarik. 2 logela izatea gustatuko litzaziguke. 688 62 90 09

**Debagoiena.** Asteburuetan edo astean zehar gauze lan egingo nuke. Etxe zein ospitaletan. Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest dagoen emakume esperientziaduna. 602 80 15 38

**Debagoiena.** Astelehenerik ostiralera orduka lan egiteko eta asteburuetan prestutasun osoa duen emakumea naiz. Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke. 611 09 17 94

**Debagoiena.** Emakume arduratsua pertsonak zaintzeko gertu. Soziosanitario titulua eta legezko agiriak ditut. Esperientzia dut zaintza lanetan. Deitu 625 25 57 78 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea pertsonak zaindu, garbiketa lanak egin edo zerbizari lanak egiteko prest. Malgutasuna dut. Telefonoa: 651 49 05 35

**Debagoiena.** Eraikuntza-laguntzaile, soldatzaile, edo pintore gisa lan egingo nuke. Telefonoa: 624 63 00 90

**Debagoiena.** Erizaintzako laguntzaile naiz eta Soziosanitario ikasketak ditut. Pertsona nagusien edo haurren zaintzan edota garbiketetan lan egingo nuke. Berehalako prestasuna. Pertsona arduratsua eta errespetuzkoa. 673 64 41 99

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke pertsona nagusien zaintzan. 633 84 07 08

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke pertsona nagusien zaintzan. 626 44 46 49

**Debagoiena.** Gidari-zerbitzuak eskaintzen baita garraiolaria lanak egiteko ere. 624 17 89 88

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Garbiketa lanak egiteko edo pertsonak zaintzeko prest. 633 17 32 15

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko prest. Telefonoa: 631 90 15 92

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke pertsonen zaintzan. Esperientzia daukat. Deitu 611 75 39 92 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Larunbategian, orduka, garbiketa lanak egiteko gertu dagoen emakumea. Telefonoa: 611 38 94 37

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. 600 41 80 86

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten, orduka edo asteburuetan lan egiteko gertu. Pertsonen zaintzan lan egingo nuke. Telefonoa: 633 17 32 15

**Debagoiena.** Etxeko lanak egiten edota pertsona nagusien edo umeen zaintzan lan egiteko prest. Orduka lan egiteko gertu. 624 70 02 37

**Debagoiena.** Etxez etxeko laguntzaile gisa edo garbiketa-lanak egiteko gertu dagoen emakumea. Soziosanitario eta garbitzaile tituluak ditut. Deitu 695 09 24 23 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. Neska gazte arduratsua naiz. 613 59 26 39

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egiteko edo pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko prest dagoen emakumea. Etxetik kanpo bizi izatean. Astean zehar zein asteburuetan lan egiteko gertu. Telefonoa: 612 56 12 39

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egiteko edo pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko prest. Etxetik kanpo bizi izatean. Astean zehar zein asteburuetan lan egiteko gertu. Telefonoa: 632 63 77 38

**Debagoiena.** Garbiketak egiteko edo eraikuntzan lan egiteko prest dagoen gizona. Malgutasun osoa. 671 25 12 09

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zainduko nituzke etxean bertan bizi izaten edo orduka. Telefonoa: 603 30 03 77

**Debagoiena.** Gizon arduratsua pertsonak zaintzeko gertu. Hamahiru urteko esperientzia eta gomendio onak ditut zaintzan. Kobrea, soziosanitario titulua eta legezko agiriak ditut. Gidari partikular gisa ere lan egingo nuke. Astelehenerik ostiralera lan egingo prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 624 83 95 19

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egingo nituzke. Bestelako lanak egiteko prestasuna. Soziosanitario eta garbiketa titulua ditut. Deitu 643 47 39 37 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zein umeak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke. Etxean bertan bizi izaten zein bestela. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 603 26 66 18

**Debagoiena.** Gizonetzko pertsona nagusien zaintzan lan egiteko prest. Astegunetan zein asteburuetan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 672 55 67 35

**Debagoiena.** Gizonetzko pertsonak zaintzeko prest. Soziosanitario titulua daukat. Etxetik kanpo bizi izaten lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefo-

no zenbaki honetara: 643 65 28 27

**Debagoiena.** Neska esperientziaduna, zintzoa eta arduratsua, adinekoak zaindu eta paseatzeko edo tabernak eta atariak garbitzeko lan bila. Berehalako prestasuna. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 624 83 95 19

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egingo nituzke. Bestelako lanak egiteko prestasuna. Soziosanitario eta garbiketa titulua ditut. Deitu 643 47 39 37 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaindu, pasiatzera ateratzeko edota garbiketa lanak egiteko prest dagoen emakumea. Esperientzia handia dut zaintza lanetan. Erizaintza laguntzaile ikasketak ditut. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke etxe zein ospitaletan. 654 71 55 99

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko gertu. Beste lan mota batzuetara molda naiteke. Etxean bertan bizi izaten

edo bestela lan egingo nuke. Berehalako prestutasuna. 605 33 90 92

**Debagoiena.** Pertsona nagusien zaintzan lan egingo nuke asteburuetan. : 602 82 91 39

**Debagoiena.** Pertsona nagusien zaintzan lan egiteko gertu dagoen pertsona. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 635 87 82 18

**Debagoiena.** Sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 644 05 98 53

**Debagoiena.** Sukaldari laguntzaile lan egingo nituzke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 623 53 82 88

**Oñati.** Oñatin, bi logela dietuen pisu bila nabil. 663 11 75 10

## 5. IRAKASKUNTZA

## 501. JASO

**Bergara.** Microsoft Word testu-prozesadorean aditu den pertsonaren batekin harremanetan jarri nahiko nuke, nire lanarekin lotutako zereginak egiteko laguntza jasotzeko. Eskertuko nuke, gainera, maketaziari buruzko ezagutzak izatea. 679 74 00 61

## ZORION AGURRAK



## BERGARA

**Ariane eta Maialen Quintas**  
Otsailaren 19an, 10 urte. Zorionak, guapetonas! Segi horrela! Muxu haundi bat etxekoan partetik!



## ARRASATE

**Aiur Da Costa Rivero**  
16an, 5 urte. Zorionak, maititi! Gurasoen partetik egun zoragarria izan. Maite zaitugu.



## ANGIOZAR

**June Ugarte Orzaga**  
15ean, 7 urte. Zorionak! Egun zoragarria izan eta segi beti bezain alai! Etxekoan partetik!



## BERGARA

**Xabi Mendiaraz Osinalde**  
13an, 5 urte. Zorionak, Txapeldun! Muxu bat familiaren partetik.



## BERGARA

**Noa Revilla Urrutia**  
10ean, 11 urte. Zorionak, maitxia! Patxo pilo bat etxeko danon partetik.



## ARRASATE

**Aines Lete Gardoki**  
Otsailaren 16an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat familia osoaren partetik!



## ARETXABAETA

**Lia Olalde Altube**  
15ean, 8 urte. Zorionak! Super ondo pasau zure eguna. Izugarri maite zaitzugu politxo!



## ARRASATE

**Eñaut Etxebarria Alzola**  
13an, 10 urte. Zorionak, Eñaut! Muxuak llart, Ane eta gainontzeuon partetik!



## OÑATI

**Marina Arregi Mager**  
18an, 40 urte. Zorionak! Konkistatzeko duzun guztia konkistatzea opa dizut. Aita.



## ANTZUOLA

**Paule Acosta Seguro**  
Otsailaren 16an, 8 urte. Zorionak, Paule! Oso ondo pasa zure eguna! Muxu potolo pilla bat!



## BERGARA

**Elene Txurruka Jauregi**  
Otsailaren 15ean, 10 urte. Zorionak, Elene! Ondo ondo ospatu zure 10 urtiak!



## ARETXABAETA

**Jule Olalde Altube**  
12an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Izugarri maite zaitzugu!



## OÑATI

**Aiur Olasagasti Bernal**  
Otsailaren 9an, 6 urte. Zorionak, txiki! Jarraitu zure irribar poliit horrekin gure egunak alaitzen! Primeran ospatuko dugu elkarrekin! Asko maite zaitzugu.



## ARRASATE

**Anje Aitua Arizmendiarieta**  
Otsailaren 17an, 4 urte. Zorionak, Anjentxo! Jarraitu holako alaiak izaten! Etxekoan partetik!



## BERGARA

**Danel Olabarria**  
15ean, 5 urte. Zorionak, pittin! Besarkada eta patxo erraldoi bat bereziki Martin eta Suan partetik!



## DEBAGOIENA

**Kattalin Zenitagoia Apraiz**  
13an, 11 urte. Egund ederra pasa izana opa dizugu guraso eta ahizpa Maialenek.



## OÑATI

**Aner Garcia Lopez**  
11n, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Jarraitu gure bitzta alaitzen. Asko maite zaitugu!

## IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Bergara:**  
**Ibaiondo pasealekua**  
96m<sup>2</sup>, 3 logela, bi trasteleku, igogailua, garajea aukeran.  
**320.000€**

**Bergara:**  
**Irizar ibilbidea,**  
78m<sup>2</sup> erabilgarri,  
3 logela, igogailua,  
balkoia, trasteleku.  
**290.000€**


**Bergara:**  
**Martokoa,**  
51m<sup>2</sup>, 2 logela,  
oso egoera onean,  
bizitzera sartzeko.  
**90.000 €**

Ibargarai 3 BERGARA  
Tel.: 943 76 97 97  
www.inmokorosti.com


Informazio gehiago:



**URTEURRENA**



**Antonio Astondoa Errasti**



2024ko otsailaren 14an hil zen, 93 urte zituela.

---


*Beti eramango zaitugu gure bihotzean, aitita.  
Asko maite zaitugu.*

Urteurreneko meza zapatuan izango da, otsailaren 15ean, 13:00etan, Barajuengo Andra Mari elizan. Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.


---

Aramaion, 2025eko otsailaren 14an.

**5. URTEURRENA**



**Eder Pagaldai Perea**



2020ko otsailaren 14an hil zen, 29 urte zituela.

---

*Zure irribarre bakoitza oroitzean  
betetzen zaizkigu barneko hutsuneak...*

*Maite zaitugu.  
Zure familia.*

---

Eskoriatzan, 2025eko otsailaren 14an.

**OROIGARRIA**



**Felisa Aranzabal Gabilondo**  
(Karmeldarra)



2025eko otsailaren 10ean hil zen, Gernikan, 96 urte zituela.

---

*Beti izango zaitugu gogoan,  
beti izango zara gure bihotzetan.*

---

Zure familia.  
Uberan, 2025eko otsailaren 14an.

**OROIGARRIA**



**Karmele Arana San Miguel**



2025eko otsailaren 8an hil zen, 61 urte zituela.

---

*Beti izango zaitugu gogoan, beti izango zara gure bihotzetan.  
Inoiz ahaztuko ez zaituen zure Aretxabaletako kuadrilla.*

---

Zure lagunak.  
Aretxabaletan, 2025eko otsailaren 14an.

**OROIGARRIA**



**Karmele Arana San Miguel**



2025eko otsailaren 8an hil zen, 61 urte zituela.

---

*Zure bizipoza, goxotasuna eta  
maitatzeko grina gogoratuko ditugu.*

---

Muruko lehengusu eta izeba-osabak.  
Aretxabaletan, 2025eko otsailaren 14an.

**BABESLEA**

**Oroilore**  
*Hileta zerbitzuak*

**Maitasunez bizi,  
maitasunez agurtu**

*Gure arloan agurtutako gazteak  
erain bidean aurkitzen lagundu  
diegu, orain arte bezala, eta gazteak  
izango diren egar berzia Oroiloren.*

*Gure eskerrak beronenak gogor  
izan dituzten konfiantzagarriak eta  
maitasunagarriak.*

**Mario, Iban, eta Maribi**

**617 44 21 55**  
BERGARA • ANTZULOLA • MOYNA OSATI



## GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ
Egubakoitza, 14 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Zapatua, 15 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
Domeka, 16 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Astelehena, 17 JAI0: Zarugalde 38 / 943 76 16 30
Martitzena, 18 AZKOAGA-AZKOAGA: Ferrerias 1 / 943 7915 15
Eguaztena, 19 JUNCAY: Kontzezino 12 / 943 79 15 15
Eguena, 20 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
BERGARA EGUNEZ
Egubakoitza, 14 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Zapatua, 15 OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05
Domeka, 16 OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05
Astelehena, 17 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Martitzena, 18 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Eguaztena, 19 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74
Eguena, 20 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
OÑATI EGUNEZ BAKARRIK
Egubakoitza, 14 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Zapatua, 15 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Domeka, 16 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Astelehena, 17 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Martitzena, 18 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Eguaztena, 19 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Eguena, 20 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
ARRASATE GAUEZ EGUNERO
(22:00etatik 09:00etara)
2025: FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
BERGARA GAUEZ EGUNERO
(22:00etatik 09:00etara)
2025: ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63

**Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:**  
COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

## BERRI-ZAKUA



**Merezitako omenaldia Elene Guridiri**  
Realarekin F ligan diharduen jokalaria oñatiarrak Aloña Mendiren aitortza jaso zuen Azkoagainen. Klubak koadro bat oparitu zion. Gainera, etxeko jokalariekin eta

presidentearen argakia egin zuen. Guridik iaz egin zuen debuta Lehen Mailan, Bartzelonaren kontra. "Aloña Mendiri oso eskertuta nago, haiek ere ibilbide honen parte direlako", esan zuen.



**Erakusketa**  
Elgetako Mendi Mendia Racing taldeak antolatutako ibilgailu klasikoaren erakusketan hamabost auto egon ziren.

## ASTEAGA GOIENA TELEBISTAN

**DEL VAL TALDEAREN KONZERTUA**

Arrasateko taldeak Danbaka musika lehiaketako finalean egindako emanaldia osorik ikusteko aukera.

'Danbaka' Egubakoitza, 20:00 eta 22:00

**KANTARI DEBAGOIENEAN**

Bergarako, Elgetako eta Antzuolako gaztetxoak kantuan eta dantzan ikusteko aukera.

'Kantari' Zapatua, 16:00 eta 20:30; eta domeka, 10:00, 14:30 eta 18:30

**IPAR ZONAKO TRIAL PROBA**

Lehenengo jardunaldia jokatu dute domekan Aretxabaletan. Han jasotako irudiak erakutsiko ditu Xabier Urzelaik.

'Harmailatik' Astelehena, 20:00 eta 22:00

**INDIANARA BIDAIA**

Indianako Evansville hirian bizi den Ane Madina oñatiarrarekin egingo du berba Eneko Azurmendik.

'Mundutik' Martitzena, 19:00, 21:00 eta 23:00

**GARBIÑE LARREARI ELKARRIZKETA**

Garbiñe Larrea naturopatarekin egingo du berba Joni Ubeda kazetariak. Kosmetika eta sendabelarrak izango dituzte hizpide.

'Elkarrizketa'

Martitzena, 20:00 eta 22:00



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

[goiena.eus/telebista](http://goiena.eus/telebista)

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / [kultura@goiena.eus](mailto:kultura@goiena.eus)

**EGUBAKOITZA 14****OÑATI** Zuhaitzietara bidaia

Pake Leku elkarteko kideak.  
Postetxeko geltokian, 08:30ean.

**BERGARA** Adimen artifiziala: mahai-ingurua

The Black box erakusketaren itxiera-ekitaldia. Javier Tejadak, Norbert Bilbenyk, Kerman Lopez de Callek eta Jesus Lopez Lobok egingo dute berba, Nora Alonsok gidatuta.  
Seminarixoan, 10:00etan.

**ELGETA** Koko-batzea: erakusketa

Konpartsako pertsonaiak ikusgai.  
Zeramika-gelan, 16:00etan.

**ARAMAIO** 'Irabazi arte'-ren denboraldi berriaren estreinaldia

Gaztetxoendako.  
Kultura etxean, 17:00etan.

**ELGETA** Ipuinen Ordua

Liburutegiko ipuin-kontalari taldearen eskutik, adinaren arabera hiru saiotan.  
Liburutegian, 17:30ean.

**ARETXABALETA** M8 prestatzeko bilera

Interesa duten herritar guztiendako.  
Udaletxe zaharrea, 18:00etan.

**LEINTZ GATZAGA** Herri Batzarra

Interesa duten herritar guztiendako.  
Erabilera askotariko espazioan, 18:30ean.

**BERGARA** Amodiozko Gutunen 34. Lehiaketa

Sari-banaketa ekitaldia.  
Seminarixoan, 19:00etan.

**ARETXABALETA** Ekuadorko espedizioaren gaineko emanaldia

Mari Karmen Astigarragaren, Fernando Bravoren, Jabi Gonzalenen eta Jose Antonio Irazuren eskutik.  
Arkupen, 19:00etan.

**ESKORIATZA** Julene eta Unai bikotea

Emanaldi akustikoa egingo dute.  
Inkernu taberna, 22:00etan.

**ZAPATUA 15****ARAMAIO** 'Aramaixo bizi-bizi' eguna

Aramaixo Bizirik taldeak, herriko beste hainbat eragilerek batera.  
Aramaion, 09:00etan.

**BERGARA** Bisita gidatua Oloso dorrean

10:15ean, euskaraz; eta 12:15ean, gazteleraz. Debalde.  
Oloso dorrean.

**ELGETA** Gaztetxoendako 'Laser Tag' ekintza

Asentzio inguruan egingo da eta 2008-2012 urteen bitartean jaiotakoendako izango da. Aurrez eman behar da izena.  
Asentzion, 10:30ean.

**ARRASATE** Ludoteka ibiltaria

3 eta 12 urte artekoek zuzendutako aisialdia, Txatxilpurdiren eskutik.  
Ordutegia: 11:30-13:30.  
Musokoloko gazte txokoa.

**OÑATI** Inauterietako entsegua

Martxoaren 1ean ospatuko den Oñatiko Inauteria prestatzeko entsegua.  
Eltzian, 12:00etan.

**BERGARA** 2024an Bergaran erroldatutako ongetorria

Musikaz eta dantzaz girotuko dute ekitaldia eta mokadutxo bat emango dute amaieran.  
Osoko bilkuren aretoan, 12:00etan.

**ESKORIATZA** Buruarinak egiteko tailerra

Familiei zuzendutako tailerra.  
Kultura etxean, 16:30ean.

**ARRASATE** 'Zepo Zapo' antzezlana umeendako

Markeliñe antzerki taldearen eskutik. Gerran etsai diren bi soldaduren arteko istorioa kontatzen du Markeliñek. Sarrerak, bost euro.  
Amaia antzokian, 17:00etan.

**ANTZUOLA** Dantzalekua

Landatxoepi elkartearen eskutik. Irekia, eta nahi diren dantzak egin daitezke.  
Olaran etxean, 17:30ean.

**ARRASATE** Maitasun erromantikoaren gaineko hausnarketa

Gaztetxoendako.  
Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

**ANTZUOLA** 'Irabazi arte' telesaila

Laugarren denboraldiaren estreinaldia. Debalde.  
Torresoroan, 18:30ean.

**BERGARA** 'Materia. Izena duen guztia da' dantza-ikuskizuna

Camden Dance Studioren Arima Project taldearen eskutik. Sarrerak, zortzi euro.  
Seminarixoan, 20:00etan.

**DOMEKA 16****ARETXABALETA** Trialsin txapelketa

Open Txapelketaren lehenengo jardunaldia. 11:00etan, promesak, hasiberriak, alebinak eta infantilak; eta 13:00etan, kadeteak, juniorrak, R1, R2 eta elite kategoriak.  
Oztopo trial parkean.

**BERGARA** Txistulari Bandaren kontzertua

Emanaldi irekia.  
Osoko bilkuren aretoan, 13:00etan.

**ARRASATE** 'Familia jolasean'

0-8 urte arteko haurrak dituzten familiendako.  
Okendoko ludotekan, 17:30ean.

**OÑATI** Rüdiger eta Madame Birrots taldeak

Burrunda Faktoriaren eskutik. Sarrera: ohikoak zortzi euro, eta murriztuak hiru.  
Gaztetxean, 18:00etan.

**GATZAGA** 'Artazuriketako kontuak'

Adinekoek haurrei Artazuriketako kontuak eskainiko dizkiete, Gurel Guraso Elkartearen eskutik.  
Toki Eder elkarte, 18:00etan.

**ARRASATE** Aratusteei begira

Mozorroak eta karrozak egiteko aukera izango dute gaztetxoek.  
Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.



**ARETXABALETA** Kintoen dantza saioa

2006ko neska-mutil kintoen emanaldia.  
*Herriko Plazan, 19:00etan.*

**ESKORIATZA** 'Manttalingo alaba' emanaldi musikatu

Saturrarango kartzelan giltzapean izan ziren emakumeak oroitu eta aldarrikatzeko Mikel Etxaburuk idatzitako poesia-liburuan oinarritutakoa. Sarrerak, bost euro.  
*Zaldibar antzokian, 19:00etan.*

**ASTELEHENA 17****ARRASATE** 'Cambio climático y meteorología operativa en Euskalmet' hitzaldia

Euskalmeteko estrategia eta koordinazioko zuzendari Santiago Gaztelumendik egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta.  
*Kulturaten, 10:00etan.*

**ARETXABALETA** Pentsiodunen sinadura-bilketa

Herri Ekimen Legegilea babesteko.  
*Herriko Plazan, 11:30ean.*

**DEBAGOIENA** Pentsiodunen elkarretaratzea

Oñatin, Antzuolan, Arrasaten eta Bergaran elkartuko dira.  
*Herri horietan, 12:00etan.*

**OÑATI** Haurren Irakurketa Kluba

LH-4ko eta LH-5eko haurrendako, Peru Magdalenak gidatuta.  
*Liburutegian, 17:00etan.*

**ANTZUOLA** Fernando Valladaresen hitzaldia

Giza jarduerak biodibertsitatean eta klima aldaketan duen eragina izango du berbagai Espainiako Zientzia Ikerketen Kontseilu Nagusiko ikerlariak.  
*Torresoroan, 18:30ean.*

**MARTITZENA 18****ARAMAIO** 'Ekonomia zirkularra' hitzaldia

Jorge Gomezek egingo du berba, +55 elkartegaiak programaren baitan.  
*Kultura etxean, 18:00etan.*



MARKELINE

**ARRASATE** 'Zepo zapo' antzezlan

Markeliñeren lana, umeendako. Keinu bidezko ikuskizuna, familientzako, edozein gerraren historia kontatzen duena. Gerra batean dauden Zepo eta Zapo dira protagonistak. Sarrerak, bost euro.  
*Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 17:00etan.*

**ARRASATE** 'Adingabeen buru gaixotasunak: prebentzioa eta kontentzioa' hitzaldia

Maitane Ormazabalek eta Telmo Lazkanok egingo dute berba, Altxa Burua Arrasatek eta Arrasateko Udalak gonbidatuta. Lekuak mugatuak dira eta aurrez eman behar da izena.  
*Kulturaten, 18:00etan.*

**ARRASATE** Euskal Herriko harrera-sareei buruzko mahai-ingurua

Txatxilipurdiren baitan sortu zuten Zuaz kulturartekotasun laborategiko kideen eskutik. Proiektu eta sareen hastapenak, ibilbideak, aurkitutako oztopoak, etorkizuneko erronkak eta euskararen erabilera zein protagonismoa aztertuko dituzte.  
*Kulturaten, 18:30ean.*

**BERGARA** 'Aralar' dokumentala

Ostean, Garazi Auzmendi zuzendariarekin solasaldia.  
*Seminarixoan, 19:00etan.*

**OÑATI** Inauterietako entsegua

Martxoaren 1ean ospatuko den Oñatiko Inauteria prestatzeko entsegua.  
*Eltzian, 19:00etan.*

**ARRASATE** 'Bird' pelikula

Martitzenetako saioa. Sarrerak, bost euro.  
*Amaia antzokian, 19:30ean.*

**EGUAZTENA 19****ARRASATE** Talentuari buruzko jardunaldiak

Ngloba Strategy enpresako Virginia Amilibiak egingo du berba.  
*Garaian, 09:00etan.*

**ARRASATE** Haziera eta haur masaje tailerra

Itziar Rosadoren eta Jon Urdinetaren eskutik, 0-2 urte arteko seme-alabak dituztenendako. Aurrez eman behar da izena.  
*Txiki txokoan, 10:00etan.*

**BERGARA** 'Kontsumitzaileen eskubideak funtsezko arloetan' hitzaldia

Euskal Kontsumitzaileen Elkarteko abokatu Leire Alberdik egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta.  
*Seminarixoan, 10:00etan.*

**ARAMAIO** Memoria historikoa: batzarra

Herritar talde batek proposatuta, Aramaioko memoria historikoa jasotzeko lantaldea osatu nahi du Udalak, eta bilera irekia deitu dute.  
*Osoko bilkuren aretoan, 17:00etan.*

**ARETXABALETA** 'Azken galdera amari' aurkezpen musikatu

Heriotzaren eta doluaren gaineko saioa egingo du Manex Beristainek, 5 urtetik aurrerako umeendako eta haien gurasoendako. Gonbidapenarekin.  
*Liburutegian, 17:30ean.*

**ARRASATE** 'Kontu kontakantaldia' saioa

4 urtetik gorako umeendako. Aurrez eman behar da izena.  
*Santa Marinako auzo bibliotekan, 18:00etan.*

**ARETXABALETA** 'Descentrando miradas: introducción al feminismo de(s)colonial para transformar luchas locales' hitzaldia

Luciana Alfarorekin.  
*Arkupen, 18:00etan.*

**ARRASATE** Eusko Abertzale Ekintzak egindako biderei aitortza

Batailloietan aritu ziren arrasatearrak izango ditu hizpide Eduardo Renobalesek.  
*Kulturaten, 18:30ean.*

**OÑATI** 'Itsas ekosistema bentonikoa: funtsezko bioadierazlea'

Nahiara Muguerzak egingo du berba, Ingurumen Jardunaldietan.  
*Zinema-aretoan, 19:00etan.*

**BERGARA** 'Memoir of a snail' pelikula

Azpituluekin. Sarrerak, hiru euro.  
*Seminarixoan, 20:00etan.*

**EGUENA 20****ARETXABALETA** Odol-ematea

Autobusa egongo da.  
*Durana kalean, 16:45ean.*

**ANTZUOLA** Toti Martinez de Lezearekin solasaldia

Landatxoek gonbidatuta.  
*Erretiratuen elkarte, 17:00etan.*

**ARRASATE** Guraso abileziak garatzen trebatzeko tailerra

Leyre Canoren eskutik, 6-11 urte arteko seme-alabak dituztenendako.  
*Kulturaten, 17:30ean.*

**ARRASATE** 'Nerabezaroa ulertzen: beldurak, balioak, autoestimua eta identitate garrantzia' hitzaldia

Maitane Ormazabalek eta Telmo Lazkanok egingo dute berba. Leku mugatuak.  
*Kulturaten, 18:00etan.*

**OÑATI** 'Zinzindurrunkarratz' dokumentala

Ingurumen Jardunaldien baitan. Sarrerak, 5,50 euro.  
*Zinema-aretoan, 19:30ean.*

**ARETXABALETA** Aldapeko taldea

Sarrerak, sei euro.  
*Arkupen, 20:00etan.*

**ARRASATE** Eraso! taldea

Sarrerak, zazpi euro.  
*Gaztetxean, 22:00etan.*

## ZINEMA

**ARRASATE****AMAIA ANTZOKIA****A different man**

Domeka eta astelehena: 19:30

**Finnick, un monstruo en casa**

Domeka: 17:00.

**BERGARA****SEMINARIXOA****Heretic**

Domeka eta astelehena: 19:30.

**Finnick, un monstruo en casa**

Domeka: 17:00.

**OÑATI****KULTURA ETXEA****Mikaela**

Egubakoitza: 22:00.

Zapatua: 19:30, 22:00.

Domeka eta astelehena: 19:30.

**Finnick, un monstruo en casa**

Zapatua eta domeka: 17:00.

**ARETXABALETA****ARKUPE****A real pain**

Egubakoitza: 22:00.

Zapatua eta domeka: 19:30.

Astelehena: 16:00.

**Klara eta hazi magikoen misterioa**

Zapatua eta domeka: 17:00.

**GASTEIZ****FLORIDA****Bridget Jones: loca por el**

Egubakoitza eta zapatua: 17:00,

19:00, 22:00.

Domekatik eguenera: 17:00, 19:30.

**Captain America: brave new world**

Egubakoitza eta zapatua: 17:00,

19:30, 22:00.

Domeka: 12:00, 17:00, 19:30.

Astelehenetik eguenera:

17:00, 19:30.

**Emilia Perez**

Egubakoitzetik domekara: 19:30.

**La semilla de la hoguera sagrada**

Egubakoitza eta zapatua:

18:30, 21:45.

Domeka: 20:30.

Astelehenetik eguenera: 19:30.

**La tutoria**

Egubakoitzetik domekara:

17:00, 19:15.

Astelehenetik eguenera:

17:00, 19:30.

**Memorias de un caracol**

Egubakoitza eta zapatua: 21:45.

Domeka: 12:00.

**Mikaela**

Egubakoitza eta zapatua:

17:00, 22:00.

Domeka: 12:00, 18:00.

Astelehenetik eguenera:

16:45, 20:30.

**September 5**

Egubakoitza eta zapatua:

16:30, 22:00.

Domeka: 16:30, 19:30.

Astelehenetik eguenera:

16:30, 18:45.

**Mufasa: el rey león**

Domeka: 12:00.

**Vaiana 2**

Domeka: 12:00.



AZKEN BERBA

ANDER ETXEBERRIA

## Larrialdiak

Euskara larrialdian dago. Hala esan zuen Euskalgintzaren Kontseiluak azaroan: azken hamarkadetako susperraldia moteldu egin da eta erabilera soziala ahula da.

Badira urte batzuk Joxean Artzeren ondoko esaldia edonon ikus zitekeela: *Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenez ikasten ez dutelako, dakitenez hitz egiten ez dutelako baizik*. Gaur, ordea, demografia azkar aldatzen ari denez –kanpotik etorri diren herritarren portzentajea gero eta garrantzitsuagoa da–, euskara ikastea ere funtsezkoa da.

Hiru aste dela, orri hauetan honela zioen Amerika Elkarteko presidente Daniela Castrok, hona datozen migratzaileen arazoak azaltzerakoan: "Nahi dutena eta behar dutena bizirik irautea da, eta beste guztia bigarren plano batean geratzen da... Konturatu ginen pertsona migratzaileei ez zitzaie interesatzen hitzaldi batera joatea edo euskara ikastea; lo egiteko leku bat eta jatekoa nahi dute. Eta, egonkortasun bat zein oinarritzko beharrak beteta ez dituzten artean, horrela izango da".

Hots, nekez gaindituko dugu euskararen larrialdia Danielak aipatutako larrialdia aintzat hartzen ez badugu gizarte bezala.

## GAZTE GARA GAZTE

# "Ez dut neurtzen jaten dudan guztia; oreka kontua da"

IRATI GARDOKI LARREA  
NUTRIZIONISTA, MUSIKARIA ETA ENTRENATZAILEA

**Julen Murua Mesonero** ANTZUOLA  
Txikitan hasi zen musikan eta kirolean murgiltzen Irati Gardoki (Antzuola, 2000). Gaur egun, kirolari bideratu dakioken ofizio batean dihardu, eta haren pasioa den musikari ere eskaintzen dio tarte bat.

**Gimnasia erritmikoko entrenatzailea zara gaur egun, baina noiztik zaude kirol horri lotuta?**  
5 urterekin hasi nintzen gimnasia egiten, eta 19 urterekin utzi nuen; pandemia garaia hasi zenean, hain justu. Orduan, entrenatzaile titulua atera eta beste aldera pasatu nintzen; ordutik hona dihardut entrenatzaile-lanetan.

**Kirolari ala entrenatzaile, zertan moldatzen zara hobeto?**  
Oso ezberdinak dira bi aldeak; ez nuke jakingo esaten zertan moldatzen naizen hobeto. Hori, agian, beste pertsona batek hobeto esango luke. Ni ahalik eta lan txukunena egiten saiatzen naiz entrenatzaile gisa, eta gimnasta gisa ere horrela egiten nuen. Esan beharra daukat bi aldeetan naizela oso lehiakorra.

**Horren kirolzalea izateak eraman zintuen Nutrizioa ikastera?**  
16 urte inguru nituela Gipuzkoako Federazioak antolatu zuen

teknifikazio saio batean, nutrizioaren gaineko hitzaldi bat izan genuen, eta orduan sartu zitzaidan nutrizioa ikasteko gogoan. Hala ere, betidanik izan dut elikaduraren inguruko interesa.

**Nutrizionista izanda, egunerokoa jaten duzun guztia neurtzen duzu?**  
Ez dut guztia neurtzen; orokorrean, denetik jaten dut. Pazienteei ematen dizkiedan gomendioak jarraitzen ditut; kontua ez da guztia neurtzea, oreka izatea baizik.

**Kirola eta nutrizioa bai, baina Iratik badu hirugarren esparru bat.**

Bai; txikitatik musika izan da nire pasioa. Trikitia jotzen ikasten hasi nintzen 8 urte nituela, eta, ondoren, gitarra jotzen ikasi nuen, nire kabuz. Karena taldeko kide naiz eta aurreko urtean disko bat kaleratzeko aukera izan genuen. Gaur egun, pianoa ikasten ere banabil, musika eskolan.

**Nondik ateratzen duzu egiten duzun guztirako denbora?**

Ondo antolatzea da gakoa. Normalena asteko egun guztiak berdina izatea izaten da, baina, nire kasuan, asteko egun bakoitza ezberdina da, eta ordu guztiei probetxua ateratzen saiatzen naiz. Nire lana asko gustatzen



Irati Gardoki Larrea antzuolarra. I.G.L

## MOTZEAN

**Michelin izardun jatetxe bat ala amamaren etxea?**

Amonaren etxea.

**Hotela ala furgoneta?**

Hotela.

**Abesti bat.**

Gorka Urbizuren *Etxe bat*.

**Gimnasiarako zer?**

Uztaita.

**Antzuolako toki bat.**

Antiguako errotako parkea.

**Ezkutuko zaletasuna?**

Pintura.

zait eta beti esaten dut nire ofizioa afizioa ere badela; hortaz, oso gustura egiten dut guztia. Gimnasia erritmikoa antolakuntza honetan asko lagundu didala aitortu beharra daukat. **Hiru esparru horietatik bat bakarra aukeratu beharko bazenu, zein aukeratu zenuke eta zergatik?** Zer galdera zaila! Hiru esparruak lotzen dituen gimnasia erritmikoa dela esango nuke: alde batetik, kirola eta nutrizioa lotuta doaz; eta, bestetik, kirol horrek musika ere beharrezkoa duelako.

# KANTARI DEBAGOIENEAN

ZAPATUAN, OTSAILAK 15, 16:00ETAN ETA 20:30EAN  
DOMEKAN, OTSAILAK 16, 10:00ETAN, 14:30EAN ETA 18:30EAN  
BERGARAKO, ELGETAKO ETA ANTZUOLAKO GAZTETXOAK  
KANTUAN ETA DANTZAN



DESKARGATU  
GOIENA  
APLIKAZIOA

**goiena**  
Zu hemen zaude.

